

EA

NATXITUA-BEDARONA


**AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN
1989**

Augustin Zubikarai
Legezko gordetza: BI - 2174 - 89
Irarkola: Flash Composition, S.A.
Azala: Aitor Fernandez
Argazkiak: Juan Fernandez Eiguren

AURKIBIDEA

	Orrialdea.
AURKIBIDEA	3
Eskeintza antzera.....	7
ERRI EZAUPIDEA	9
Sarrera.....	11
Ea.....	13
Noiztik dator Ea?.....	15
Itxasertza zeastuten.....	18
Ibaia.....	20
Udal Batzarra.....	21
Bizi lagunak.....	22
Urteko diru goraberak.....	24
Etxeak.....	25
Bizibide ta abar.....	26
Euskera Ea'n.....	28
Kaletako etxeak 1704 urtean.....	30
Politika pentsabidea XX gizaldian.....	34
Argazkiak.....	36
ITXAS BIZITZA	47
Itxas bizitza Ea'n.....	48
Martin Urtubia.....	49
Ea'ko itxasontziak.....	52
Argazkiak.....	58
ARRANTZA ETA ARTZAINZA	65
Arrantza.....	66
Itxasotik bizi nai.....	72
Artzaiñak.....	78
UDALBURU IZAN NAI	81
Natxiuaren mendeko auzo barik, udal oso biurtu nai.....	82
Barriro ekiten.....	82
Noiztik Ea Udalburu?.....	84
Errege agindua.....	86
ELEIZ BIZITZA	93
Natxituko parrokia.....	94
Bedaronako parrokia.....	96
Ea'ko san Juan.....	97
Jesus'eko eleiza.....	98
Ermitak. Agate deunarena.....	100
Bartolome deuna.....	101
Talako Ama.....	101

Eriotza Bedarona, Ea eta Natxitua'ko parroketan.....	103
Argazkiak.....	106
JAKINGARRI ETA KONTAKIZUN	119
1630-1638'ko goraberak.....	120
Bedarutarrenak.....	125
Fokak Bedaronan eta abar.....	126
Natxituarrenak.....	128
Erromerira zaldiz eta abar.....	128
Angelutxu.....	131
Ea orain irurogei urte.....	133
Ordulariak.....	136
Azurtokia.....	138
Ibiltarien ikuspegiak.....	140
Gure denporetako ikuspegi bat.....	141
Ibiltari baten aitormena.....	143
Ikuspegi zarragua.....	145
Lengo gizaldiko gomutak.....	147
Gaspar Peña.....	151
Sugalak (Fogerak).....	152
Ea jan edanetan.....	153
Eskabetxe egilleak.....	154
Agintariei menpetasuna agintzen.....	154
Zeiñek agindu bear?.....	155
Errepideak.....	156
EA ETA INGURUKO KANTAK	167
AUZOAK ETA BASERRIAK	177
Auzoak eta etxeak.....	178
Natxituko Elexalde.....	181
Aldebaster.....	184
Angelutxu.....	189
Olagorta.....	197
Olabe.....	202
Banakakuak.....	205
Allona.....	206
Elexalde-Bedarona.....	209
Mendiola.....	211
Urtza.....	218
Baserrien argazkiak alfabetan ordenan.....	225
Argazkiak, baserrien alfabetan ordenan.....	226
Armarriak.....	228
Errotak eta Olak.....	231
EA, LABAYRU'RI JARRAITUAZ	235
GEIGARRIAK	247
Nueva lista documentada de los tripulantes de Colón en 1492. ...	248
Cofradía de mareantes. -Condiciones 1843.....	250
"Amerikanuak" 267 orrialdea.	
"Amerikanuak" 327 orrialdea.	
Petición a la Junta Política del Señorío.	



ESKINTZA ANTZERA

Erri txiki bat dot kutun
Bizkai aldean:
Ea.

An senti neban biotza
tuku-tukuka:
maitea.

Bertan niregandu neban
bizi-erastun:
emaztea.


Ea...
maitea...
emaztea...

Ta bete genduan legea,
seme alaben sortzea.

Arrezkero...

Talapean
fedean,
mendi gibelean
bakean,
itxas ertzean
bitsean,
ondar gaiñean
kresalean,
urrun gaitzetan
biotzean...
zu zaitut EA,
berrea
ta neurea,
—gurea—,
nire emaztean
etxea.

Biotz onez artu Ea
nire borondatea.



ERRI EZAUPIDEA

SARRERA

Ezin lei Euskalerriko kondaira osorik idatzi, baserririk barik. Ez eta itxasoari begiratu barik be.

Baserriak lekutu egiten dabe Euskalerria. Itxasoak zabaldu. Mendiak mugatu, itxasoak luzatu.

Ea'ren kondaira idazteko asi nitzanean, lenengotik nekian nire oiña eliz-ate bitan oinkatu bear nebala: Natxitua eta Bedarona'n, edo ta Bedaronan eta Natxituan.

Ea ez zan ezer izango, eurak barik, batez be Natxitua barik. Baiña konturatu nitzan baita be, gure Kantauri itxasoak, Ogoño eta Otoio artean, bere olatuen maitekerien txoko bat daukala, eta danok dakigu itxasoak sartzen dan tokitik urten nai izaten daua-la, geldi egon barik, berak ikututen dauana ibiltera zirikatuz, eta or, bitarte orretan dagon Ea'k, bere soloetan laiak sartzen ekingo ba eutsan be, itxasoaren musu eta laztanei erantzun barik ezin izango ebala iraun, ez eta itxasoaren eskintzak artu barik be geldi egon, ez eta gizonak aztertu ta ikasteko dauan berezko deiari entzungor egin be.

Ori berezko zan eta bidezko.

Alaz ere Ea'n, jokabide bakana igarten da.

Itxas-ondoko errien dantza ezaguna izan da istorian.

Baserri eta itxas bizitza, esate baterako, alkarren aurka ipiñi eta batzuk eta besteak aldebanatzea lortu, edo ta besteak menderatu.

Esateko Elantxobe eta Ibarrangelua, Ondarroa eta Berriatu, eta Lekeitio ta Ispaster eta Mendexa'ko jokabideak ez dira Debatziar eta Ea-Bedarona-Natxitua'gaz bardiñak.

Elantxobe'ko arrantzale gizataldea askatu edo banatu egin zan Ibarrangelua'tik, baiña Ibarrangeluri bere erri-izatea lagata.

Lekeitio, Ispaster eta Mendexa'ren egaletan sortu zan, baiña bai Ispaster eta bai Mendexa'ri euren erri agintaritzarik kendu edo eurretan asko ikutu barik.

Ondarroa be Berriatuko lurretan egoan arrantzale gizataldearen mesedean sortu zan, baiña Berriatua'ri bere erri-nortasuna kendu barik.

Deba'ko arrantzaleak, ordez, Itziar'eri bere nortasuna kentzea lortu eben, eta Itziar'en jaubetasunagaz bera nausitu.

Eta Ea'gaz be orrelako zerbait gertaten da. Aske zan Bedarona bere sarean sartu eban eta Natxituak eukan nortasun eta buru-izateagaz bera geratu.

Orrela gaur, len Natxituaren menpeko zan Ea'k, berak daruaz Natxitua eta Bedarona'ren izena eta ardura agintaritzan eta erri-erakundean.

Ala 1883 urteko uztailla'ren 20'tik ezkeru.

Alegin egingo dogu, liburu onetan, bakoitzari berea emonaz, gaur erri bakar baiña irukoitza esan leikena, maitasunez gogoratu eta biotzez goratzen, alik zeatz eta egitsu jokatuaz, batez be lengo zarrari zor dautsagun dedu, lotsa eta begiramena gordeten aleginduaz.



EA, len, antxinetan,
mendi zulo bat zan,
errekak mendi artean egiten daben utsuneko landa estu ta luze
bat, erribera bat, itxas aurrean.

Egoera onek bertan batu zitun inguruko arrantzaleak, bertan
biziten asi, bertan lekutu...

Baiña euken lurraldearen jaubetasun barik, mendi goietan
egoan eleiz-ate (anteiglesia) baten mendeko, bertako bizi lagun
lez, bertan petxak eta erri premiñak ordaindu bearreko.

Eta portu txiki bat gertu eben, itxas aurreko ondartzaren tar-
te edo egal baten, itxasoari bere mare-gora ta berakotan lotsa
zainduta.

Portu au dala-ta oraintsu agertutako liburu baten onelako au
irakurri leiteke, gure erara euskeratuta:

"Ea'ko portua, kaia, Erreketa ibai txikia itxasoratzen dan
tokian dago, ondartza txiki bat bertan dagola.

Kai txiki bat sorkaldean, txalupa eta motordun ontzi txikiak
mare-berakoetan bertan geratzen dirala. Kaiak, Iparraldean,
babes dike txiki bat dauka eta Egoaldean bere eragiñaren aurka-
ko beste bat.

Sarrera arriskutsua dauka, arri ugari artean. Oneitako bat,
Kai-arria deitzen dana, sarreratik milla erdi betera dagona, Mare
berakoan, itxas barra au urik barik geratzen da.

("Itsasoa", VI 176 orrialdean. "Guía del litoral
vasco". Fernando Leonard.)

Orixe zan eta da EA.

Ea edo le, bertakoen esanetan. Ziurretik erreka ondo eta inguruko iatzetan kokatu zituelako etxe bizitzak emen biziten asi ziranak, eta lekuko izena geratu.

Bere erri-ama, Natxitua izan zan. Au be XV garren menderrate, Ibarrangelu'ren menpeko. Iñoiz, izenetan, Natxitu ordez agertu izan da Antxitu be. Ain zuzen Kristobal Colon'egaz ibili ondoren, indietan galdu zan eatar baten il-ondorengo paperak egitean, Antxitun erabilten da. "Santa María de Anchituan que es en el condado de Vizcaia" esaten da.

Idazkerako akatsa?

Nekez billatuko genduke Natxitua'ren esan naia edo esan nai bardintsua. Onetan euskal toponimia eskutuz betea da, zailla.

Batzuk Gazitua'ren aldakuntza dala diñoie. Bestetan Natxi ori dauken deiturei, Antxi biurtzen dakie.

Edozetara be or dago Natxitua, len Bizkai lurralde jatorrean eskubide osoko udalerrri, eleizate (anteiglesia) saillean.

Eta beste alderdian Natxitua'ren aurrez-aurre ia goietako neurri bardiñean, Bedarona.

Bedarrona ete , batzuk diñoen lez?

Emen be parroki edo eleiz liburu ta izendegiei begiratu ezkerro, ba dago alako "San Pedro de Vedarria..." irakurten dana. Beti be bedarra...

Goi alde alai, baketsu, atsegin eta aizetsua berea.

Onok be euki eban bere barruko miña. Lenengo Ereño'tik urtendako etxe batzuk, Izpazter ingurukoekaz batuta, bere nortasuna lortu eban, eleizate lez udalerrri aske izanaz.

Baiña gero..., esateko gure aittiten denporetan, jaubetasun ori Ea'ren mesedera aldatu eutsen.

Orra ba Ea udalerrri buru, 1883 urte ezkeroztik, Natxitua eta Bedarona beragaz darabiltzala.

NOIZTIK DATOR EA?

Noiztik ete dator Ea'ren portu edo kai izatearen ezaupidea? Manuel Santos Sabras'ek, ITSASOA liburuen saillean, "Puertos de Bizkaia" lanean, au esaten dau:

Bilbo'ren uri ezaupide agiria, irazpen (fundazino) karta, 1300 urtekua da; Portugalete (1323), Lekeitio 1325 eta Ondarroa 1327 kua. Eta Bermeo'ko Kofradiako arauak (1335 urtekuak) arrantzalieu lektuzeen giza-arauak izan ziran. Eurak dira ondoren geiago edo gitxiagoz, gaur arte eldu diranak.

Geroago, beste gizaldietan zear, beste leku-mugatu edo izentau batzuk itxastarren bizi-toki lez ezagutzen asi ziran: Ala Ea, Elantxobe, Bakio, Santurtzi, Zierbana eta Portugalete.

Ea'k ez eban bere uri lez sortzeko kartarik euki, ta jakiña, ezin orrelako agiri (dokumentu) batetik bere izatearen zeaztasunik artu.

Ba dakigu Ea 1492 urterako ba egoala... Ori bai, eta ba dakigu baita eatarrak atun, lebatz, sardina eta besigutan ibiltan zirala be.

Geroago errezago da urte eta denpora eta egunak be zeaztutea. Ala beintzat, XVII garren gizaldian, frantzetarren bildurrez bizi giñanean, orduan Ea garbi agertzen da portu lez, eta orrela, zaindu bearreko portu lez agertzen danetan, bertako zaindaritzat zortzi lagun aukeratten zituen Bedarona, Ereño, Kortezubi eta Natxitu'ko gizonen artetik.

Baiña gorago esandako urteak baiña askoz atzerago joan ginei Ea'ren billa.

Bermeo'ko Kofradiak 1353 urtean egindako arau zarretan, Ea'ko arrain kala aitatzen da. Arau orreitako 52 atalean esaten danez, iñor Gaminitz, Ea edo Lekeitio'ko kaletara arrantzara joan eta arrain salmenta baiña len eldu ezik, eskubidea eukala bereztzako salmenta berezia egitea.

Geiago: Ea'ko arrantzaliak, Kofradi lez, konponketa bat egi-tan ezagutzen dira lekeitiarrekaz, alkarregaz arrain kala bardiñetan gertatzetan, orrelakoetan sortzen ziran nasteak konpondu eta arautu nairik.

Itun orretan esaten da orrelakoetan bateko ta besteko txalupetako tertzak zabaldu ondoren, naastu ezkeru, azkenengo tertzak zabaldu ebanak, besteari itxi bear eutsala.

Baiña erabillezan tresnak ez-bardiñak ba ziran, eta orrelako alkartze edo nastea sortzen ba zan batek tretzak zabaldu eta besteak une baten jaurtitako aparixua bitarteko zala, dana tretza jaubeari itxi bear zala, onek nastea askatu eta aparixuan arrantzatuta egon eikean arraiña, onen jaubeari emonaz.

(Ugartetxea y Salinas. "La pesca tradicional de Lekeitio".
Anuario de Eusko Folklore, XXVI, 54 orrialdean)

LEKUTZEA

Geografi aldetik, EA era onetan lekutzen da:

Bizkai'ko Ipar Sorkaldean.

48° 01' eta 48° 05' Ipar zabalerako eskualdean.

eta 5° 30' eta 4° 37' Sorkalde-luzerako eskualdean.

MUGAK

Ea udalerrriaren mugak oneik dira:

Iparraldean: Kantauri itxasoa.

Ego aldean: Ereño eta Ispazter.

Sorkaldean: Kantuari itxasoa eta Ispazter.

Sarkaldean: Ibarrangelua eta Ereño.

LURRALDEAREN NEURRIAK

Ea udalerrriaren lurraldeak 14,02 kilometro laututan (kuadraturan) zabaltzen dira.

LURRALDEAREN BANAKETA

Ea'k daukazan 14,02 kilometro lautuak, au da, 1.402 Hektareak, onela banatu gineikez:

Geiena baso eta baserri ekintzatarako erabiltena dana, au da, 1.297 hektarea. 1.297 hektarea orreitatik 803 hektarea larre, zuaitz eta abarretan dagoz, eta beste 454 zelai, belardi eta anzerako. Eta beste 40 hektarea landutako lurretan.

Baserri gaietako 1.297 tik 1.402' osotara geratzen diranak, au da, 105 hektarea, lur-geldi, erreka eta urigintzan sartuta dagozanak dira.

Datu oneik 1982 urteko zentzutik atarata dagoz.

EGURALDI GIROA

Ea'ko giroa, Koppen'en sailketa orokorrean, Cfb izki edo letretan laburtuta esaten dan giroa da.

Cfb laburpenak, giro otzapel, bustia, agorraldi bakua adierazten dau.

IBAI eta ERREKAK

Ea'n itxasoratzen dan ibaia, EA izenez ezagutzen da. Berak artzen dauz Argin, Erreketa eta Goikoetxe eta txikiago dan Zarakondegi erreketako urak.

Beste batzuk, Arratiaga'ren antzera, zuzen duaz itxasora.

ITXASERTZA

Ispazter'edo Ogella'tik Arboliz'azpira duan itxasertzak, au da, Ea'ko uretan eta lurretan duan itxasertzean, ainbat mutur, zulo, arri eta abar, toki ezaugarri egiten dira.

Bitarte orretan ba dagoz berrogeiren bat toki euren izen jatorrak daukezanak.

Guk alfabetaren ordenan ipinten doguz, baiña eatar itxastarrak ondo dakie izen oneik nun dauken euren lekua.

Abade-aitz	Iruaitz
Apikale	Itaitak
Arpiku	Kai-arria.
Arri baltz	Lapatza
Arri-bolak	Lulaarri
Arri zorrotz	Lupiñarri
Ateko arri	Merruko lapatza
Atxandi	Mollatxu
Bedargoza	Morotxo
Bix erreka	Muskitza
Botero	Ogella
Buruandi	Olandako molla
Ea-aurre	Pepanton
Erdiko plaia	Potsueder
Ermintxo punta	Salbarri
Filarmonika	Sumarino
la'ko punta	Surtzillogente
Ibidepe	Talape
Intxausti	Tolla-arri.

ITXASERTZA ZEAZTUTEN

Alfabeta ordenan sartu dogun izendegia, bakoitza bere tokian ipiñita zeatzago izango dalakuan, Izpazter'eko Ogella itxi eta osteratxu bat egingo dogu, kosterrez, bata bestearen ondoren datozen mutur, aitz, arri-andi, zulo eta abarren izenak gogoratzen. Eta tarteren baten, txirrist edo laprast egiten ba dogu, parkatu dagizkuela eatarrak, eurak be ba dakie olakoetan erraz laban egiten dala-ta.

Asi gaitezen bidean; Ogella'tik.

Pelaio

Aitz baltza

Artzagal

Apikal

Bedargozo

Kai-arri

Molletxu

Arrizabal

Zurtzulo

Arri-baltz

Bix-erreka

Talape

Intxausti nasa

Uzkitzar

Eta orain Ea barrurantz sartzen:

Atxandi

Olandako molla

Molla zarra

Beletxe

(Beste alderdira igaroaz

Portukoetxe

Morotxu aitz

Matxin'en aitz

Mendiola senua

Salbarri

Lula-arri

Ateko arri

Torretxu

(Barriri kosterrez)

Buruandi

Lupin-arri

Potoren isla

Pepanton

Erdiko plaia

Arri-zorrotz

Abade atxa

Tella-arri

Filarmonikie

Azkortape

Salbarri

Artiku

Potsueder

Arri-bolak

Merruko atxak

Oriñala

Ermintxo


Itaita

Abadien atxa

Lapatza

Izeneartean batzuk garbi adierazten dabe zer diran, nun dagozan eta zelakuak diran.

Badagoz bi abade izena daruenak. Eta guk dakigunez, bata-ri abade-atxa deitzen dautse Ea'ko abade batek maite ebalako aitz ori bere egoeretan, eta beste abadien atxa, Natxitu azpian dagona, ba dirudi abade batek bertan euki eban zoritxarretik datorkion izena dala. Itxuraz abade bat itto egin zan bertan.



IBAIA

Zein da Ea'ko ondartzan itxasoratzen dan erreken izen jatorra?

Onetan ez bardin datoz liburuak.

Batzuk Argin ipinten dabe, beste batzuk Erreketa.

Ez al da zeatz eta argiago Ea deitzea?

Zegaitik?

Argin Ispazter'en jaioten da.

Ba dirudi Ea'ko lurrei agur egiten datorrela, ia ikutu barik. Ain zuzen be Erreketa errekeagaz topo egiten dau eta oneri bere urak emon. Bardin egiten dau Zarakondegi'gaz be.

Beste aldetik Zarakondegi'k, Argin'en urekaz batera, Mendiola eta Olabe erreketako urak be batzen dauz.

Eta ur gúztiak artuta dator itxas-erriruntz. Baiña errian sartzean, or dator Natxitu aldetik Goikoetxe erreka, eta au be Ea'n sartzen da. Eta une onetan, len ur gozo erreka edo ibaia zana, kresal ibai biurtzen da.

Urigintzako egitura barrirako ikusi dogun txosten baten, Ea ibaiak daukan sakana 1.629,85 hektareena da.

Jakiña, osotasun orretan errekek ez dauke alde bardiña. Origaitik bakoitzari berea emonaz esan geinkena au da:

Erreketa errekarri dagokiona.....	614	H. dira.
Argin errekarri dagokiona.....	277,40	H.
Zarakondegi errekarri.....	138	H.
Goikoetxe'ri dagokiona.....	421,90	
Eta azkenez, Ea berberari.....	123,95	H.

UDAL BATZARRA ETA BIZILAGUNAK

UDAL BATZARRA

Ea udalerrirako, legearen arabera, zazpi ziñegotzi (kontzejal) aukeratzen dira eta eurentariko bat alkate izaten da.

Aginte aldi onetan, oneik dira erriko agintariak:

Alkate: Jose Gorroño Lejarzaburu.

Ziñegotzi: Mari Sol Uriarte Agirre,

Alberto Galarza Erkiaga,

Jose Antonio Korta Armendariz,

Karmele Larrinaga Tellería,

Jesus Mari Bermeosolo Olabarriaga

Jose Antonio Aranburu Agirre.

Udalerriko idazkari: Teresa Uribe Zallo.

Bizilagunak

Sinistu ete leike Ea'k, orain 475 urte, au da, 1514 garren urtean, gaur baiño eun bizilagun bakarrik gitxiago eukazala?

Bedarona eta Natxitua'k, bien artean 729 lagun eukezala agertzen da aldi aretan. Bear ba da Bedarona'n Ereño'ko zati batzuk sartuta egon eikezan.

Urteak aurrera ta Ea'k bizilagunik geien euki zitun urtea, 1861 garrena izan zan. 1665 lagun euki zitun urte aretan.

Eta gero, azken eun urtetan, erdira etorri da.

Ikus, urterik urte, bere berakada:

1900 urtean, 1.443 bizilagun.

1910 urtean, 1.394 bizilagun.

1920 urtean, 1.320 bizilagun.

1940 urtean, 1.186 bizilagun.

1960 urtean, 1.058 bizilagun.

1980 urtean, 845 bizilagun.

1989 urtean, 840 bizilagun.

EA'KO BIZI-LAGUNAK

Azken urtean, obeto esanda, azken erroltzean, Ea'k 840 bizi-lagun eukazan.

Euretatik 413 gizonetzkoak
 427 emakumetzkoak.

1986 urtean egin zan erroltzean, zentzoak, 827 bizi lagun eukezan. Ainbat ondoren atara leikez biztanleri edo bizi-lagunen jendetza onetatik:

827 lagunetik 404 gizonetzkoak ziran
 423 emakumeak.

Euretatik 392 ezkondu bakuak.
 358 ezkonduak.
 77 alargun eta enparauak.

Ezkondubako 392 lagunetik
 217 gizonetzkoak ziran,
 175 emakumetzkoak.

Eskondutako 358 lagunetik,
 175 gizonetzkoak,
 183 emakumeak,.

Enparauetatik 77 lagunetik,
 12 gizonak ziran,
 65 emakumeak.

Jaioterriari begiratu ezkeru, onela banatuten ziran 827 lagunak:

6 Arabarrak,
6 Gipuzkoarrak,
780 Bizkaitarrak,
19 Beste errialdetakuak,
16 atzerritarrak.

Urteei begiratu ezkeru, ogeiñaka zenbatuta, era onetan bereiztuten ziran:

			Gizonak	Emakumeak	Guztira
1896'tik	1905	bitartekoak	9	26	35
1906'tik	1925	bitartekoak	82	105	187
1926'tik	1945	bitartekoak	96	107	203
1946'tik	1965	bitartekoak	122	105	227
1966'tik	1986	bitartekoak	95	80	175
			404	423	827

Beste era baten kontuak egin ezker, laster igarriko da gaurko bizilagunen artean 222 lagun irurogei urtetik gorakuak dirala, 203 lagun, 40-60 urte bitartekoak. 227 lagun, 20-40 urte bitartekoak. 175 lagun, 20 urte baiño gitxiago daukenak.

Orrela, ia euneko 27 dira Ea'n irugarren adifean sartutako bizilagunak.

Azken eun urtetan jaiotzarik geien egondako urteak, oneik izan ziran:

1957 urtean 21 jaiotza egon ziran, au da, gaur 32 urte daukezanak.

1963 urtean 17 lagun, au da, gaur 20 urte daukezanak.

1934, 1961 eta 1966 urtetan, bakoitzean amasei jaiotza, au da, gaur 23,28 eta 55 urte daukezanak.



UDALERRIKO URTEROKO DIRU-GORABERAK AURREKONTUAK (PRESUPUESTOAK)

Azken sei urtetako aurrekontuak izan dira Ea'ko istorian dirutzarik geien erabili dabenak.

Ara, urtez urte, euren kopuru edo osotasuna:

1984 urtean,	61.868.702 peseta.
1985 urtean,	77.084.175 peseta.
1986 urtean,	67.010.241 peseta.
1987 urtean,	94.094.248 peseta.
1988 urtean,	75.394.000 peseta.
1989 urtean,	79.701.956 peseta.

Onelako aurrekontu bat zeaztutera joan ezkeru, aurtengoa, 1989 urteko dana, esate baterako onela zeaztuten da:

Urteerak (Gastuak)

1.—Langillegoaren gastuak	12.100.000
2.—Ondasun oien erosketa eta serbitsuak	20.320.225
3.—Mozkiñak (interesak)	2.019.775
4.—Aldaketa oiak	100.000
6.—Ezarketak (inbersiñoiak)	39.700.000
9.—Zorbidezko dirubideen aldaketak	5.461.956
GUZTIRA	79.701.956

Sarrerak

1.—Zuzen zuzeneko edo artezko zergak	2.273.280
2.—Zearkako zergak (inpostuak)	1.000.000
3.—Lakatzeak (tasak) eta beste sarrerak	10.911.000
4.—Aldaketa (Transferentzi) oiak	40.667.242
5.—Ogasun eta ondare sarrerak	2.300.000
7.—Erri-domuaren (kapitalaren) aldaketak	7.000.000
9.—Zorpidezko dirubide aldaketak	15.550.434
GUZTIRA	79.701.956

Aurrekontu au 1989'ko Bagilla'ren bosteko Udal Batzarrean, onartua geratu zan.

ETXEAK

Etxadi pilloturik ez dago Bedarona'ko eleizaldean.

Natxituako eleizaldean ezin esan ainbesterik, eta gitxiago Ea'n.

Bedarona'n ez dago alkarren gaiñeko etxarterik.

Natxitu'n, goi inguruan, esku zabaltasun geiago egon izan da etxegintzako baimenetan.

Ea'ko kalean, kale estuegiak dagoz, etxarte batzuk moltsoka. Baiña ez da oraingo akatsa.

Kontuan euki bear da Ea'ko etxerik geienak gure gizaldia baiño aurretiagoko dirala. Ala beintzat euneko larogeiren bat.

Gaur etxeak ainbeste egonezarren, etxe bizitzak seireundik gora dagoz. Kontuan euki bizitza bakarreko etxeak 140 inguru dirala, eta besteak bi, iru edo geiagokoak.

Etxetatatik euneko larogei jaubedunak dira. Besteak alokatuak, alkilerrekuak.

Etxerik geienak erriko ura dauke. Banakak euren. Urik bakorik, esateko ez dago.

1900 urtetik 1950 arte, bitarte makala, utsa, izan zan etxegintzarako. E-txe barri banakak egin ziran.

Gerotik dator etxegintza ugaritzen.

Ea udalerriko etxeen artean ba dagoz etxe ederrak. Zaintzea eta eurekaz ardura eta begiramena eukitea eskatzen dabenak. Emengo ardura dauken arkitektoen ustez, zaindu bearreko etxeak oneik dira:

Natxituko eleiza.	Olabe
Natxitupe.	Beletxe
Astegi	Kiroldegia
Otegi	Erriko taberna zarra.
Oiarbe	Jesus'eko eleiza.
Dendarikua	San Juan eleiza
Bedarona'ko eleiza eta eskoletxea.	Udaletxea
Guenengua,	Matias Kortazar etxea
Apikale	Kalebarria'ko 7 zenbakiduna
Talaiko ermita	Etxe-aundi
	Zubia.

BIZI BIDEA

Ea'ko bizibidea, baserriko bizi-bidea da geienbat.

Ez dago gintzarik, industririk.

Papergintza egon zan, baiña urteak dira porrot egin ebala.

Itxasotik bizi diran familiak ba dagoz. Itxas gidari edo itxas-ontzi andietako langilleak.

Baiña bertako portutik ez da iñor bizi.

Udaleko errolltzean, tresneri zerrendan, motordun tresna ugari dagoz urteko zerga ordaintzen dabenak. Emen sartzen dira kotxe, tratore eta beste tresnarik geienak naserritarrenak dirala, eatar kaletarrak, daukezan kotxe asko, euren kanpoko bizilekue-tako errietan errolltzen dabezalako.

Tratore, motokultore eta antzekoetan, eundik gora batuko dira gaur emengo baserrietan.

Ortik kanpora, lau taxi dagoz, beste 290 kotxetan.

Udalerrian merkataritza txikia igartzen da.

Orrela, jan-edan kontu asko, inguruko errietako denda andietatik ekarten dira.

Bertako dendetan, janarien merkataritza saillean, ogeiren bat dagoz, euretatik arategi bi, arraindegi bi, frutu ta ortuari saltzailletan lau eta amabi janari denda.

Estanku bi, eun (tela) denda bi, elektra gai saltzaille bi.

Ostatu edo jan-edan konturako ortz biko lau jatetxe dagoz, eta ortz banakako beste iru. Taberna eta barrak, atzamarrak bai-ño geiago.

Txukuntasun eta garbiketarako ba dagoz baita lau ule apaindegi, beste esteticien bi, jantzi garbitzaille bi, koltxo-egille bi, emakume jantzien jostun bi...

Osasunari buruz, ba dago osagille bat, bai eta botika be.

Eskola kontuan maistra bi dagoz, txikientzako.

Emengo ikasleak, geienak, Gernika'ra joan bear izaten dira, beste batzuk Lekeitiora.

Eleiz-kontuan, lau parroki egonarren, abade bi dira euretako serbitsuak egiten dabezanak.

Eta nok jaso ez daukenentzat, ba dago Lagun-Etxe izena-gaz egoitz eder bat be, Aboitz baten ondasunekin zabaldua.

Orra, gain-gaiñeko ikuspegi bat.

Langilleria

Ez gabiltz ain eguneko arlo onetan. Estadistikak berandu agertzen dira eta ez dabe egun-egungo adierazpenik emoten.

Langilleriari buruzko estadistika oneik, 1986 urtearen azkenetan agertuak dira.

Ea'ko langilleria, guztira, 296 legunetan sartzen zan.

Urte edo aldi aretan, lan bakoak: 57.

Langillien sektore ekonomikoaren arabera banaketa

1986 urtean lanean ebiltzanetatik, lan-sektoreka onela egiten zan banaketa:

Lenengo sektorean	52
Industrian	35
Etxegintzan	12
Zerbitsuetan	140

Guztira 239

Etxe bizitzak

Ea'ko udalerrian, etxe-bizitzen artean,

danetara 1966 urtean egozanak, 651 etxe-bizitza dira.

Euretatik bizilagunekin beteak 252

Utsik edo udaldian erabiliak 399

Baserri giroan erabilten diran lurak

Ea'k daukazan 1402 hektareatik, 1297 hektarea erabilten dira baserri giroan.

Onela banatuten dira:

Landutako lurak	40 hektarea.
Belardi eta larreak	454 hektarea.
Zuaizti, (arbolategi)	711 hektarea.
Bestelako zeregiñetan	92 hektarea.

EUSKERA EA'N

Ea'n erabilten dan euskera, bizkaiko euskera da.

L.L. Bonapartek, Natxitu aldebanatu egiten eban euskera kontuan Ea'tik. Aren esanetan, Ea'ko Euskera, Markinaldeko euskera da, sorkaldeko izkelgi-peko, (subdialecto oriental) eta ordez Natxituan egiten dan euskera Bermeo'ko bereiztasunekoa da.

Añibarro'k, sermolarien jakingarriztat, zeintzuk erri ziran euskaldun-uts argitaratu ebanean, zerrenda orretan sartzen eban Ea be.

1970 urteari buruz, Auñamendi-Diccionario Enciclopédico'n esaten da, Ea'n euskeraz egiten ebenak 609 zirala, au da, 31 lagun ezik erri guztia. Eta Natxitu'n bat bakarra zala euskaldun ez zana.

Geroago, 1981 urtean, Pedro Irizar Arkitektu eta euskaltzale jakintsuak, "Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca" izeneko liburu bi agertu zitun.

Eta Ea'ri buruz an au esaten da:

Ea. Lau parroki daukaz. Bi erri buruan. Emen sei baserri bakarrik dagoz. 31 lagun dagoz bertan euskerarik egiten ez dabenak. Beste parroki biak baserri-parrokiak dira. Bedaronan danak berba egiten dabe euskeraz. Natxituan, batek ezik, beste guztiak. Euskeraz egiten ez dabenak erbestetik etorriak dira, edo ta Ea'ko mutillekin ezkondu ziran neska gazte batzuk. Batek ezik, beste guztiak euren umeak euskal ikastaroetara bialtzen dabez. Erdera asko entzuten dan erria da, udaldirako ondartzta daukalako eta udaldian bi milla lagun inguru etorten diralako, euretatik % 95 bilbotarrak.

Errian eta Bedarona'n, Markina'ko bereiztasunez egiten da; Natxitua'n Bermeo'n lez. (Lenengo tomoan, 177 orrialdean).

Bigarren tomoan batak eta besteak berari idatziak agertzen dira. Eta an bat au da:

Zezipio Agirre jauna. (Natxitua eta Ea). Ez zan Ea'n jaio, baiña 35 urtetan bertan dago, diño. Eta Natxitu'ko euskerak Ea'koa-gaz euki leiken alderantziari buruz, don Zezipio'k onelako au idatzi eutsan: "Ez naiz konturatu beste era bateko euskera egiten dutela Natxitu eta Ea'n. Norekin egon ote zan gure printze ori? Agian bertakoa ez zan gizonen batekin".

Liburu au idazten nabillen onek be idatzi neutsan nire ustez orrelako alderantzirik ez egoala esaten, eta emengo andre batek zer esan eustan jakin eragin be bai: Elantxobe'k bai, itxastar lez Bermeo'ko era erabilten ebala, baiña Natxitu eta Ea ez bananduteko onetan.

Beste euskaltzale ospatsu bat aitatuten dau Irizar'ek: Gabriel Aresti.

Aresti, Ea'ko udazale izan zan. Eta Irizar'ek esaten dau Aresti il zan egunean, 1975'ko Ekainilla'ren 5'an, benetako barruko miña artu ebala. Ia urte bete lenago idatzi eutsan karta bar agertzen dau: "Geisorik nago eta ohean hamasei ordutan egon behar dut. Gainera beste zeregin batzuk daramazkit esku artean, baiña ala ere Bilbora Irailean bihurtu baino lehen, ea guztia bukaturik igortzen dizudan".

Aresti'k esan ei eutsan Ea sortu zala iru bat gizaldi zirala; ezker alde Ereño eta Natxitutarrak artu ebela eta beste alderdia Bedaronatarrak. Errekako alde biak bizi modu ez bardiña eroan ebela eta alkarregaz zer ikusi barik. Bakoitzak bere eleiza eta parrokia eta euren artean gorroto asko egon zala. Ezdakit, esaten ei eutsan, baiña izan lei izkuntzan ondorenak geratzea. Eta kartan esaten ei eutsan: "Flexioen berbalak gogorregi lotzen zaizkie berbo printzipalei, konparazio baterako **ikuskotzut, jakin biot** eta abar. Baina konponduko naiz".

Geroago bialdu ei eutsan **zuka** ko aditzaren erabilkera, ainbat oar eta fonetikako ezaugarri bereziz. Miren Tere Txakartegi Landa euki ei eban adierazle.

(Irizar. II Tomoa -195 -196 orrialdetan).

EA'KO KALEAK ETA ETXEAK 1704 URTEAN

Esan bearrik ez kontuan euki bear dala 1704 urtean EA oraindik Natxituko udalerrian sartzen zala, Ea berak ez eukala Udalerri duintasunik.

Oraindik Natxitu udaleko Ea izenez ezagutzen zan arrantza-le bizilekua zan.

Ba dakigu urte orretan Ea'k bost kale ba eukazala Natxituaren menpeko lurraldean.

Kaleen izenak:

Astillero kalea.

Garro kalea.

Nagusia kalea. (Erderazko paperetan Principal esaten da).

Portu kalea.

Zaldubey kalea.

Kalean egozan etxe guztiak ez eben ordaintzen erriko gauzak ordaintzeko banaketan.

Batzuk utsik egozan. Besteak jausita. Beste batzuk, zelako etxea alako ordainketa euken. Ala sutegi edo fogera oso, erdika, irutik bat eta abar.

Astillero kalea

Iru etxe sartzen ziran erroltzetan.

Franzisko Allona'rena fogera 1/2.

Juan Unzueta'rena fogera osoa.

Francisco Allona fogera osoa.

Garro kalea

Arteakoa etxea. Jaubea: Juan Garro.

Dendarikua etxea, Juan Urazandi'rena.

Urikua etxea, Margarita Elantxoberena. Iñor ez da bizi.

Garro etxea, F. Garro'ren oñordekoena.

Juan Galdiz'ena, Juan Beitia bizi da bertan.

Garro deiturakoa, Martin Garro bizi da bertan.

Juan Bta. Albiz'ena, Ezin lei iñor bizi.

Biax etxe ta ingurua, Mari Otxoa Biax'ena.

Biax, Garai'ko Santi'rena.

Urtubiaga baserri etxea, Juan Urtubiaga'rena.

Nagusia, kalea. (Principal)
Franzisko Kantala'ren etxea.
Juan Galdiz'ena.
Joseph Ondarroa'rena.
Ursula Eskoikiz'ena.
Pedro Alagarrate'rena.

Portu kalea.

Goikoa, etxea, Maria Galdiz'ena.
Zularan etxea, Pedro Aranluzea'rena.
Katalina Oleaga'rena.
Franzisko Beitia'rena.
Madalena Garro'rena.
Santiago Galdiz'ena.
Andres Ortiz Portukoarena.
Barandika, Maria Ramos'ena.
Juan Arraskara'rena.
Pedro Sasturri'rena.
Maria Longa'rena.
Juan Bta. Arraskara'rena.
Fradua, san Juan'ena.
Ondarza etxea, Franzisko Kortazar'ena.
Unzueta etxea, Santi Unzueta'rena.
Labakoa, M.^a Labakoa'ren oñordekoena.

Zaldubei kalea.

Ana Portocarrero'ren oñordekoena. F. Ibiñaga bizi dana.
Zaldubei deiturakoa, Agirre lizenziatuarena.
Zaldubei deiturakoa, Urtubiaga'rena.
Zaldubei deiturakoa, Mariana Portukoarena izana.
Franziska Kantala'rena esaten dana.

Jausita egozalako ezer ordaintzen ez ebenak

Errotalde izeneko etxea.

Domeka Etxebarria'rena. Sagasti txiki bat dauka.

Domeka Ondarro'rena. Sagasti txiki bat dauka.

Madalena Gaorueta'rena.

Eguskitzea, deiturakoa, Julio Sagarbarri'rena.

Onen aurrean dagona, M. Urazandi'rena izana.

Toki berbertan dagon Mari Cruz Mendazona'rena izana.

Nikolas Ondarroarena. Erabilten ez dan solo bat dauka.

Maria Kanala'rena izan zana.

Andres Galdiz'ena izan zana.

Franzisko Garro'rena izan zana.

Santos Lejardi'rena izan zana.

Kokorro etxea, Arrizaolaeta'rena izana.

Jordana Berezia'rena.

E. Iraeta'rena izana.

Ruiz de Albiz'ena

Jose Portu'ren bi. Bat ortu biurtua da.

Juan Ubidearena. Maasti txiki bat dauka eta iturri bat.

Maria Mendoza'rena izan zana.

Mendila'rena izana. Sagasti bat eta maasti txiki bat daukaz.

F. Eskoikiz'ena izana. Lantzen ez dan solo txiki bat dauka.

Santi Agirre-Unzueta'rena izana.

Bere alboko bat, Jose Puerto'rena izana. Lantzen ez dan solo txiki bat dauka.

Zuluaran kalean dagon A. Galdiz'ena.

Andres Portu'ren izandako beste bat.

Juan Urtiagarena, zatiak, **Astilleru** kalean.

Rafaela Gondra'rena izana, erabilten ez dan sagasti bat dauka.

Onen ondoan, Arrisoloeta'rena izana.

Juan Sagarbarria'rena izana.

Garro'ren etxe gaiñaldean dagon beste bat, eta iñok ez daki zeifena izan zan.

Garro, Galdiz eta Urazandi'ren etxeak izanak, danak ortu biurtuak.

Juan Urizar'ena izana; sagasti bat dauka.

Mari Aldana'rena izana, ortu biurtua.

Errementari kalean, Teresa Zubia'ren etxea izana. Etxea zanaren lurrean intxaur batzuk sartuta dagoz.

Duelarikoarena deiturakoa, orain ortu biurtua.

Ikusten danez, len aitatu doguzan kaleen gain, ba egozan **Errementari** kalea, eta **Zuluaran** kaleak be, goragoko etxe zerrendan irakurten danez.

Bestalde, BEDARONA'k denpora berean, 1704 urtean, EA'n eukazan fogerak oneik ziran:

Zubia izeneko etxea, Lariztarrena.

Azkoeta, izeneko etxea, Albiztarrena.

Mateo Ibañez Lariz'ena.

Ferria deiturakoa,

Garro zanaren ondorengoa.

Albiz familiaren beste bat.

Etxeandietza, deiturakoa.

Goikoetxea, deiturakoa.

Zubialdea, Juan Erkiaga'rena.

Eta jausitako etheen artean, ezer ordaintzen ez ebenen artean,

Urtubiaga, Jose Puerto'rena.

Portuko Madalenarena.

Urazandi, deiturakoa.

Itxaurrondo deiturakoa, oraintsu saldua.

Maria Kantale'rena izandakua, orain ortu biurtua.

Ea'ko kaleak gaur

Gaur, Nagusia kenduta, ez dago orain irureun urteko kaletako izenik. Gaurko kale eta enparantzak izen oneik daroetz:

Aboitiz eta Kortazar enparantza.

Aritza.

Donibane kalea.

Atxikar.

Goiko bidea.

Barria.

Intzueta kalea.

Belen.

Kurtzia.

Bidebarri.

Jesus.

Denda.

Nagusia.

Donibane enparantza.

Portu Solo.

POLITIKA PENTSABIDEA XX GARREN GIZALDIAN

Ea'n, udal edo erri maillako auteskundeak egiten ziraretik, beti konserbadoreak edo erregezaleak (monarkikoak) irabazten eben, euskal abertzaletasunaren pentsabidea sartzen asi arte.

Orrela, ondorengo zenbakietan ikusiko da bere joera.

1901'ko auteskundetari

Gandarias konserbadorea irabazle. 182 autarki (boto).

1903 urtean

Gandarias berbera irabazle. 133 boto.

1905 urtean

Gandarias barriri, Oraingotan 115 boto.

1907 urtean

Urte onetan katoliko izenez agertu zan

Urkijo. Eta ara ondorenak:

Urkijo'k 114boto.

Gandarias'ek 91 boto.

1910 urtean:

Urkijo'k 100.

Gandarias'ek 91.

Abertzaleak agertu ziran lenengo urtean, boto batik ez eben lortu.

1916 urtean gertatu zan ori:

Allendesalazar (konserbadoreak) 87 boto.

Alzaga, abertzaleak, 0 boto.

1918 urtean

Ortueta. E.A.J. - P.N.V. 145.

Goioaga (erregezalea) 66.

1919 urtean

Arana. E.A.J. - P.N.V. 161.

Berge (erregezalea) 57.

1920 urtean

Horn. E.A.J. - P.N.V. 111.

Nardiz (erregezalea) 110.

1931 urteko udal auteskundetari, abertzaleak geratu ziran irabazle, besterik agertu ez zalako.

1933 urtean

Agirre. E.A.J.	579.
De la Torre. E.A.J.	578.
Besteak, geienak,	35.

1936 urtean

Agirre E.A.J.	507.
Jauregi E.A.J.	504.
Gaytan (iraultza aurkako)	136.
M. Rivas (iraultza aurkako)	134.

1977 urtean

E.A.J.	379.
U.C.D.	13.
A.P.	13.
E. Ezkerra	9.

Besteak gitxiago

1979 urtean

E.A.J.	329.
H.B.	75.
E. Ezkerra	10.
RS.O.B	2

1980 urtean

E.A.J.	436.
H.B.	80.
E.E.	19.

1982 urtean

E.A.J.	411.
H.B.	82.
E.E.	17.
P.S.O.E.	12.

1983 urtean

E.A.J.	393.
H.B.	124


Beste auteskunde batzuk

1971 urtean (Estatutoaren auteskundea).


Bai	532.
Ez	5.

1986 urtean (O.T.A.N. gorabera).

Bai	114.	1987 urtean	P.N.V-E.A.J.	280.
Ez	241.	H.B.	241.	
Utsik	3.	E.A.	90.	




TORRE BARRI



"ESTA CASA HYZO LA ANTEIGLESIA DE BEDARONA. AÑO 1790".



UDALETXEA



**ARRANTZALE
ZARREN
KALEAK**






ETXE-ANDI







**MATIAS KORTAZAR
ETXEA.
ARITZA KALEAN**





**GALDIZ'ENKO
TXALETA**






JESUSKO ZUBIA






**EGUZKI-JAIA
ETXEA**



**ZENBAT
KONTU ZAR
TOKI ONETAN?**




**URTUBIAGA
ETXEA**



**"IE
ESTU
TA
LUZIE"**





ITXAS BIZITZA

ITXAS BIZITZA EA'N

Ea, asieratik, itxastarra izan zan.

Natxitua'ri egokion itxas auzoa, edo ta beste era baten, Natxitua'ko erriaren edo udalaren menpeko itxastarren bizi lekua.

Ea'ko itxas bizitza, ezpai barik, geientasunik andiengan, arrantza bizitza izan zan. Zerbait, pitin bat, merkataritzari itxita. Gure lurraldetan bideen egokitasunik ez egoalako, luzaroan itxas-bidez egiten zalako bear-bearrezko merkataritza.

Gaitz da onelako erri txiki baten, tokiaren estutasunez eta bizi-lagunen urritasunez nortasun andirik eukiko ez eban inguru baten, zeaztasun bizi eta eraginkorrek aurkitzea. Alaz eta argi igixkat tarterik txikienetik igarten da.

Colon'ek Ameriketara egin zitun osterak argibide bat emoten dabe Ea'ren itxas bizitzan.

Jakiña da osteraren orreitarako karabeletan, euskaldunak be ibili zirala. Arek egindako lenengo osteran, ziuerra da Palos'en batu eta aukeratutako jendeagaz bete zitula itxas-ontzietako bi.

Ordez, Juan de la Cosa'ren agintepean joan zan itxasontzian ainbat euskaldun joan ziran.

Or agertzen dira Lekeitio'ko "Txantxu", askoren ustez "Santa Maria"ko kontramaixu izan zan Juan edo "Juantxu".

Or agertzen da Domingo bat, a ziuur lekeitiarra.

Or baita Domingo Antxia, ipaztertarra be, upel (barrika) egi-lllea.

Or "Kintero" eta Peña bizkaitarrak.

Bertan Jose Azoke, debatarra.

Bai eta Martin Urtubia, grumetea, aldi aretako paperetan Natxitua'ko bizi-lagun lez agetzen zana, Urtubia nun dagon jakin ezkeru, natxituarrak erriz, baiña eatarra bizi lekuz.

Au "Navidad" deiturako leku gogortu edo indartuan il zan. Erderaz deitzen dan lako fuerte baten.

Guztion izenak diplomatiku izan zan ondarrutar baten ardura eta lanetan irakurten dira, euren eriotz ondoren Likona'tar Martin ondarrutarrak eurei jagokoen diru-laguntza gurasoen mesedetan lortzeko egindako eskabide eta lanetan.

Dirudienez "Navidad" fuertea itxasontzi baten zoritxarraren ondoren lez asmatu zan.

Haiti ugartean (islan) "Santa Maria" izeneko ontziak euki eban ondamendiaren ondorena izan zan. Ori gertatu ondoren, bertako batzuk ango lurretan toki indartsu bat asmatu, gertu eta jaso eban, eta bertan geratzea erabagi, beste osterata baten lagun barriak eta tresna barriak eldu arte.

Itxura baten, lenengotan ango inditarrak, bertako biztanleak, ez zituen txarto ikusi. Baiña euren artean ez ziran ondo konpondu emengoak. Asarre, naste, eztabaida, itsukeri eta norberekeriz alkar-arteak batasuna galdu eban. Orrez gain ango jatorrei egin eta agintzen eutsezan eskabide ta laguntasunak larregi izatera eldu ziran, angoak gogaitu, kezkatu eta aurka jartzeko eran.

Orrela angoekaz nasteak euki zituen, euren artean makaldu eta urritzen joiazala. Eta igarri barik indar barik, aldezen barik, angoen mende geratu ziran.

Gero inditarrak euren gain jarki ta mendetu zituen.

Orrela il ziran batzuk, erri onetako Urtubia au lez.

Sevilla'ko Archivo General de las Indias'en ba dagoz ortazko agiriak.

Teófilo Guiard'en "La Industria Naval Vizcaina" liburuan, XV garren mendeko gizon ezagunen artean, edo aitatzen diran izenen artean, Juan Ruiz de Ea bat agertzen da.

Liburu berbertain agertzen da Elantxobe'ren antzera Ea be ez zala arrantzan asko agertzen, baiña Ea'ko lekunean, itxasontzi txikiak egiteko lantegiak egozala XVI garren mendean, portuan asi eta erribera guztian zear, Zubialdea deitzen zan toki arteraño, eta bertako itxastar jendea naastu egiten zala Bedarona eta Natxitua'ko bizi lagunekaz.

Geiago: Liburu berbertain, 73 orrialdean au esaten da: Denporaldi aretan, au da, 1539 urtean Ea'ko portuan itxasontzietako jaube edo arduradun oneik agertzen ziralta: Gastea Zaldibei'koa; Ondarro'ko Juan; Goiti'ko Juan; Legarreta'ko Juan; Andia, Juan; Zubialde'ko Juan; Arritola'ko Frantzisko; Urteaga'ko Domingo eta Labea'ko Pedro, beti be Bedarona, Natxitua eta Ereño'ko bizilagunak eatar lez ezagututa.

Eta dirudianeza aldi aretako arrantza, atuna, lebatza, besigua eta sardiña ziran.

Esan be egiten da Lekeitio zala aldi aretan Errege katolikoentzako arraiñik giena serbiduten ebana.

Martin Urtubia

Atal au motz geratuko litzake, Urtubia'ko Martin'eri buruz zerbait geituko ez ba genduke.

Oraintsu, España'ko Historia-Errege Akademiaren babespean, "Nueva lista documentada de los Tripulantes de Colon en 1492, izenpurua dauan lana argitaratu da, Alicia B. Gould'ek idatzita. (Madrid 1984). Lan orretan Urtubia'ko Martin'en amari egindako ordainketaren kontua emoten da.

Datuak Sevilla'n dagoz, ango Indietako Artxibotik artuak dira eta artxibo aretako ezaugarri oneik daroetz: 39-2 1/8. Bigarren eskuliburua, 129 orrialdean. Kontu orokorra 151 orrialdean.

Gould idazle orrek diño liburua noizkoa dan ziur jakiteko orriak falta dirala, eta Simancas'en dagon kontu orokorretakoan ez dala ainbestera elduten. Origaitik Sevilla'ko au baiño beste agiririk ez dagola.

Itxuraz Urtubia'ko Martin eatarrari, beragaz joandako beste lagun bik, Xtoval Cado eta Diego Leal'ek, zor eutsezan kendutako diru batzuk, eta orrela ain zuzen be ondarrutarra zan Martin Perez Likona, diplomatikua, ibili zan dirutza oneik lortu naian eta onen bitartez, orretarako eskubideak aurrez artuta eukazalako, bialdu eutsezan bere amari 12.077 marau. Euretatik 10.443 marau Urtubiak irabazi bear eban alogeraren falta zan zati bat zan, eta 1624 geiagokuak X. Caro eta D. Leal'ek, biak grumeteak, zor eutsezanak.

Urtubia au natxitiuar modura agertzen da, eta alaxe bear be, orduan errialde au Natxitua izan eta deitzen zalako. Alaz eta paperean, bere ama aitaturtzean, Maria Urtubia "vezina de Santa Maria de Antxituan, que es del condado de Vizcaya", esaten da. Eta egilleak ipinten daben azalpen baten "Antxituan debe ser la moderna Nachitua" diño.

(Ikusi liburu onen atze aldian, geigarri edo Apendizetan, 1 zenbakia daroana).

Eatarrak, beti itxas maitasunak ikututa dabiltzalako, 1987'ko uztaillean, itxastarren omenez, Ea'ko barra bideko ibilbidean dagon itxas begiratokiari, Agirre lepdakariaren izena ipini nai izan eutsen.

Eta itxasotik jasotako arri lakatz baten, arrantzale eta itxas gizon guztien gomuta eskatzen eben, arri orretan plaka au ipiniaz:

GOMUTA DAIGUZAN BETI
BEDAROA, EREÑO, IA TA NATXITUKO GURE ERRIEN
SORTZAILLE IZANIKO
BASERRITAR ARRANTZALEEKAZ BATEAN,
MARTIN LIRTUBIAKO, KRISTOBAL COLONEGAZ 1492-GN URTEAN
AMERIKETARAKO LEMENGO OSTERAN
"SANTA MARIA" ONTZIAN TXO MUTIKO IZAN ZANA
ETA
OSTERANTZEKO BESTE ARRANTZALE
ETA ITSASGIZON GUZTIAK.

AGIRRE LENDAKARIAREN ITSAS IKUSTOKIA.

1987-gn uztailean.
Arri au itsasotik ekarrikoa da.



EA'KO ITXASONTZIAK

Lenengo aurkitzen dogun Ea'ko txalopen zerrenda, 1728 urteko Urria'ren 25'an osotua da.

Zerrenda ori Lekeitio'ko eskribadu zan Juan Bta. Ganarra'k egiña da, Ea'ko Arrantzalien Kofradiako maiordumu zan Oiarbe'ko Juan eta bertako beste txalopa jaubeen laguntzaz.

Eta zerrenda egin eta ondoren Bilbo'n egiteko zan batzarreko ordezkari bi aukeratu zituen, aginpide osoagaz, ango batzarrean egin bearko zan itxastarren serbitsurako mutillak aukeratzeko orduan, bear ziran erabagiak artu al izateko. Lekeitio eta Natxitua'ko bizilagun ziran Martin Insausti eta Nikolaz Zatika izan ziran aukeratuak.

Ara txalupa jaube eta mariñelen zertzeladak:

Ea'ko txalopa eta gizonen erroltzea. (1728'ko 28 - X).

Juan Urteaga'ren txalupan:

Urteaga, Juan.	Txalopa gidaria.
Zuluaga, Diego.	46 urteduna.
Puerto, Baptista.	44 urteduna.
Allona, Migel.	32 urteduna.
Etzanizai, Santiago.	25 urteduna.
Olabe, Domingo.	34 urteduna.
Kortazar, Manuel	36 urteduna.
Urteaga, Santiago.	22 urteduna.
Urteaga, Pedro.	20 urteduna.

Bartolome Sagarbarriaren txalupan:

Sagarbarria, Bartholome.	
Allona, Joseph.	24 urteduna.
Jauregi, Martin.	20 urteduna.
Galdiz, Domingo.	24 urteduna.
Olabarria, Domingo.	24 urteduna.
Lizasu, Domingo.	46 urteduna.
Galdiz, Santiago.	19 urteduna.
Galdiz, San Juan.	48 urteduna.
Eskoikiz, Antonio.	22 urteduna.
Insausti, Ind.	20 urteduna.

Bautista Urteaga'ren txalupan

Insausti, Jul.	30 urteduna.
Ibinaga, Frantzisko	22 urteduna.
Mendazona Ing.	24 urteduna.
Etxebarrieta, Min.	36 urteduna. (Terranoba'ra os- tera egin ondoren, Frantzian dago).
Galdiz, San Juan	20 urteduna.
Etzanizar, Frantzisko.	30 urteduna.
Beitia, Frantzisko.	32 urteduna.
Ubidea, Jul.	38 urteduna (Ea'ko alkatea da).
Oiarbe, Juan.	34 urteduna (Arrantzalien Ko- fradiako maiordomua da).

Andres Laxiar'en txalupan:

Agirre, Jul.	40 urteduna.
Kortazar, Bernardo.	24 urteduna.
Kortazar, Frantzisko.	34 urteduna.
Insausti, Frantzisko.	26 urteduna.
Urduliz deiturako Migel.	40 urteduna.
Altarraga, Manuel.	24 urteduna.
Laxiar, Min.. '	21 urteduna.
Kortazar, Domingo.	26 urteduna.

Esandako Oneinkandik geiago, beste oneik dagoz:

Urteaga, Mathias.	Ea'tik dabillen txalupa txikiko kapitana. 32 urteduna.
Garatea, Juan,	22 urteduna.
Belaustegi, Martin.	24 urteduna.
Andueza, P.	38 urteduna.
Andueza, Baptista.	34 urteduna.
Andueza, Joseph.	32 urteduna.
Inasausti, Bapta.	32 urteduna.

Jendetza au, Natxitua eta Bedarona'ko eleiz-ate eta Ea'ko bizi-
tokioa da.

1739 urtean

Beste zerrenda bat 1739 urtean egin zan.

Bedarona'ko alkateak ango itxastarrei buruzko testigantza emon eban. Itxastar ogibidedun gizon oneik izentatu zitun:

Urizar, Juan.

Barainka, Pedro.

Biak Terranoban ebiltzan, bakallautan. Gitxi gorabera 24-25 urte bitartekoak zirala. Orduko agirian, Pedro'ren izenaren gainean, beste norbaiten eskuz idatzita, il zala esaten da.

Lengo arrantzale bien gain, beste bi agertzen dira:

Mendezona, Domingo. 34 urteduna.

Alderraga, Iñazio. 30 urteduna.

Azken bi oneik Ea'tik besigutan dabiltzala esaten da. Eta geiagorik ez dala ezagutzen Bedarona'n.

Ea'ko zerrendan beste oneik agertzen dira:

Beytia, Juan Baptista. Txalupa jaubea. 40 urteduna.
(Kofradiako maiordomua da).

Agirre, Juan. Lanerako gai ez dana.

Kortazar, Frantzisko. 50 urteduna.

Jauregi, Juan. 22 urteduna. Bedarona'ko bizi-laguna.

Eskoikiz, Alberto. 23 urteduna. Natxitua'ko bizi-laguna.

Urteaga, Juan. 40 urteduna. Natxitua'ko bizi-laguna.

Olabarria, Domingo. 40 urteduna. Ea'n bizi dana.

Ugarte, Pedro. 35 urteduna. Natxitua'n bizi dana

Urteaga, Juan Bapta. Txalupa jaubea.

Sagarbarria, Bartholome. 70 urteduna. Lanerako gai-eza. Bedarona'koa.

Etxebarri, Baptista. 54 urteduna. Bedarona'koa.

Mendazona, Domingo. 44 urteduna. Bedarona'koa.

Urteaga, Antonio. 12 urteduna. Ea'koa.

Mendazona, Frantzisko. 22 urteduna. Ea'koa.

Eskoikiz, Frantzisko. 36 urteduna. Natxituarra.
(Erbestean).

Lasier, Andres. 72 urteduna. Txalupa jaubea.
Ea'koa.

Iragorri, Iñazio. 34 urteduna. Izpaztertarra.

Iragorri, Sebastian. 30 urteduna. Izpaztertarra.

Iragorri, Juan.	32 urteduna. Izpaztertarra.
Altarraga, Iñazio.	32 urteduna. Bedarona'kua.
Ziloaga, Martin.	38 urteduna. Natxitua'kua.
Altarraga, Manuel.	33 urteduna. Ea'kua.
Urteaga, Juan.	72 urteduna. Txalupa jaubea. Ea'kua.
Urteaga, Pedro.	22 urteduna. Ea'kua.
Etxebarrieta, Lorentzo.	18 urteduna. Bedarona'kua. (Erbestean)
Jauregi, Iñazio.	19 urteduna. Ea'kua (Erbestean)
Etxebarrieta, Martin.	36 urteduna. Bedarona'kua.
Etxebarrieta, Martin.	13 urteduna. Bedarona'kua.
Biazko, Juan.	29 urteduna. Natxitua'kua.
Zarakondegi, Antonio.	24 urteduna. Natxitua'kua.
Urteaga, Santiago.	32 urteduna. Txalupa jaubea. Baletara joanda dabil, erbestean.
Mendiola, Pedro.	40 urteduna. Terranoban dabil.
Eskoikiz, Juan.	40 urteduna. Oraingotan erbestean. Natxituarra.
Intxausti, Juan.	32 urteduna. Natxituarra.
Intxausti, Baptista.	60 urteduna. Natxituarra.

Zerrenda osotzeko asmoz, eskribadua Natxitua'ra joan zan. Domingo Longa eta Domingo Lejarza ziran ango alkateak eta esan eben itxasoan ebiltzan natxituarrak Ea'ko zerrendetan sartuta egozala, portu onetako txalupetan ebiltzalako.

Beraz, Ea'ko portutik 37 lagun ebiltzan arrantzan 1739 urtean.

1765/90 urtean

Eunkada onen azkenetan Ea'k bere itxas alde ona euki eban. Peninsulako portuetako merkataritzan erabiltzan bere ontziak eta Portugal'eko portuetan.

Onela:

Nuestra Sra. de la Consolación. 17 toneladakua. Jaubea:
Santi Agirre.

Nuestra Sra. de la Concepción.	11 toneladakua. Jaubea: Dgo. Kortazar. (Natxitua).
Nuestra Sra. de Begoña.	8 toneladakua. Jaubea: Migel Kortazar.
Santa Catalina.	12 toneladakua. Jaubea: Martin Kortazar.
San Miguel.	12 toneladakua. Jaubea: Andres Galdiz.
San Benito.	34 toneladakua. Jaubea: Fko. Ibiñaga.
Nuestra Sra. de Begoña.	28 toneladakua. Jaubea: J. Bpt. Ibiñaga.
San Juan Bautista.	40 toneladakua. Jaubea: P. Irugarriza.
San Juan.	20 toneladakua. Jaubea: J. Urtubiaga.
San Juan y San Jose.	40 toneladakua. Jaubea: Jose Hendaydi.
Nuestra Sra. de Begoña.	36 toneladakua. Jaubea: Lorenzo Ibarra.
Nuestra Señora.	26 toneladakua. Jaubea: V. Etxezabal.

Zerrenda onetan beste lau txalupa agertzen dira, bat 12 tn. ta besteak 11 tn.kuak, baiña euren jaubeak Arteagakoak dira.

("La Industria Naval Vizcaina". T. Guiard. Bilbao, 1917)

Errolze oneik zeregin bat euken. Batetik eta bestetik ainbeste erasoaldi artzen zituen gure itxasertz eta txalupak zaintzeko gizonak aukeratu eta prest euki naia. Edo ta euren bateko nai besteko soldadutzarako mutillak aukeratzeko oiñarrizko gertae-rak egitea.

Jakiña da bai frantzetarrak eta bai ingelesak zelako erasoal-diak egiten zituen itxasotik.

Gogoratu oneitariko baten ingelesak Ea'ko kaletan sartu eta arein bala batek jota Juan Mandiola'ren alarguna zan Ageda Eskoikiz ilda jausi zala 1804 urtean.

Gogoratu baita bešte bik Andres Galdiz zaurituta itxi ebela.
(Labayru, "Hist. de Bizkaia, VII").

Jakingarri da, baita, Trafalgar'eko gudaketan, Domingo In-txausti "Trinidad" gudaontzian il zala, andrea alargun eta beste lau seme umezurtz geldituaz.

XIX garren gizaldian

"Historia del Consulado de Bilbao", III garren tomoko 805 orrialdean irakurten danez, iru lagun agertzen dira Ea'n kapitan edo pilotu nortasuna daukenak:

Kortazar, Frantzisko.

Iturraspe, Frantzisko.

Galdiz, Andres.

Gizaldi onetan kabotajeon dabilizan txalupen artean, Ea'ko bi billatzen dira, 46 toneladatuak, bakoitzean 14 lagun ebiltzala, Baiona'rako osteretan.

(J. Agirreazkuenaga "Vizcaya en el Siglo XIX" 212 orrialdean).

Egia esan bearreko da, Baiona'ko portua indarra galtzen asia zan urte batzuk lenagotik.

Itxas bizitza

Ba dirudi eatarrak, itxas bizitza eta arrantza, biak erabilten ebezala.

Ba eukezan merkataritzako osterak egiten erabilten ebezanak, eta orretarako txalopa bereziak eukezan.

Juan Gracia eta lagunak idatzitako "Historia de la Economía Marítima del País Vasco" liburuan irakurten da, ba egozala XIX garren mendeko lenengo urtetan, 1788 urtean egiñiko ogetabi toneladako patatxe bat eta 1782 urtean egindako amabi toneladako bat eta 1790 urtean egindako amasei toneladakoa. Azken bi oneik "quechemarin" deitzen ziran erakoak. Orraitio ba euken euskeraz be euren izena: "legak".

Ontzi oneik kapitan bat, iru mariñel eta "txo" edo gaztetxo bat erabilten zituen.

Itxas kapitanak

Danok dakigu azken denporaldi onetan eatarrak itxas ontzi andietako gidari ausartak lez ikusten dirala. txiki nai andi orretan ez dago buruausterik eurentzat.

Zerrenda ugaria egin leike gure denporetan ezagutzen diranekin. Kapitan, pilotu, maiordomu, makina eta motorretako arduradun eta abar, nun nai billatzen dira eatarrak.

Gaurkoen eta aurretikoen zerrendak ezagunak dira. Eta egia esateko, ia aintzat be ez dira artzen.


Baiña lengo denpora zarretan, kapitan izateak ba eukan bere duintasun berezia. Eleizetako liburuetan, sekula ogibiderik ipinten ez ebenetan, kapitan izatea bai azpimarratzen zan, bear ba da duintasun berezia eukalako.

Orrelakoen artean, urtetan atzera jota, or billatzen dogu Natixituan Domingo Uribe bat, itxas kapitana, Gernikako batzarretara joan zan emengo ordezkari lez 1622, 1630 eta 1632 urtean.


Eta gizaldi berbertan, beste kapitan bat be agertzen da Natixitua'ren izenean joanda: Lope Aulestia kapitana.



ITXAS ERTZA BIX INGURUTIK



BELETXE




BELETXE




OOLDIAK




ITXAS TXORIAK




ITXAS ERTZ



OGELLA




EA IBAIA



PORTU TXIKI




PORTUA



ONDAR GAIÑEAN



TXALUPAK



PORTUA

ARRANTZA ETA ARTZANTZA

EA ETA ARRANTZA

Lenago esan dogu Ea'ko txalupak, XVI garren gizaldiaren erdian, atun, lebatz, besigu eta sardiñatan ibiltzen zirala.

Euskalerrian lebatza arrantzaten zan,.baiña urteerako aukera andi barik. Bardin besigua.

Baiña bideen problema egoan. Eta Ea, Elantxobe eta antzerako portu txikiak, arrantzaten ebenari ezin atara izaten eutsen bear eban ondasunik, erostzaillerik batzen ez zalako euretan.

Origaitik arrantzaten eben arraiñaren zati bat, txikiena, salzen eben eta bestea gazitu edo brixidu ta eskabetxatu edo gatz-uretan sartuta gordeten eben, mandazaiñak euren portuetatik agertu arte, ardau edo beste zerbaiten garraioan eta areik izaten ziran arrain konserbak eroaten zituenak.

1771 urtean egon zan itxaropen apur bat.

Jakiña zan Irlandako portuetan lebatza gazitu egiten ebela ta alaxe gorde ta saldu.

Asmo orregaz Euskalerrriaren Adiskideak taldekoen bultzadaz, Lagunarte bat sortu zan 1771 urtean, Kantauriko uretan arrantzaten zan lebatza, batez be, gazitzeko.

(T. Guiard. Historia del Consulado de Bilbao, 564 orrialdean)

Bertan irakurten danez, Bilbo'ko Consulado alkarteak ondo ikusi eban asmo ori eta bere arnasa emon nairik, amabi milla errialeko kopuruz, zortzi akziño erosi zitun, bakoitza 1.500 errialekuak. Ramon Vial izan zan egitasmua Consuladoari aurkeztu eutsana. Baiña itxuraz Alkarteak porrot egin eban esku-lanaren akats edo utsekaitik.

Ez dakigu Lagunarte onek Ea'n eragiñik euki ete eban. Ez da urratsik aurkitzen.

Geroago zenbatza batzuk ba doguz ikusteko Ea, beste errien inguru eta parean zelan ebillan arrantza kontuetan.

Lauki au 1816 urteko bigarren sei-illabetiei dagokiena da:

1816 urteko bigarren sei-illebetetan

Arruak	Lebatza	Aingira	Merua	Atuna	Sardiña	Besigu	Marratun
Bermeo	7.606	69	38	2.804	900	7.742	
Mundaka	1.670	415		1.868		4.067	11
Lekeitio	4.164	84		6.376	1.800(1)	3.680	220
Ondarru	2.504	12		792	(2)	1.971	
Plentzia				225		1.304	
Elantxobe	432	90		1.100		926	7
Ea	320	64				1.375	3,44
GUZTIRA	16.696	415		13.165		21.071	

(1) Sardiña eta antxoak.

(2) Arru bakoitzak 12,5 kilo.

Zenbat arrain sartzen zan Bizkaiko portu guztietan, gitxi gorabera, lengo mendearen erdi aldean?

Onetan 1842 urteari buruzko kopuru jakingarri batzuk ba daukaguz.

Bilbo'n 1892 urtean J. Luna'k agertutako "Memoria que contiene una estadística sucinta de Vizcaya" lanean esaten danez, 1842 urtean Bizkaian 95.500 arru atun sartu ziran, beste ainbeste besigu; 36.500 lebatz eta 825 millakako sardiña. Bere ustez ori zan Bizkaiko arrantsu orokorra.

Eta ortik zenbat Ea'n?

Idazle orren esanetan, kopuru orreitatik Ea'renak oneik ziran: Iru milla arru besigu, beste ainbeste atun eta 1.500 lebatz.

Urte batzuk geroago, Madoz'en liburuetan beste zerrrenda au irakurten da:

PORTUAK	Txalupa Txalupa		ARRAIN FRESKUAK				ARRAIN ESKABETXATUAK			
	1850	andiak	txikiak	Besigua	Atuna	Lebatza	Sardiña	Besigua	Atuna	Sardiña
				Arruak	Arruak	kintalak	Realak	Arruak	Arruak	Realak
Bermeo	38	26	25.000	4.000	1.500	32.000	5.000	1.500	16.000	
Mundaka	44	5	9.000	1.500	350	5.600	1.500	1.000		
Elantxobe	9	6	4.000	1.500	700	20.000	1.500	1.000		
Ea	4	6	5.000	800	150	10.000	1.000	500		
Lekeitio	24	18	13.000	3.300	1.200	32.000	2.500	1.200		
Ondarru	22	10	16.900	5.000	2.000	32.000	4.000	2.000		(*)
GUZTIRA	111	71	72.000	16.600	5.900	131.000	15.500	7.200	16.000	

(*) Sardiñarrik eskabetxatu ezarren, zortzi milla arrua antxoak egin ziran.

1859 urtean zenbat arrain artu, zenbat gazitu eta kontserban ipini zan, Bermeo VI 1986-1987 aldizkarian, F. Arrizabalaga eta M.A. Agirre'k agertutako lanetik atara giñei.

Zenbaki onein artean berezitasun konturagarri bat igarten da.

Arraiña nora bialdu eta saltzen dan jakingarrian, Bermeo eta Elantxobetik Aragoi eta Castilla'ra doazala igarten da, an daukezala euren bezeroak; ostera Lekeitio, Mundaka eta Ondarroa'tik Castilla dabe erostzallerik nagusiena eta geroago Aragoi.

Ordez Natxitua geratzen da beste guztietatik ez-bardin. Natxitua'tik Haro eta Bilborako urteera dauke ango arraiñak eta kontserbak. Beste jakingarri bat, Natxitua'tik ez da saltzen arrain gaziturik, eskabetxatuak bai.

1859 urtean

PORTUAK	Lortutako arrantza		Gazitua		Eskabetxean ipinia		Freskutan saldua					
	Arruak	Arruak	Arruak	Arruak	Arruak	Arruak	Arruak	Arruak				
Bermeo	114.525	1.801.035	18.000	15%	180.000	38.504	33%	770.080	5.000	43%	53.021	46%
Elantxobe	32.635	543.514	4.897	15%	96.453	9.650	29%	147.096	1.250	3,8%	16.838	51,5%
Getxo	200	2.000	—	—	—	—	—	—	30	—	170	—
Lekeitio	66.276	1.630.804	12.008	18%	192.004	30.608	45%	918.240	7.200	10,7%	16.860	25,2%
Mundaka	8.705	99.869	—	—	—	1.610	18%	24.570	60	0,6%	13.048	15%
Natxitua	2.450	24.700	—	—	—	2.140	87%	19.800	16	—	70	—
Ondarraua	60.175	1.480.459	10.262	17%	156.140	27.550	45%	826.044	4.120	6,8%	10.515	17,5%
Plentzia	88	897	—	—	—	—	—	—	—	—	78	—
Santurtzi	7.530	32.550	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	292.984	5.615.828	45.167	—	624.597	110.062	—	2.705.830	17.676	—	97.940	—

PORTUAK	Gazitua	Eskabetxatua	Nora bialdu	Erabilitako gatza	Txalopak	Gizonak	Txalopen balioa
Bermeo	18.000	28.504	Aragon eta Castilla	977	94	—	442.200
Elantxobe	4.897	9.650	Aragon eta Castilla	197	34	—	152.112
Getxo	—	—	—	197	2	13	6.720
Lekeitio	11.200	30.508	Castilla eta Aragon	2.800	54	392	324.000
Mundaka	—	1.610	Castilla eta Aragon	33	14	166	52.800
Natxitua	—	2.196	Haro eta Bilbo	70	3	30	12.000
Ondarraua	9.411	27.257	Castilla eta Aragon	2.433	41	304	205.000
Plentzia	—	—	—	—	3	16	10.956
Santurtzi	—	—	—	699	13	56	42.600
GUZTIRA	43.508	99.725	—	7.179	258	977	1.248.388

Ba daukagu datu geiago, Ea-Natxitua'ri buruz.

1849/50'n asi eta 1863/64 bitartean, urterik urte, zenbat txalupa ebiltzan eta zenbat arrantzatu eben emoten dauskue. Ez dira datu zeatzak, biribillak baiño.

Oargarri da urte oneitan Ea'ko arrantzalien arrantzueta, ez dala agertzen ez antxoarik, ez sardiñarik, eta dakiguna au da: Ondarroa'n, esate baterako, 1856/57 urtean 1.260 arrua antxoan artu ba ziran be, beste urteetan arrain geiago arrantzaten zala, eta ala 1863/64'n ia bederatzi milla ta bosteun arrua porturatu zirala. Eta 1856 urtea sardiña urtea izan zala Ondarroan, nai ta beste urtetan gitxiago arrantzatu.

Orrek gauza bat adierazten dau: Ziurretik, saltzeko aukerarik ez eukelako, Ea'ko arrantzaleak ez ebela arrain txiki orreitarako sarerik ez tresnarik eta ez zirala arraintza orreitarra joango.

PORTUA	Noiz	Besigua (arr.)	Atuna (arr.)	Antxoa (arr.)	Sardiña (mill.)	Lebatza (arr.)	Txalupa andiak	Txalupa txikiak
EA-NATXmJA	1849/50	950	2.000	—	—	—	5	—
	1850/51	1.800	2.400	—	—	—	5	—
	1851/52	1.508	2.000	—	—	—	5	—
	1852/53	—	940	—	—	—	4	—
	1854/55	600	1.000	—	—	—	4	—
	1855/56	600	1.200	—	—	—	3	—
	1856/57	300	600	—	—	150	3	—
	1857/58	670	430	—	—	—	2	—
	1858/59	740	520	—	—	—	3	—
	1858	1.100	940	—	—	368	3	—
	1859/60	580	470	—	—	210	2	—
	1860/61	600	700	—	—	250	2	—
	1863/64	540	780	—	—	—	—	—

1863 urteko zeaztasunak

Urte onetako zeaztasunak agertu giñeikez, lengoen antzera, Joseba Agirreazkuenaga'ren len aipatutako liburuko zenbaki eta kopuruak erabilia.

Ordurarte Ea-Natxitua'ko salmentak Haro eta Bilbo'ra egiten ba ziran, urte onetan ba dirudi Haro'ra bakarrik saldu zirala.

Ori kontuan eukita, orain dator egin bearreko itaun bat: Noiz amaitu zan Ea'ko portuko bizia? Noiz bertako arrantzuak, eurekin merkataritzan jarduteko aiñakuak?

Bein 1879 urtea eskeroko estadistiketan, ezagutzen diranetan, ez da agertzen ez Ea ta ez Natxitua'rik.

Billatu daiguzan aitzakiak:

Bideak.

Danak dakigu bideak, errepideak, zer ikusi andia euki ebela portuen bizi-moduan, euren erakunde eta merkataritzan. Bide onak eukezan portuak, arraiñaren urteera billatzen ba ekien. Zaldidunak eta mandodunak, mandazainak, ba ekien euretatik ibiltzen. Portuetan bidegarri ziorra aurkitzen eben, batzutan garraio osagarri lez, bestetan merkataritzako oiñarri lez. Besteak, larri, nekez eta errian bertan gazitu edo eskabetxatu ondoren, beti be bidarien egokitasun eta aukeren begira egon ondoren.

Ezin ukatu bide kontuan Bermeo lako portua, beste guztien aurretik ornidu eta egokitu zala, giroan giroko eran, eta beste guztiak baiño aukera obeagoak emon eutsezala.

Bear ba da Gernika-Elantxobe-Ea bidea egin zanean, berandu zan Ea'rentzat. Bide ori 1846 urtean amaitu zan, bere ia 14 kilometrotan, zeatz esanda, 13,93 etan.

Beste aitzaki bat: Karlisten gerrak.

Jakiña da 1873 urteko Azaroan, bigarren gerratean, Errepublikako agintariak ordena bat emon eben arrantza galerazoten karlistak agintzen eben portu guztietan.

Orrela laster itto eben portu batzuen bizia. Dakigunez 1873 urteko Abenduaren batean, lbarrangelua'n batzar bat egin zan galerazpen ori jasotea eskatzeko. Bertan esaten zanez, bizkaitarrik geienak ogi koskor barik egozan, ogi apurrik be ez euken bearrezko eben elikaturarako. Egoera orrek larritu ete eban gure portu txikia, gure Ea?

Ba dirudi Ea'n, urte orreitan, arrantzako txalupak galdu zirala, edo ta ez zirala barriztu.

Eta arraiña gazitu edo eskabetxateko lantegiak be, arraiña gertuteko kabanak be porrot egin eben.

Dakigunez orreitako bat egon zan Ea'n, urtean 700'dik 800 arrua erabilteko aiñakoa. Ba dakigu baita bertan kintal bakoitza gazitzea 36 edo 40 errial kostaten zala. Jakiña, ori, portu baten-tzat era baterako urtenbidea izanarren, bestera, merkataritzan, atzerapen lez ikusi bearko zan, beti be arraiñaren urtenbide laguntzaille lez begiratu bear zalako gastu ori.


Atal onen asieran esandakoa beteaz, emen agertzen doguz 1863 urteko zeaztasunak.

1863 urtean

DISTRITOS	Arrantzatua		Gazitua		Eskabetxatua		Freskoan jana		
	Arruak		Arruak		Arruak				
Bermeo	78.115	1.952.287	—	—	15.400	19%	385.000	3.800 4,8%	58.915 75%
Elantxobe	28.836	653.153	4.911	17%	49.110	7.864 27%	12.511	644 2,2%	15.417 53%
Getxo	20	400	—	—	—	—	—	1	19
Lekitio	56.600	1.500.000	—	—	18.000	31%	192.000	—	—
Mundaka	7.641	98.092	—	—	900	11%	12.600	418 5,4%	6.323 84%
Ea	1.100	33.000	—	—	540	—	10.820	8	40
Ondarrua	50.778	1.754.829	10.384	20%	152.718	9.149 18%	186.777	750	30.490 60%
Santurtzi	8.000	12.000	—	—	—	—	—	50	6.950
GUZTIRA	231.090	6.003.761	15.295	201.828	51.853	912.314	5.671	118.154	

1863 urtean

DISTRITUAUK	Erreinurako itxaso edo legorrez bialdua			Erabilitako gatza	Txalupak	Arrantzaleak	Txalupen balioa	Arrantzako gaikien balioa
	Gazitua	Eskabertxetua	Mora Saldua					
Bermeo	—	15.400	Aragon, Castila, Bilbo	288	103	—	446.000	505.000
Elantxobe	4.911	7.864	Aragon eta Castilla	244	51	252	446.400	315.355
Getxo	—	—	—	—	2	11	3.200	—
Lekeitio	—	—	Barrura	1.550	62	582	248.000	105.000
Mundaka	—	900	Barrura	30	13	193	49.101	23.629
Ea	—	540	Haro	24	2	18	8.000	—
Ondarrua	7.303	9.149	Barrura	800	45	—	212.000	105.800
Santurce	1.000	—	Castilla	200	14	70	20.000	10.000
GUZTIRA	13.214	33.893		3.132	292	1.086	1.129.701	1.064.784



ITXASOTIK BIZI NAI

Bizi nai eta ezin bizi.

Ori da egia.

Eta egoera orreri urtenbiderik ezin emon, edo gaitz.

Ori ikusten da Ea'ko arrantzalien Kofradiako bizitzan.

Ortazko Agiria billatu lei Gernikako Artxiboan, Arrantza saillean.

Ara:

1843 urtean, Jose Domingo Idoiaga, Natxitua'ko Eleiz-ate eta Ea'ko portuko alkate zala (ala deitzen zan) eskabide bat egin eutsan Bizkaiko Aldundiari esanez, beti oitu izan zala etxeak konpondu, Arrain kabana egokitu, Maiordomuaren eta beste langilleen alogera ordaindu al izateko, bertako txalupak arrantzaten eben arrain freskuari euneko sei (% 6) petxa lez ezartea, ipintea, aukera ori barik gaitz izaten zalako esandako bear-izan eta premiñak betetzea.

Eta zeregin ori enkantera (errematera) ataraten zan urtero.

Orreri erantzunaz, 1843 urteko Martiaren 11'an Aldundiak jakin eragin eban, aurrez Arrantzalien Kofradiak bere irizpidea emon egiala.

Kofradiko lagunak Martia'ren 21'an batuta, erantzun eben, Jose Ramon Anitua Eskribaduaren aurrean egindako itun bidez, Natxitua'ko Eleiz-ateak (Udalak) itun bat egiña eukala Arrantzalien Kofradiagaz, Udaleko kutxa orokorrerako, arrantzaten zan eta saltzen zan guztiaren euneko sei (% 6) agaz laguntzea. Gaiñera bertakoei % 6 ezarriaren, mandazaiñak edo bestelako tratulariak sartzan eben arraiñari, euneko amabi (% 12) ezartea, portu onetako arrantzalien kaltez ekarten ebelako, eta emengo arrantzaleak eta Bedarona'ko aginpidekoak be, Kofradia egoan lekuan zergak ordaintzera beartuta egozalako.

Origaitik eskatzen eutsen Aldundiari aurkeztuten eben pexen araudiari bere on-iritzia emoteko.

Karta au Jose Domingo Idoiaga'k izenpetu eban, Alkate eta Kofradiako maiordomu lez, eta beragaz batera Jose Agirre, Jose Antonio Ulazia, Manuel Agirre eta Juan Martin Aranbarri'k. Idazkari lez Iñazio Egurrola'k.

Aldundiaren erantzuna

Laster eldu zan.

Itxuraz eatarrak keixu ebiltzan, eta Aldundiak be jaramon egin eutsen, Agindu au emonaz:

Natxitua'ko Eleizateari baimena emoten eutsala eskatzen eban euneko sei (% 6)ko petxa errematera (enkantera) atarateko. Baldintza bakar bat: Euneko sei ipiniko zala petxa lez, eta ez geiago, beste errietatik be bertara ekarten zanari, erriko arrantzari geitzen zana baiño geiago ezarri edo ipintea galerazoaz.

Aldundiak 1843'ko Martiaren 24'an artu eban erabagi au Bilbon.

Izenpetzen dauana: Fernandorena.

Eatarren guraria

Ikusten danez edo igarten danez, eatarren gogoia kanpotik bertara arraiñik ez eroatea zan.

Zegaitik? Ba geienetan bertakoen kaltez gertaten dalako, bertako arraiñaren salneurriari beratu eragiñaz, edo beste porturen baten arrain geiegiak salneurria beretik atara eragiñaz, edo ta merkatarien joko zikiñen bat bitarteko dala.

Ezin ukatu, giro aretan, askoz be altsuago zan beste porturen batetik Ea'n arraiña sartzea, geienetan merkatari tratularien jokoa izango zala Ea'n egon eikeazan arrain kopuruei eurekana eskuratzeko erreztasuna billatuaz, edo antzerako jokoren bat.

Edozetara be Ea'tik Aldundira bialdu eben Baldintzen zerrendak 23 atal eukazan, eta euretan argi ikusten da eatarrak nai ebena, eta petxa ori euren estutasun ugari ordaindu al izateko aiñako lortzea nai ebela, bai eta jokabide batzuk ekarri leikioezan kalteak txikitxeko be.

Baldintzen zerrenda

Auxe zan Aldundiari bialdutako baldintzen zerrenda.

1843 urterako arraiñaren % 6'aren Baldintzak.

1.—Txalupak ekarri eta eguneroko enkantetan (subastetan) lortzen zan arraiñaren baliotik % 6'a petxa orren erremata artzen ebanari eta bere zordunkideei emongo jakoela, baiña baliotik aurrez Maiordomuaren eskubidekoa beratuta, edo ta Elantxobeko Kofradiak erabagita eukan lez, arrantzaliei, lebatza obeto saldu al izateko, ezer kendu barik ekartearren emoten dautsena kenduta.

2.—Atun eta Besigu sasoian arrantzako txalupak ezin joan al izango dirala beste errietako merkataritza garraioan ibiltera, erremata artzen dauanagaz aurrez konpondu ezik besteak origaitik ordaindu beariko dabenaren bates-bestekoa ordaintzeko gertueran.

3.—Beste edozein kanpotarrek Ea'ko portuan, edo Bedarona'ko lurretan saltzeko, itxasoz nai leorrez arraiñik sartuko ba leu, erremata bere kontura artzen dauanak euneko 12 (% 12) eskatuko dautsa eta maiordomuaren eskubidekoa. Gaiñera baldintza lez artuko da arrain ori Kofradian saltzea.

Eta txaluparen batek arribada aitzakiz sartzen dauan arrain freskua be, porturatze ori borondatezkoa izan ba da euneko amabi (% 12). Eta nai ta ezkoa izan ba da, txalupa nungoa ango Kofradian oituten dabena, eta oi dan lez, Maiordomuaren esku-bidekoa. Baiña arraiña saldu ezik, errematalariak ezingo dau kalterik eskatu, ez itun au ezetsi.

Gogoratzen da Eleizate onetako edo portuko edozein bizilagunek Portu onetan atuna nai besigua brixidu eta eskabetxean ipinteko galdararik ipini nai ba leu, nai eta kanpotik ekarri esandako arrain motarik, ez dauala ordainduko bertakoak ordaintzen daben euneko sei (% 6) baiño geiagorik eta Maiordomuaren eskubidekoa.

4.—Beste porturen bateko txaluparik elduko ba litz kairatze aitzakiz, eta Portu onetan arrain freskua saldu, euneko amabi (% 12) ordaindu beariko dabe eta maiordomuaren eskubidekoa. Bardin beste Porturen batetik ba letor emengotik arrantzaten ibileko asmotan. Orrez gaiñera iñor kanpotarrek ezin urten al izango dau Portutik bertakoak urten aurretik, euren atzetik edo ondoren baiño.

5.—Txalupa jaubeak txalupak dakarrena euren tostartekoen artean banatzen dabenetan, ikusten ba dabe mandazaiñik ez dagola kanpora eroateko edo ta eskintzen daben salneurria ez dala egokia, orrelakoetan erramata daukanak ezin eskatu al izango dau ezelako petxarik eta ezin galerazoko dautse txalupa jau-beei orrelako erabagi bat artzerik, edo eurek egokientzat daukenik.

6.—Edozein arrantzalek, alturako arrantzan dabillan artean, arraiñaren euneko sei ordaindu beariko dau, eta merkataritzan dabiltzanak bakoitzak illean errial bi, aloger osoan ba lebiltz, osorik, eta aloger erdikan ibili ezkeru, aren arabera, edo ta gitxiago izan da be, alogeraren arabera. Orrez gaiñera itxasoetan ibiltera

doan edozeiñek, itxasorako urteeran edo ta etxeratzean bere boletoa agertu bearco dautsa erremata daukanari.

7.—Leortar guztiak amazortzi urtetik ogei ta amasei bete artekoak, ugazaben seme ba dira, ogeita amar errial belloiko zerga ordaindu bearco dabe, eta ogei ta lau errial errenteruen seme ba dira, baiña zerga au ordaintzetik aske geratzen dira Azillaren lenengo egunetik eta Berbizkude Paskora bitartean arrantzan ibilten ba dira.

8.—Eleiz-ate onetako leortar ezkonduak, jaube diranak, berrogei urte bete arte, erri-kutxarako amasei errial emon bearco dabez eta leortar ezkonduak, berrogei urtetik irurogei bitartekoak, urteko amar errial belloiko.

9.—Errenteru ezkonduak, berrogei urterarte, bakoitzak amar errial emon bearco dauz urtero, eta berrogei urtetik irurogei bitartean bakoitzak sei errial.

10.—Arrantza laga eta itxas-merkataritzan sartzen diran guztiak, kutxa berbererako bakoitzak illean errial bi belloiko emon bearco dauz itxas bizitza orretan diarduen artean.

11.—Erremata artzen dauanak ez dau eskubiderik eukiko ezer eskatzeko, arrantzara txalupak urten ondoren, euretarike batek merkanteren bateri laguntza emon bearrean aurkitu ba da, eta laguntza orrek emon izan leikion irabazitik parterik ez dau eukiko. Bardin gertatuko da beste txalupak itxasora urten barik geratuta be.

12.—Arrantzako txalupak itxasoan, kalara joatean edo etxerantz etortean trobaren bat edo beste zerbait aurkituko ba lebe, erremata daukanari portura dakarren arraiñaren ordaiña bakarrik emon bearco dautse, aurkitze ori etxeruntz datorrela izan ba da, baiña ezer ez arraiñik ez ba dakarre, nai ta trobak irabazien bat emon; baiña aurkitze ori arrain-kalara joatean gertatu ezker, eta kaira biurtu arrantzua galduta, orduan txalupakoak eta euren jau-beak arraiñari dagokion petxa ordaindu bearco dautse erremata daroanari, orretarako beste txalupak ekarri daben arrantzuen batez-besteko bat neurriztat ipinita, baiña troba edo aurkitu dabenagaitik ezer ordaindu barik.

13.—Kofradi onetako itxastar guztiak, itxas merkataritzan ibilteko beste Kofradien batera joaten danak, erabide orretan diardun artean erremata daukanari urteroko amasei errial ordaindu bearco dautsoz bere zeregiña marealdi osokoa ba da; amabi errial bere mare-aldia lautik irukoa ba da eta zortzi errial marealdi erdikoa ba da, baiña lagun ori edo lagunak, ibilbide orreitarako Bermeo, Mundaka, Plentzi edo beste portuetara joango ba

lira eta areik bardintsu emengoetara etorri, orduan onei Eatarrak eurretan irabazi dabenaren neurrian eskatuko jakoe errematearentzako petxa.

14.—Portu onetako edozein Elantxobetik ba dabil edo bes-teren batetik, erremata dauanari urte guztian amasei errial ordainduko dautsaz, egun bat bakarrean ibili ezik edo ta Domu Santuetatik Berbizkude egunera bitartean. Eta ortik kanpora illeko errial bi, Aldundi Orokorrak esaten ez ba dau beintzat egin daben denporaldia ez dala bear aiña errazoi leorreko serbitsutik askatu eta itxasokoan sartzeko, eta besterik agertu ezik, arrantzan dabiltzan artean euneko seiagaz lagundu bearko dabe eta etxean dagozanetan illeroko errial bigaz.

15.—Garraioan dabiltzan txalupetako patroiak euren txalupak kai-aurretik eurentzako daukezan tokietara bastertzera bear-tuta egongo dira, arrantzako txalupei urteera eta sarreretan kalte-rik egin barik eta arrantzan askatasunez ekin dagien.

16.—Portu onetako edo bertan sartzan dan Bedarona'ko mariñelen bat kanpoko txalopan arrantzan ibiltera joango ba litz, Jaurerri onetako, nai Kantabria, Asturias edo Galizitik ibilteko, andik ibili dan denporaldiko petxa ordaindu bearko dautsa erremata daukanari, ordain bearra beste emengo txalupak irabazi dabenaren araberan neurtuaz.

17.—Bakarrik edo lagunen bategaz mariñelen bat karnata-gaz aingira arrantzara joaten ba da, beste txalupekin alkartu barik, onek bere petxa erremata daroanagaz egindako konpon-keta bidez ordaindu bearko dau.

18.—Erremata artzen dauanak eta bere ordainkideak, erremateko dirutza iru zatitan ordaindu bearko dautse Sindikoari, geiagoko epe barik, lau illabetetik lau illabetera.

19.—Portu onetako arrantzako txalupan beste porturen baten arribadan sartzan ba dira eta bertan euren arraiña saldu, ez dabe erremata dauanari petxarrik ordaindu bearrik eukiko, bai-ña beste portuetako txalupak emen sartu eta euren arrain fres-kua salduko ba lebe, emengoei eskatuko jakoe erremata daroanagaz emen egiten dan antzera beste portuetan jokatu dagiela, emen eskatzen jakena areitan eskatuaz.

20.—Bein erremata artzen dauanak ezin eskatu leike kalterik edo ltuna apurtzerik, ituna egitean egondako bi, iru, lau, bost, sei, zazpi edo geiago txalupen orde, bat bakarrik, bi edo batik be ibiliko ez balitz, gertatu leiken lez. Eta bere eskubideen jaube egitean arrantzan bat, bi edo txalupa geiago asi eta batera bira,

irura edo bapezera etorriko ba litzaz, edo ta jaubeekin konturik euki ez edo beste edozegaitik, ezingo leuke kalterik eskatu.

21.—Era berean erremata daukanak kalterik ezin lei eskatu, portuan txalupa bat edo geiago arrantzara urten barik gelditzuen ba dira mariñelik ez daukelako, edo ta uretan ibili eziñez geratu diralako, edo eguraldi txarraren bildurrez, nai eta beste txalupak arrantzara urten.

22.—Erramata daroanak ezin lei arrain freskotan eskubide geiagorik eskatu, lonjan edo alkarren leian saltzen dan arrañagaitik ezik, eta ezer ez saldu barik gelditu eta alkar-artean banandu danagaitik.

23.—Erremata daroanak ezin lei ori indar barik laga edo itunik apurtu, Besigu eta Atuna eskabetxean ipinteko erremata iñok artu barik geldituko ba litz, eta origaitik Arrantzalien Kofradiak bere kontura artzen dauanagaitik; bakarrik brixidutakoaren eta gero bentetxian saldutakoaren eskubidea kobratu al izango dau eta ez txalupetako lagunen artean banatu izan danagaitik.

(Ikus, Geigarriak, 2).



ARTZAIÑAK

Ezin ukatu errialde onetan eta ingurutan, Ameriketako aizeak eta artzaintzako aukerak, alako indar eta gar berezia sartu ebala, eta bertako gazte ugariri urtenbide bat emon.

Batez be lengo gizaldiaren azkenetan, joera itzala artu zan arako.

Emengo baserritarrak entzute andia artu eben ango lurralde-tan. Batzuk artaldi andien jaube be egin ziran.

Lengo denporetan, Ea'k, esate baterako, bere bizilagunen matrikula eta estadistiketan, alderantzi andia emoten eban bertan bizi ziranak eta legez bertako ziranen artean.

Zegaitik?

Etxegarai lako batek diño orrek ba daukala bere oiñarria. Bere esanetan emengo jende asko itxas bizitzan dabil eta sarri gertaten da erbestean, baiña asko dira baita be Kaliforniara denporaldi baterako joaten diranak.

Ori, batez be, karlisten bigarren gerra ostetik igarten da.

1916 urteko agerbide batzutan irakurten da Ameriketako Nevada, Oregon eta Idaho'n, 184 bizkaitar ebiltzala, geienak artzaintzan.

Erriak izentatzean, Ispazter da lagunik geienak andik eukezana: ogei ta bederatzi (29), beste ogei ta sei lekeitiar lez agerzen dira.

Ea (15), Bedarona (6), Ispazter (29), Lekeitio (26) eta Mendexa'k (6), bost erritxoen artean larogei ta bi (82) lagun bialdu zituen, diño "Los Vascos en el Nuevo Mundo" VVillian A. Douglass eta Yon Bilbao'ren artean argitaratutako liburuak. Baiña zerrenda orretan Natxitua be falta da, eta liburu berbertan beste orrialde baten irakurten da andik be beste sei lagun joan zirala. Beraz inguru onetako 88 lagun batzen ziran.

Gero Ondarroa (1), Berriatua (8), Markina (14) eta Bolibar (4) artean beste ogei ta zazpi (27) zenbatuten ziran. Eta beste ainbeste, edo obeto esanda, bat geiago (28), Murelaga (5), Arbazegi (4), Nabarniz (5), Gizaburuaga (8) eta Amoroto (6) lako erri txiki-txuetatik. Eta Gernika aldeko erririk geienak be bialdu zituen euren ordezkariak.

Atzerago jota

Gorago aitatu dogun liburutik, barri pozgarri eta jakingarriak atara leikez Ea'rako.

Aberastasun billa lenengo Ameriketara joan ziranei buruz jardutean, onela diño: Boise'ko euskaldun zarren artean esaten zan Ameriketako Sorkaldera 1849 urtean lenengo eldu zana, eatar bat izan zala eta Txile'ko itxas-merkataritzan kapitan lez ebillana izan zala. Eatar kapitan au txiletar bategaz ezkondata egoala eta bere itxasontzian beste euskaldun bi eroan ebazala, bata Sendo izenekoa eta bestea Ea'tik urrun ez dagon Natxitua'ko semea zalako "Natxitxu" deitua.

Beste batzuen esanetan, lenengo euskaldun biak Pedro Altube eta Segundo Ugarriza ("Sendo") izan zirala. Oneik 1850 urtean eldu zirala san Franzisko'ra eta ordurarte baletan (ballenatan) ebillan ontzi baten ebiltzala.

Dirudianez, denporaldi aretan zabaldu zan Kalifornian urrea erraz billatzen zala eta barri orrek zoratu eban jende asko.

Esaten da Txile'n, 1848'ko Abustuan jakin zala ori eta Iraillean, il orren erdirako, urten zala Txiletik, Kalifornia'rako urre batzailleen lenengo aldra. Txiletik San Franzisko'ra, aldi aretan, iru illabete igaroten ziran. Esaten danez, 1849 urteko Maiatzean ba egozan san Franziskoko kaian, lotuta, geldi, larogei ta amar itxasontzi, euretako kapitanak be urrearen garrez metal orren billa mendira joanda egozalako. Eta illabete geroago 150 itxason-tzira eltzen zirala, an egozanak, zaintzaillerik be barik.

Itxuraz an ez ziran gauzak danentzat ameslari gertatu. Egon ziran zori on eta aberatsa lortu ebenak. Bai eta utsik ebiltzanak be.

1850 urtean frantzetar kazetari batek idatzi eban, angoa arri-garri zala. Leku baten euskaldun bi billatu zitula eta sei oin lautuko tarte txikitxo baten, egunero amar amabi ontza urretan artzen ebenak zirala, eta euren albokoak ezin ebela ezer lortu.

Aberastasun orrek ekarri zitun une garratzak be. Kaliforniako estatuak petxa edo zerga bat ezarri gura izan eutsen an lanean iñardubenei. Illeroko zerbait. Baiña euskaldunak izan ziran amerikatarren aurka gogorren ibili ziranak.

Origaitik esaten zan euskaldunak baketsu, ixil eta gogor lan egiten ebela, baiña bein odolak berotu ezkeru, arriskutsu agertzen zirala, itsu.

Urre zaratak amaitu ez baiña otzitzen joan ziran.

Batzuk, asitakoari jarraituz, eurenear jarraitzen eben. Baiña beste batzuk, laster asi ziran beste ogibidetara aldatzen. Jatetxe,

taberna ta antzekoak izan ziran batzuen ogibide barri. Beste batzuk, janarien eskabide eta premiñak ikusita, ganadutzan ikusi eben etorkizun luze bat eta ortik sortu zan ardizaintzarako joera.

Euskaldunak entzute ona lortu eben onetan.

Major W. Shepherd'en liburu baten onelako au irakurten da: "Artzaiñak aukeratzean, onenak mexikotarrak, euskaldunak eta portugaldarrak zirala esaten da. Euskaldunak eta portugaldarrak, geienetan, euren arfazakoekaz ibilten dira eta eurekaz lan egin be, eta euren asmoa, azken baten, artaldetako jaubetasunean parte artzea edo lortzea izaten da eta jaube maillara eldutea.

(M. Shepherd, "Prairie Experiences in the Hadling of Cattle and Sheep. 1885).

Edozetara be guretzat, Ea'ren Ameriketako agerbidea, jakin-garri da, batez be euskaldunak, euren artean eatarrak, an lortu eben nortasuna zelan txalotzen dan irakurtea.

Liburu onen azken aldian, geigarrien saillean, WWilliam A. Douglass'en liburuko orrialde bi sartuko doguz, 267 eta 327 orrialdeak, euskaldunen ango giro eta onurak ikusi al izateko.

(Ikus, Geigarriak, 3 eta 4).



UDAL BURU IZAN NAI

UDAL BURU IZAN NAI

Natxitua'ren mendeko auzo barik, udal oso biurtu nai

Bitartean zer egon zan, ez dakigu.

Baiña 1844 urteko Iraila'ren 12'an, karta bat bialdu zan Ea'tik Bilbo'ra.

Idazkian au esaten zan:

Jose Telleria, Natxitu eleizateko bizilagunak, lotsaz eta menpetasunez agertzen dau:

Ea'ko portuko ordezkari lez bialduta, Agintaritza orretan eukiko dozue, Natxitua'ren banaketari buruz egindako auzi-eskaria, eta jakinbide bat emonda egon bear dau berari buruz, urtenbear zabalekin. Ba dirudi azken baten Udaletxera bialdu zala irizpide orren eskaria eta Apirillatik ona ez da eskatzen zan irizpiderik emon, beintzat karta onen izenpetzailleak ez dauka orretazko barririk.

Arren eskatzen dautsut agindu dagizula Udalak ainbat ariñen biurtu dagizala paperak edo ta jakin eragin dagiala artutako erabagia, eta origaitik eskartuko zaitugu.

Jaunak zaindu zaitzala luzaro. Bilbon, 1844'ko iraila'ren 12'an.
Jose Telleria

Barriro ekiten

Geroago, andik urtebira, beste karta au agertzen da, oraingotan Ramon Galdiz'ek izenpetuta.

Onela diño:

Ramon Galdiz, Ea'lekuko bein-beiñeko alkateak, bear dan lotsaz jakin eragiten dautsu:

Ordezkari nazan Baltzuak idazki bat zuzendu ebala Aldundi-ra, indarrean dagozan legeen araberan, Natxitua eta Bedarona'tik aldebanatuta geratuko dan Udal aske bat osotzea eskatzen.

Eskabide ori urrengo urteko martian barriztatu zan, eta orko eskabidearen aurka agertu nai eben arduradunei eskatzen jakoen euren aurkako irizpideak agertu egiezala al zan zabal eta egokien.

Aldundiak epe zabalago bat artu eta igaro ondoren, bere barruko ordezkari bat aukeratzea erabagi eban, inguruko lekuak begiztatu eta alderdi bietakoei entzunda, al zan jakingarririk geien batu ta agertzeko eskatuaz, eta bere irizpide zuzen eta alderdikeri bako bat emoteko esanez.

Agindu ori beteaz, ordezkaria aukeratu zan eta onek berari eskatutako aztarrenak aztertu ondoren, Urriaren 18'an emon eban bere irizpidea era onetan: Alkar-banatzea komenigarri eta onurakor izango zala, nai eta bere iritziz ekonomiari buruzko konponketa larri ikusi.

Bereala jaso ziran lekuko planoak; erriaren erroltzea egin zan, eta azken erabagia izango zana alik zuzenen artzeko erabidea billatzen alegiñak egin ziran, baiña orduan agintaritzan egoan gobernu erakundea aldatutzean, eta gauza askotarako legedi barria egitean, dana geldi laga zan, gai onetan ezetan arduratu barik.

Bitartean or dago Ea auzo eta lekua, ez jakintasun onen ondorenez kalte ugari igaroten.

Gaiñera Aldundiak ezin lei oraingoz erabagirik artu, oraingo erakundeko oiñarrizko legeak Gobernuari emoten dautselako eskubide ori, eta Agintari-Burutza da orrelako agiriak osotzeko aginbidea eta altasuna daukana.

Aldundiak daukan auzi-agirian batuta dagozan lez, auzi orretako jakingarri guztiak, arren eskatuten dautsat Agintaritzan edo Politiku Buru orreri, Aldundiak auzi-agiri ori oso-osorik bialdu dagitsula eskatzen aleginduaz, ala iritzi ezkeron egon leikezan utsak bete, Agintaritzan orretatik Gobernura bialtzeko aukera euki dagozun, al ba da guk eskatzen doguna indartuaz. Origaitik artu gure esker ona.

Bilbaon 1846'ko apirillaren 15'an
Ramon Galdiz

Idazki oneri erantzunaz, Manuel de la Cuesta jaunak izenpetuta, eta "Gobierno Supr Política de Vizcaya" izendun silluagaz, beste idazki bat bialdu eutsan Aldundiari 1846'ko apirilla'ren 21'an, Gobernuari bialtzeko bertan egoan auzi-agiria eskatzen.

(Dokumentu oneik Gernika'ko Batzar Nagusietako Etxeko Artxi-boen dagoz, ezaugarri oneikaz: Registro 21

Legajo 2
N.º 1.)

(Ikus, Geigarriak, 5).

Noiztik Ea udal buru eta ez auzo?

Denporak aurrera ta gauzak geldi.

Orrela berrogetak urtetan.

Azkenez eldu zan Ea'rentzat bere nortasun ezaupidearen eguna. Onetan azken urtetan lan asko egiña, Allende Salazar Alduna.

Alaz eta gauzak ez ziran gertatu Ea'k lenengotan pentsatu edo eskatu eban eran.

Ea'ren eskabidea, bere buru jaube jzatea zan, baiña besteei eurenean itxita. Bitartean sortu ziran estaduko erabide barriak, erriei buruzko lege barriak eta abarrek, Ea berberak nai eban baiño geiago emon eutsan Ea'ri. Au da, Natxitua eta Bedarona bere izenpean sartzen ziran, eleizate bi orrein udal-lekutzat Ea berbera izentatuaz.

Guzti ori 1883'ko maiatzaren 28'ko Legea oiñarritzat artuta.

Il orretan auteskundeak egin ziran Natxitua eta Bedaronan. Orduan euretan aukeratutako ziñegotziei dei egin jakoen Udal barrira. Alaxe orretarako batzarrean agertu ziran aukeratutako gizon oneik:

Jenaro Landeta,
Antonio Garteiz-etxebarria,
Juan Migel Alastra,
Martin Erkiaga,
Juan Pedro Badiola,
Lorenzo Larrauri,
Jose Maria Iriondo,
Manuel Ugalde,
Pedro Telleria,
Juan Bentura Iribar,
Martin Antonio Eiguren,
Lukas Arraskada,
Domingo Mendiola,
Pantaleon Alzola,
Antonio Gabiola.

Batzarra zabaldu eta zertarako zan jakin eragin ondoren, eguneko ekintzari jagokozan legeak irakurri ziran. Eta Udal Barria osotuko eben ordezkarien izenak be aukeratu ziran.

Aukeratuak oneik izan ziran:

Genero Landeta,
Antonio Garteiz-etxebarria,

Juan Migel Alastra,
Martin Erkiaga,
Jose Maria Iriondo,
Manuel Ugalde,
Martin Antonio Eiguren,
Domingo Mendiola,
Pantaleon Alzola,
Antonio Gabiola.

Amar lagun aukeratu ziran, baiña bederatzi bear zirala ta bat kentzea erabagi zan, nor kendu sortetara atarauaz. Martin Erkiaga izan zan kanporatzeko aukeratua.

Gobernadorearen itzak entzun ziran, Udal barriari bere lane-rako bere laguntza eskiñiaz batera lan onean alegintzeko eskatzen.

Batzarrak zati bi euki zitun.

Lenengoa, gorago kontatua.

Bigarrena, osorik, ordezkari barrien kontura egin zan.

Euren artean agintari barriak aukeratzeak egin ziran.

Jose Mari Iriondo eta Alberdi aukeratu zan alkatetzarako. Beraz ori gertatu zan Ea'Udaleko lenengo alkatea.

Bere ordezkotzat, lenengo ta bigarrentzat, Antonio Gabiola eta Manuel Ugalde aukeratu ziran. Eta Antonio Garteizetxebarria, sindikutzat.

Orrela Udala sortu eta osotu eta Allende Salazar aldunari eskerrak emon jakozan, Ea'ren gurariak beteten alegindu zalako, batasun onek mesede asko ekarri eikezan itxaropena agertuaz.

Batzartu guztiak izenpetu eben batzar agiria, batek ezik, Pedro Telleria'k ezik, eta ez asarrez, izenpetzen ez ekialako baiño.

Geroago, uztailla'ren 22'an egin zan batzarrean, udaleko agintaritzza sailen silluak egitea erabagi zan. Onela geratu ziran deiturak:

Ea'ko eleiz-atea.

Ea'ko bake-epaigaritza.

Ea'ko erri-salataritza.

Zeregin orreik bete bear zituenentzako agínte makillak be agindu ziran. Eta Udal-batzarrak, Erri-zaintza, Irakaskintza, Errilan, Osabidetza eta oi diran beste udal batzordeak aukeratu ziran eta osotuta itxi.

Orreik izan ziran Ea udal lez sortu eta lenengotako batzar-
rak eta erabagiak urrengo batzarra, batzar berezi lez, illaren
24'an egitea erabagiaz.

ERREGE AGINDUA

Erri-zaintza Ministeritza.

Legea.

XII garren Alfontso, Konstituziñoaren arabera España'ko
Erregeak, oraingo au ikusi eta ulertzen daberen guztiei jakin eraz-
ten:

Lege Biltzarrek agindu eta erabagi dauala jarraiko au:

Atal bakarra. Bizkai'ko Eleizate diran Natxitua eta Ea, eta
Bedarona'k, lege au argitaratzen danetik, udalerrri bakar bat oso-
tuko dabe, Ea'ko eleiz-atea deituraz.

Origaitik, zibillak nai militarrek izan edo ta eleiztarrak, dau-
ken mailla eta duintasuna daukela, auzitegi, epailari, buruzagi,
jaurleri eta gaiñerako agintari guztiei agintzen dautsegu, lege au
zaindu eta zaindu eragin dagiela, bai eta bete eta bete eragin be,
bere osotasun guztian.

Jauregian emona, 1883'ko maiatzaren 28'an. NI, ERRE-
GEAK.

Erri-zaintzako Ministrari, Pio Gullon.



BEDARONA ELEIZ INGURUA



BEDARONA ABADE ETXEA



BEDARONA



NATXITUA. INGURU BAT



NATXITUA. IBILBIDEA



NATXITUA



NATXITUA. ELEIZ AURREA





ELEZ BIZITZA

NATXITUA'KO PARROKIA

EA, txikia dala, parrokietan anditu egiten da: Lau parroki.

Ea'n bertan, zubi bat bitarteko dala, bi: San Juan (Doniene) eta Andra Mari (Jesus'koa).

Goietan, auzo baten, Natxitu'n, Sorkundeko Amaren eleiza, erri deituraz, Konsolasiñokua.

Beste auzoan, Bedarona'n, Pedro deunaren omenez jasotakua.

Istorian zear, lotuera ezbarðiñak eukitako parrokiak dira eurak.

Natxitukua, Ibarrangelukoaren menpeko izan zan. Bedarona-kua, Ereño'ko parrokiaren mendeko. Luze joan bearko giñateke katean egitura orreik azalduten.

Labur esan daigun.

Natxitu'ko parrokiak, bere menpeko eban Donibane, baiña beste aldetik, bera, Natxitukua, Ibarrangelu'ko Ander deunarena.

Natxituko parrokia 1430 urte inguruan jaso da eta XV garren gizaldian Ibarrangelukotik banatu ondoren, eleiza barriztatzea lortu eban 1611 inguruan.

Iturriza'k bere "Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones" en diño: Bertako eleiztarren artean 52 etxe eta jaunartzeko adiñean egozan 260 pertsona egozala bertan.

Arteaga eta Zubieta'ko etxejaunak ziran eleiz onetako patroiak.

Eurak artzen zituen erriak emoten ebazan eleizarentzako amarrenak eta orren ordez, patroitza orrek erritarren artean emoten eutsen duintasunaren gain, euren eskuetan artu eben abadie euren ogibidea ziurtatzea eta baita premiña egoanetan eleizak konpondutea be.

Esan bearreko da arrotasunez eroaten ebela patroitza ori, parrokietan bestien aurrez euren jezarlekuak zainduaz edo ta toki berezietan illobiratzeko aukerak artuaz.

Natxitu'ko eleiza, bere egituran, zati bateko da. 97 oin daukaz luze eta 54 zabal. Bost aldare eta kanpai torrea. Eta len, illobiak eleiz barruan egoten ziranean, 71 illobi edo sepultura egozan bertan.

Zaindariaren irudia

Natxituako eleizako Andra Mariaren irudia, txikia da, eta illuna, beltzerana.

Iturriza'k diño, 1700 urteko iraillaren 7'an, bertan ipiñia dala.

Bere esanetan, misioñoiak egon ziran urte orretan. Eta bertako eleizar batzuk autortu eben, euren gurasoei entzunda eukela, irudi ori elorri baten billatu ebela, eta arrezkero aldare nausian egoten zala. Baiña Arteaga'tar Pedro Italiatik etorri zan baten, lengo Konsolasiñoiko Ama ori kendu edo gorde nai izan ebalar eta txikia zalako, eta Santa Ageda ermitako aldarari ipiñi ebala, eta an egon zala 1700 urte arte.

Aita Jose Lizarralde'k, bere Bizkai'ko "Andra Mari" liburuan, Natxitua'ko Andra Mariaren irudia agertzean, au diño: "Itxuraz irudi au bein baiño geiagotan egokitua izan da eta origaitik ez da errez ikonografian euki leiken balioa zeaztutea. Alaz eta iru gizaldi baiño zarrago dala esateko ez dago bertan ortazko agerpen edo itxurarik. Beintzat ez da elduten bertako eleiza sortu zan 1430 urte edo denporaiño". (290 orrialdean).

Irudi onetaz jardutean Aita Lizarralde berberak 1614 urteko azken-nai edo testamentu bat gogoratzen dau. Testamentu ori Gernikako Protokoloetako Artxiboan dago, Iñigo del Campo eskribaduaren aurrean egiña da. Bertan izentatzen dira inguru onetako oneraspen andiko Andra Mariak, eta orrela agertzen da Natxituko Andra Maria "Konsolasiñoikoa". Eta bertan baita Ea'ko Errosariokua eta erri berbertako Jesus'ko Andra Maria.

Parrokiko artxiboa

Eleiza onetako artxiboa Derio'n dago, beste parroki askotakoak lez, ango "Bizkaiko Eleizaren Histori Arkibia" deiturakoan, azken urtetakoak edo eskuetan bear diranak ezik.

Ala 1652-1875 bitarteko jaiotzetako liburuak.

1655-1807 bitarteko ezkontzetakuak.

1655-1910 bitarteko eriotzetakuak.

1793-1864 bitarteko sendotza artutakoenak, konfirmatuenak.

Bai eta Eleiz-fabrikako kontuak, 1741-1881 bitartekuak.

Errosario'ko Kofradiak, 1698-1861 artekuak.

Eta Eleizako erakunde, laguntza eta abarrenak, 1607'tik 1864 artekuak.

Parroki onetako jaiotzetako liburuetan agertzen dan lenena 1652'ko apirillaren 18'an bateatua da eta Diego Zuloaga Monasterio'rena.

BEDARONA'KO PEDRO DEUNAREN ELEIZA

1416 urteko dokumentu baten, San Pedro de Vedarria (Bedarona) aitatzen da.

Eleiza onetako eleiztar batzuk, Ereño'ko parrokia euken euren eleiza nagusizat.

Esan be egiten da, Ereñozar'en meza egoten zan jai batzutan, abadea zain egoten zala Bedarona'ko agure bat eldu arte, eta ordua eldutakoan itandu egiten ebala a eldu ete zan, eta elduerako ziurtasuna artzean, orduntxe asten ebala meza.

Ezin ukatu Ereño'ren lotuerak neke asko emongo ebala eta origaitik emengoak alegiñak egin zituen andik askatu eta parroki barri bat emen jasoteko. Amar etxek lortu eben andik banatzea eta Izpazter aldeko beste etxe batzuek, emen parrokia sortzeko baimena lortu eben. Orrela, emengo amar eta izpaztertar beste 21 etxegaz, jaso zan lenengo parrokia.

Eleiza enetako patroia Zubieta etxeko jauna izan zan. Berak artzen zitun eleizari egokiozan amarrenak eta orde z berak alogera ziurtatu abadeari.

Parrokiak 56 oin daukaz luze, 25 zabal eta 32 illobi (sepultura). Bai eta iru aldare eta aterpedun eleiz-aurrea.

Bertako eleiztarrak, Iturriza'k esaten ebanez, eta jakiña bere denporetako zeaztasuna izango zan ori, 150 lagun ziran, kontuan eukita Jaunartzeko adiñean egozanak bakarrik zenbatuten zirala denpora aretan.

Parrokiko artxiboa

Derio'n dago, emengoa be, eta ara eroan ziran liburuak oneik dira:

Jaiotzetakoak,	1631-1899	bitartekoak.
Ezkontzetakuak,	1631-1849	bitartekoak.
Eriotzetakuak,	1632-1949	bitartekoak.
Sendotzetakuak,	1690-1960	bitartekoak.
Eleizako fabrikarena,	1736-1897	bitartekoa.
Ekintza onak,	1747-1850	artekoak.

Anaidi edo Kofradienak:

Arimenena,	1682-1952.
Mariaren Biotzekua,	1925.
Errosariokua,	1788-1947.
Barruko itzaldiak,	1943-1956.
Bateko ta besteko,	1940-1963 bitartekoak.

Parroki onetan liburuak asi ziranean, lenengo bateoa artu ebana, Marina Altarraga izan zan.

EA'ko SAN JUAN

Lengo zarrak Doniane be deitzen dabe. Gaurkoak galdu dabe izen jator ori.

Parroki au 1550 urtean jaso da.

Zati bakarreko da, 84 oin luze, 28 zabal eta bertan 45 illobi egozan, obiratzeak emen egiten ziranean.

Natxitu'ko parrokiaren mendeko izan zan au luzaroan.

Arteaga eta Zubieta'ko etxeak ziran bertako patrioiak.

Bere eleiztarrak 44 etxe ziran, Iturriza'k bere Historia idatzi ebanean, eta 210 eleiztar, jaunartzeko adifnean egozanak.

Emengo aldare nausiko erretablua Barroko erarako jokabideko denporaldikoa dala esaten da.

Orrela, "Ea'ko Doniane Parrokiko erretablo nausia, irakurten da, bertako santuaren bizitzako gaiak eta ekiñak agertzen dabezan lau erlaxpe edo plafuez osotua da, eta plafoi orrean gaiñean iru ertzeko orma eta orma zerrendak (frisoak) apaindura erraz eta soillekaz. Eta azkentzat, edo goiburutzat, erremata biribilla.

Obetuen erabilitako gaia Yon Bateatzeille deunaren irudia da, bai eta erretabluko goi aldeko erdiko santutegian dagon Sortez Garbiaren irudia".

("El arte del Renacimiento en Vizcaya desde finales del Siglo XV hasta la epoca del barroco". Francisco Sesmero).

Onelako egiturak Bizkaian Zeberio'ko Olabarrieta'ko Tomas deuna, Arantzazu'ko Pedro deunaren aldare nausia; Arrigorriaga'ko Bartolome deuneko aldarea; Tabira'ko Aldare nausia; Muskiz'eko Julen deunaren eleizan egoana (gaur galdua); Karrantza'ko Esteban deunaren elizakoa eta Arrazola'ko Mikel deunaren parrokikoa dira.

Esandako oneik Antxieta'ren eskolako egiturak dirala esaten da.

Parrokiko artxiboa

Parroki onetako eleiz liburuak 1961 urtean asita dagoz. Eurretan agertzen dan lenengo bateatua Migel Natxitube Etxebarria da.

Eskuetan bear diran azken urtetakoak ezik, beste liburu guztiak Derio'ko Eleiz Arkibuan dagoz.

Oneik dira:

1691 'tik 1909

bitarteko Jaiotzetakuak.

1692-1785

bitarteko ezkontzetakuak.

1691-1923

bitarteko eriotzetakuak.

1754-1898

bitarteko Sendotzetakuak.

1942-1953	bitarteko erroltzeak.
1824-1924	bitarteko Eleiz-fabrikakua.
1827-1940	bitarteko Errosarioko Kofradiakuak.
1922-1942	bitarteko Eleiz-gorabera ta Itzaldiak.

JESUS'EKO ELEIZA

1550 inguruan jaso da.

1725'n barriztatua.

Zati bateko eleiza.

86 oin luze, 24 zabal. Eta 21 illobi egon ziran bertan.

Zubieta'ko etxe-jauna zan bertako patroia.

Egin zanean, Ereño'ko parrokiaren mendeko egin zan.

Orain berreun urte inguru, Iturriza'k bere Historia egin ebanean. 85 eleiztar zirala esan eban bertakoak, oi zan lez, jaunartzeko adiñean egozanak zenbatuta.

Aldare nausia barroko erakoa da. XVIII garren gizaldikoa. Erdian, Andra Mari irudia. Uztaila'ren 2'an, Andra Mariaren Ikerkunde egunean, eleiz jaia ospatzen ekien.

Ea'n parroki bi egoteak eta parroki duintasuna zaindu naiak, burukomin ugari emon izan dautse bertoko abadeei, batez be azken urteotan, abadeak urritu diranean, abade bakar batek eroan bear izan dauzalako parroki bietako ardurak.

Egia au da: Batekoak eta besteko eleiztarrak, bakoitzaren "parrokia" zaindu nai izaten dabela.

San Juangoak sanjuandar eta Jesus'koak jesustar irauten dabe. Eta etxe askotan gizona sanjuandarra ta andrea jesustarra eta kanposantu bakar baten lurperatu arren, eleizkizuna bakoitzarenean egitea nai izaten dabe, ezelako aitzaki barik.

Eta igande askotan, meza nagusia baten edo bestean txandaka ospatuten zanetik, batzuk adi egiten ziran nungo kanpaia jo ara joateko, askotan jezarlekoa, aulki andiak ipini arretik, au da, "eleizako silla" eleiza batetik bestera meza aurretik norberak eroanaz.

Jesus'eko artxiboa

Ea'ko parroki guztietako artxiboen antzera, emengo be Derio'ko Bizkai'ko Eleizaren Arkibu nagusian gordeta dago.

Parroki onetako liburuak 1691 urtean asiak dira.

Derio'n batuta dagozanak oneik dira:

1691-1914 bitarteko jaiotzetakuak.

1693-1851 bitarteko ezkontzetakuak.

1691-1931 bitarteko eriotzetakuak.

1793-1898

bitarteko sendotzetakuak.

1886-1952

urtetako erroltzeak.

1771-1937

bitarteko Eleiz-fabrikakuak.

1897-1928

bitarteko Eleiz gora-bera, Mariaren

Alaba eta Sagrario'ko Marienak.

Parroki onetako jaiotzetako liburuetan agertzen dan lenengo bateoa, 1691 urtekoa da eta Madalena Berreaga Garro zanarena da.



ERMITAK

Agate deunarena

Natxitu'ko parrokiaren mendeko.

Gernika'tik Ea'ra duan bideko 44, kilometroko inguruan, ezkerretara dago.

Ermita txikia da. Ia zazpi metro luzeran eta bost zabaleran.

Egalak arlanduzkoak. Arlanduz inguratuak baita ate eta leioak. Gaiñerakoa arlangaitza (manposteria).

Atearen gaiñean, arrian landutako kurutze bat.

Euskalerriko beste toki askotako ermitetan lez, emen be Asentsioko letañien ibilbidea egiten zan. Oiturea zan ura ta gatza bedeinkatu eta gero etxe bakoitzekoak euren soloak eurekin bedeinkattzea.

Ez dakigu noiz jasoia izango zan.

Ermita onetara bularretako gaitza daukenak urreratzen dira. Euren eskintzak kandela eta lorak izaten dira.

Jaia, Otsaillaren 5'ean ospatuten da, nai ta azpaldiko urtetan parrokiaren egin eleizkizuna.

Ermita onen kontuak liburu berezi baten erroaten ziran eta 1758-1848 bitarteko kontuak dakazana, Derio'ko Artxiboan dago.

Ermita onen egiturak Euskalerriko beste parroki eta ermita batzuk dauken aozko kontakizuna dauka.

Itxuraz, aurretiaz Ea'ko sakonaren inguruago jaso nai izan zan edo nai izan eben eleiza au.

Baiña egunez gertuten ziran gaiki guztiak, gabaz orain dagon tokira aldatzen zitun norbaitek.

Egon ei ziran ikusmin eta jakin-miñak, ori nok egin edo zelan gertatzen eta zan aztertu naian ibili ziranak. Orreitako bat ausartu ei zan gau baten ziurtatu nairik kezkatzera, eta bereala, orretan ebillalako, itsu geratu ei zan eta berberak entzun ei eutsan garraioan ebillanari alako esaera au: Ea antoe, Ea belioe, niri begira dagoanari, begiak urten begioe.

Bartolome deuna

Bedarona'ko parrokiaren menpeko.

Olabe baserritik 500 metrotara egiten da, ortarako Ea'tik Bedarona'ra doan bidetik joanaz.

12,60 metro luze eta 7,90 zabal.

Arriangaitz edo manposterizko ormak. Egalak arlanduzkoak.

Beia, oiña, zementuz'koa.

1984 urtean barriztatua da.

Jaia, Dagonilla'ren (Abuztuaren) 24'an ospatzen da.

Lengo denporetan, gaur baiño entzute eta oneraspen geiago euki eban inguruetan ermita onek.

Bedarutarrak ba ekien bertako santua, euri-premiñetan, bitartekotzat erabilten.

Origaitik, legorte aldietan, parrokira eroaten eben irudia, eta ordez Andra Mariaren irudi bat ermitara eta bertan laga, utsunerik egon ez egian, bestea parrokian egoan artean.

Eta bederatziruena egiten jakon parrokian euri eske.

San Markos eta Asentziotako letanietako iru-urrenetan be, ermita ori izaten zan bigarren eguneko jo-muga.

San Bartolome bakezaletzat euki izan dabe beti bedarutarrak. Amets garratz eta kezkatia larri erabilten zituenak, bertara eroaten zituen, umeak ba ziran, edo bertara etorten ziran adiñekoak, eskintza lez kandelak eroanaz.

Len ermita onen ardura, alboko etxeakoak eukiten eben eta ermitaren soloa erabiltearren, euren kontura euken oriozko argiontzia biztuta eukitea, bai eta abadeari, letaniak errezateagaitik, 24 errial ordaintzea.

Gaur oitura ori galduta ba dago be, ermitaren ardura Olabe baserri-etxeakoak eukiten dabe.

Tala'ko Ama

Bear ba da Ea arrantzale erri zanetik datorkio deitura ori ermita oneri.

Portu guztiak euki izan dabe euren itxas-gaiñeko mustur egoki baten, edo menditxoren baten, bertatik itxaso zaindu eta batez be, bale denporetan, izabere orre in ibillerak aztertu eta zaintzeko tokia.

Orreitako tokian dago eatarrak ain begiko daben ermita au.

Itxas-etxe edo arantzalien babes-aterpe zan "Beletxe" deiturako etxearen alboan artu bear da, barra muturrerako bidea itxi eta mendi alderako bidea, talarako bidea.

Kurutze eta abar ondo mugatu eta zuzendua da.

Itxas lurruna artzeko toki egokia, itxasotik 55 metrotako gainetxo baten dagon ermitaren aurrea, atalaia.

Aterpe onetatik dauka ermitarako sarrera. Lenengo zati bat, bederatziko metro luze ta zazpi ta erdi zabalekoa. Ta bere ondoren eleiz-bularra, absidea, 7,55 x 9,30 metrotakoa.

Itxastar asko dira eatarren artean, eta eurak darabiltzen itxasontziak inguru onetatik igarotean, turruna jotzen agurtzen dakie Tala'ko Andra Maria, eta bertako arrantzaleak be, Salbarri'tik igarotean, Salbea esateko oitura euken. Salbarri, oituraz tokiari izena emonaz geratutako deitura: Salbe-arri.

Ba dauke eatarrak bertan abestuten daben kantu berezi bat:

Talako Ama, samur maite,
izan zaite gutzat, zeru bide.
Talaiaiko Birgiña, Ea'ko erregiña,
Jainkoaren Ama,
Zugana datorren erri oneri
egin abegi onena.

Sortzez Garbia da bertako irudi nausia eta egun onetako meza nagusia, parrokian barik, ementxe esaten da.

Bertan dago baita Kristo zigortuaren irudi bat eta emakumeak aur-gintzan ain sarri gogoratzen dakien santuarena, Erramun Jaiobako deunarena.

Eatarrak, udako algara ta nabarmenkeriak amaitzen diranean, sarri ikusten dira bakarrik edo lagunartean kontuak esan eta tartean otoitzak egiñaz, ermita onetara igoten.

Tala'ko Andra Mariaren irudia itxasoan billatua dala esaten da eta orduntxe eta beretzat egin zala ermita au. Eta bertan dagon Kristo zigortuaren irudia be itxas andi baten salbatua dala.

Lengo denporetan letanien errezua ermitetara egiten zanean, oiturako zan iru egunetik baten ermita onetara igotea. Eta urteak egon ziran Udalak, erriak, ogia eta pattarra emoten ebazaneakoak.

Len promesen ezaugarri ugari gordeten ziran bertan, ormetatik dindilizka. Itxasontzi, itxas tresna eta abar. Baiña 1973 urtean egin zan barriztapenean, garbitasunaren aitzakiz "salbabi-da"k bakarrik itxi zituezan bertan, promesa guztien adierazgarri eta ordezkari antzera.

ERIoTZA

Bedarona, Ea eta Natxitua'ko parrokietan

Jakiña da Eriotzari buruz eta bere inguruan, ainbat sinismen, oitura eta ekintza ezagutzen dirala erri askotan eta gure Euskalerrri onetan be ezagutu izan dirala bertako berezi eta jatorrak.

Onetan, 1970 urtean, Anes Arrinda, Deba'ko parrokoa zanak, ikerlan bat egin nai izan eban gure artean oraindik geratzen ziran eriotza inguruko oiturei edo sinisteei buruz.

Euskalerrriko 353 apaiz-parrokóei itaun batzuk bialdu eutsezan. Bere itaunak batez beste oneik ziran: Sepulturarik ba ete egoan eleizan; sepultura etxearena edo familiarena ete zan; Sepulturetan ezer egiten ete dan; Anda bideak; illetetako jaldiak; ofrendak; illari laguntzea; ildakoari oiñak lotzeko oiturarik ete egoan errian; nagusia ildakoan erleeri barri ori emoten ete zan; ildakoan tellatuko tellak kentzen ete ziran; kuartoko leiorik zabaltzen ete zan; txakurren intziri tristestak eriotzako señaile ete ziran, eta abar.

72 erantzun artu zitun. Euren artean Bedarona'koa eta Ea'ko parroki biena. Natxitukorik ez.

• • •

Bedarona'ko parroko, Luis Andonegi zan garai aretan.

Onek erantzun oneik emon zitun, Bedarona'ri buruz.

Sepulturak lenago ba zirala eta familiarenak zirala. Baiña banku barriak eleizan ipintea baiño lentxuago eleiztarrak eurak asi zirala geldi-geldi kentzen.

Sepulturan erresponentsua egiten zala.

Anda bideak, au da, illa eroateko bide ziurrak, oraindik ezagutzen zirala, eta kurutze biderik gertaten ba zan bide orretan, erresponentsua errezaten zala.

Sepulturako argizaria oletan batzen zala. Orain, banku barriak ipini ezkeroztik, bankuen atze aldean ipinten dala sepultura.

Eriotza eguneko janak: geienetan ez zala egiten, batzuetan bai. Jatorduan Aita gurea errezaten zala il zanaren alde.

Gorpu-laguntza egiten zala, gizonak aurretik batera joanaz eta emakumeak ondoren. Ofrendarik ez zala eroaten laguntza aurretik.

Eriotza gertu dagon siñalea txakurren intziri tristea izaten da-la, oraindik sinisten dabela batzuk.



Ea'n abade bakarra zan parroki bietako arduradun: Don Zezilio Agirre.

Onek erantzun oneik emon zitun eriotzari buruz bere parroki bietakoak eukezan oiturretaz.

Sepulturak etxearen zirala, baiña laster kenduko zirala, bankoak ipinteko asmoa egoalako. (1970 urteko erantzunak dira).

Sepulturatan ofrenda lez argizaria ipinten zala, bai eta limosna be. Illeta egunean erri osoak emoten ebala zerbait. Gero, urte buruan, etxeak eta lagunak.

Bateatu bakoentzat, sepultura, "linboa" esaten eutsen tokia zala, kanposantuaren alboan.

Sepulturetako argia: kandela luzeak kandeleroetan.

Illeta egunean bazkaririk ez zala egiten. Baiña ba egoala oitura bat, "karidadea" deitzen zana. Ogia ardaugaz izaten zala eta illeta-eleizkizuna amaitu ondoren, eleizpean jakin eragiten ebala auzokoren batek "karidadea" nun izango zan.

Illari laguntza egiten zala, gizonak aurretik eta emakumeak ondoren.

Nausia il ondoren, etxeko erleei eriotzaren barririk emoten ete zan? Onetaz don Zeziliok erantzun eban bere eleiztar bateri bein entzun eutsala baietz, eta oraindik bizi zala ori egin ebana.

Ze berbaz adierazoten ete jakoen erleei eriotza egon zala? Don Zezilio'ren esanetan, "ugazaba il da" esan eta erleari zinta baltza ipinten jakola.

Bat il ondoren, kuartuko leioa zabaltzen zala, arimeak urten egian. Txakurren intziri tristea eriotzako señaletzat artzen eban jendea ba egoala bere eleiztarren artean.

Eta abade arek geitu eban, "oraingo gazteak ez dakie olako konturik".

(Erantzun oneik EUSKALERRIA ETA ERIOTZA, A. Arrinda'ren liburutik artu eta aukeratuak izan dira. Liburu ori 1974 urtean argitaratu zan).

ARTXIBOAK

Ea'ko parroki, eta Natxitu eta Bedaronakoen barri emotean, esan gendun nun dagozan euretako artxiboak.

Esan bearreko da, parroki bakoitzean esku artean bear diran liburuak geratu zirala, Derio'ra eroan barik.

Orrela gaur emengo parroketan dagozan liburuak zeintzuk diran esango dogu:

EA.—San Juan Parrokian:

Jaiotzetakuak	1910 urtetik onartekuak.
Ezkonduak	1866 urtetik onartekuak.
Eriotzak	1923 urtetik onartekuak.
Sendotzak	1922 urtetik onartekuak.

EA.—Jesus'ko parrokian:

Jaiotzetakuak	1905 urtean asita.
Ezkontzak	1851 urtean asita.
Eriotzak	1932 urtean asita.
Sendotzak	1922 urtean asita.
Deiak	1908 urtean asita.

NATXITUA.—Parrokian:

Jaiotzeetakuak	1875'tik onakuak.
Ezkontzak	1807'tik onakuak.
Eriotzak	1910'tik onakuak.
Sendotzak	1800'tik onakuak.
Deiak	1900'tik onakuak.

BEDARONA.—Parrokia:

Jaiotzetakuak	1899'tik onakuak.
Ezkontzak	1852'tik onakuak.
Eriotzak	1950'tik onakuak.

EA.—Udaletxean.

Ea'n Udaletxea ipiñi zanetikuak, au da, 1983 urtetik aurrera-kuak.

EA.—Epai-auzitegian. Juzgaduan.

Emengo liburuak, bai jaitotza, ezkontza eta eriotzetakuak 1877 urtean asten dira. Ordutik ona, 48 liburuk osotzen dabe auzitegi onetako liburu zerrenda.

EA.—Aboitz-Lagun Etxea.

Oraindik ez dira berrogei urte Lagun Etxe au sortu zala Aboitz jaunaren ondasunekin, eta bertan dagozan liburuak oneik dira:


Lenengo araudiak	1951.
Araudietako aldakuntzak	1982-1984.
Eguneroko goraberek	1973 urtean asita.
Urteko ondorenak	1973 urtean asita.
Lagun Etxeako ondasunak	1976 urtean asita.

Gaur egoitz onetan 9 lagun dagoz eta Sortzez Garbi Alkar-teko monjak dira bertako arduradunak.





YON DEUNA PARROKIA



YON DEUNA PARROKIA



YON DEUNA IRUDIA




YESUS'KO PARROKIA




YESUS'KO PARROKIA



YESUS'KO ANDRA MARIA




NATXITUA. PARROKIA




NATXITUA. PARROKIA




NATXITUA. ANDRA MARIA




BEDARONA. PARROKIA




BEDARONA. PARROKIA




BEDARONA. PEDRO DEUNA



TALAKO ERMITA



TALAKO ERMITA



SANTA AGEDA ERMITA




SANTA AGEDA ERMITA




SAN BARTOLOME ERMITA




SAN BARTOLOME ERMITA




ETXE ANDIKO SANTUTXUA
1923 urtean barrizatua



EA'KO ILTEGIA



NATXITUA'KO ILTEGIA



BEDARONA'KO ILTEGIA



JAKINGARRI ETA KONTAKIZUN

1630-1638 urtetako goraberak

Aldi aretan, sarri egiten ziran erriz-errizko ikertaldiak, batez be erriaren eskubideak garbi zaintzen ete ziran edo ta alkateen nagikeriagaitik, edo ta merkatarien irabazi-egarriak mirrindu edo indargetuta ete eukezan ikusteko.

1638 urtean, Olaeta tar Txomin'en salaketa bat egoan bitartean, eta aren ondorenez, Begirale nagusia agertu zan inguru onetan, Abenduaren lenen egunetan.

Lenengo Ibaieta eta Etxaburu tar Madalena'ri deitu eutsan. Okiña zan, ogi egillea. Arek zin edo juramentu egin ondoren, autortu eban, Ea ibai aldeko errotetan, ioteko eskubidegaitik amasei libratik bat kentzen ebela, eta ori ondo ekiala, errota oneitan ioten ebenak ondo autortzen ebelako, eta ori garitan lez artotan be. Irurogei urte eukazan andre onek.

Gero Madalena Elexpuru'ri bere ziña artu ondoren, bere autortza egin eban eta onek be esan eban errotariak amasei libratik bat kentzen ebela.

Natxitua'ko alkatearen agerpena

Natxituan alkate bi aukeratzen ziran urtero. Kandelari egunez egiten zan aukeraketa ori. Urte onetan bat Juan Allona zan eta bestea San Juan Galdiz.

Oneik be zin egin eben, legeak agintzen eban eran, eta erantzun eben:

Euren ardurapean, Natxitua'ko eleiz-atean, errota bi egozala eta Ea'ko Urtubiagakoak zirala biak.

Aragitegia Mari Saenz Berganza'ren kontura egoala. Onek olioia eta ardaia be saltzen zitula, nai ta orretara beartua egon ez.

Aurrerago, tabernaren erremata artu ebala Santiago Garro'k eta bere kontura saldu eragin ebala ardaia baltza.

Zirujanu eta barberu bat dagola eta Maesse Martin Barandika zala.

Eta Allona'ko Juan zala jostuna, bai eta Frantzisko Artadi be.

Zapatari zeregiña Juan Sagarbarri'k eukala, baiña urte bi zirala orretan atsegiñik ez eukala.

Ogitegi bi egozala, bat Mari Etxebarriaren izenean eta beste Mari Alastra'ren izenean.

Eunle edo telari bi ezagutzen zitula: Katalin Rementeria eta Madalena Urtubiaga.

Erriko pixurik andiena Portuan egoala, Santxo Ortiz'en etxean.

Ostatu bat egoala.

Eta bestelako ardura artu bearrekorik ez ebela ezagutzen.

Orrela, banan-banan asi ziran ikustaldiak egiten, pixuetako gaitu-teknikoak lagunduta, esandako denda eta toki guztietan, eta batik ez eben aurkitu pixu edo neurrietan, edo euki bear ez ziran egazti eta abereetan, edo ta saldu bear ez zituen gauzetan edo akatsik ez eukanik.

Ikertu zituen errotak:

Ubillaga goikua. Mari Urigoitia zan bertako errotari. Baiña errota au Izpazter'eko lurraldetan egoan.

Ubillaga bekua. Mari Irasegi, bertako errotari.

Barrenengua. Mari Otxoa Etxebarria, errotari.

Oiarbe. Mari Oiarbe, Oiarbe etxeko krixadea zana, errotari

Izureta. Mari Izureta errotari.

Urtubiaga. Mari Goikoetxea errotari.

Hea'ko errota. Frantzisko Garro, errotari.

Erroten goraberan au gogoratu bear da.

1635 urteko auzian, Natxituako alkateari itandu eutsenean, arek esan eban Bedarona eta Natxitua bat eginda, bietan, bost errota egozala. Eta berak oneik izendatu zitun:

Ea,
Izureta,
Oiarbe,
Ubillaga,
Urtubiaga.

Eta orreïn gain beste izen oneik eta euren tokiak bereiztu zitun:

"...eta Ubillaga errota, Ereño'ko eleizatean dagona, Aboitz etxearena".

"...eta Ubillaga, Ereñokua, Martin Elgeta'rena.

"...eta Argin Beaskoa, Diego Olaberena. Errota au Errotabarrria be deitzen zan, eta Izpazter'eko lurretan egoan.

Beraz, nungoak ziran bereiztu ezkerro, goragoko zerrenda bat dator urte onetakoekaz.

Eta jakiña, zigorrak ipini zituen. Zigor gogorrak.

Alkateentzat lenengo. Ikertu zituen guztiei itandu eutsen ia alkaterik ezagutzen eben, eta ia iñoiz alkaterik izan ete zan euren lantegi, errota, jatetxe edo ogibideko tokirik ikertuten.

Biderik edo zubirik ikusi eta aztertu eta premiña eukerik konpondu ete eben.

Kontuan euki oiturazko zala alkateak urte bakoitzeko Maiazaren barruan bideen ikusketa egin eta konponketak egitea; eta kaltzadetan burdi eta narriarik ibiltzen lagaten ete eben. Eta bide-tako ibillera kaltetzen iñun zuaitz, adar edo ostoporik ezagutzen ete eben. Edo ta bakoitzaren ardurak amaitzean, urrengo ardura-dunei sasoiz eta garbi emoten eutsezan urteko kontuak eta eure-tako ondakiñak.

Bai eta jakin bear eben tabernetan dirurik jokutzen ete zan kartetan, bai eta tabernetatik kanpora errial bi baiño geiago jokatzen ebenen barri edo ezaupiderik ba ete eukerik.

Eta legetik kanpora alkartutakorik edo sasi ezkontzan baturiko iñor errian bizi ete zan.

Eta erbestean egiten ziran illeta batzuetara, senitartekotik kanpora iñor joaten zanik ba ete ekien.

Eta frutu arbolarik ebagi ete zan, edo ta erreketan arrantzan sarerik erabilten ete zan, edo karerik jaurtiten eben edo ta intxaur azalik.

Bardin jostun, zapatari, perratzaille, albaiteru, barberu, osalari eta kidekorik ba ete ebillen ortarako azterketarik egin barik, edo ta bear zan baimen barik.

1635 urtean, tabernei buruz esaten zan, ez egoala iñor taberna lez beartuta egoanik. Urteko ardua, Ea'n, eta bertako Portu etxean (Arrantzalioen Kofradian) saltzen zala bakarrik.

Bedarona'n

Urte aretan, Bedaronan, Domingo Agirre zan alkate.

Begiralea beragaz batu zanean, erantzun eban, urtero Kandelera egunean aukeratzen zala alkatea. Bat bakarra.

Bere agintzapean errota bi egozala, eta beste bat zerbait goratxuago, baiña a Izpazter'eko lurraldean egoala.

Bedarona'n ez egoala ez taberna, ez jatetxe, ez arategi, ez denda, ez ogi-egille, ez eunle edo euntzallerik (texedorerik), ez bestelako merkataririk, Domingo Jobaran deiturako zapatari bat izan ezik.

Zeintzuk izaten ziran salatariak?

1630 urtean, Franzisko Belasko zan salaketa izenpetzen ebana.

1635 urtean, Martin Allona.

1638 urtean, Txomin Olaeta.

Izenak orreik ziran, baiña eurak ete ziran egiz?

Arrigarria da, egiten ziran salaketak, ain zuzen be erri bakoitzean egozan bizi-bide guztien aurka egitea.

Lenengo, beti, erriko agintari edo alkatien aurka.

Auzi nausia: Euren zeregiña beteten ardurarik ez eukitea. Orra or bideak, errotak, dendariak, merkatariak... danak erriari kalte egiten.

Urte guztietan bardiñak dira. Eta beti, salaketa, osotasun baten egiña da, ez urte baten gai baten oiñarrituta eta urrengoan bestean. 1630-1639 bitarteko iru salaketak bardintsuak dira egi-tura, esaera eta asmoetan.

Ba dirudi begirale edo ispektorearen lana erraztuteko edo aitzakitzeke eta zela-ala zuritzeko gertuak dirala, eta bide batez zigorretan indar geiago eskatzeko.

Edozetara be, azaletik, laburtuta, ikusi daigun salaketa bat, konturatzeko zelan jokutzen eben salatariak.

1635 urtean, Martin Allona zan salatari.

"...acusso criminalmente a los fieles ("fielak" alkateak izaten ziran) que son y an sido... y a los demas vezinos y molineros, taberneros y otros oficiales".

Eta diño alkateak ez dabela urtero biderik ikusi ez euren konturik emon. Ez dabela biderik, ez zubirik konpondu, ez arririk eurentan zabaldu, ez burdi eta narriei kaltzadetan ibilten galerazo, ez kartetan jokutzen dabenen konturik artu, ez aurreko alkatiei euren denporatako kontu-errazoirik eskatu, ez pixurik begiratu, ez neurririk aztertu, ez errotarik ikertu, bertako neurriak zainduz, ez zer kentzen daben jakin, eta egazti, txarri eta antzekorik eurentan ibilten danik zaindu.

Ostatulariak ez dabe begirapenik euki, lapurren konturik artu be ez.

Eleizaldean zer esan ugari sortzen daben legetik kanpora alkartuta bizi diranen ardurarik ez dabe euki.

Orrez gaiñera baimen barik arbolak ebagiten dira eta erreke-tan arrantzan egin sareekaz, edo ta euterara karea jaurti edo in-txaar mozkiñak, arraiñen kaltez.

Eta senideak ez diranak be illetetara joaten dira erbestera. Eta erbestetik idiak ekarri izan dira eta alboetan saldu. Eta zapa-

tariak, narrugiña izan ezarren, berak bete dau zeregin ori. Eta arakiñak eta arrain saltzailleak pixu oker eta akatsdunak eukiten dabez. Eta era berean bestelako dendari eta abarrek. Eta ez dakie jostun, perratzaille, albeiteru, barberu, osalari eta abar orretarako gaitu eta baimenduak ete diran. Eta, azkenez, ainbat salaketa egin ondoren, zuzenketa zeatz eta gogorra eskatzen.

Goraberen iturria

Gorabera guzti oneik, Gernika'ko Batzar-Etxeko artxiboan dagozan agiri oneitan billatu leikez:

1630 urteko salaketa eta ondorengo ikerketeri buruzkoak, "Pleitos y autos tocantes al Muy Nible y Mui Leal Señorío de Vizcaya, que contiene 9 piezas desde Núm. 50 a 58" azalpidean dagoz.

1635 urtekoak, Registro 6-Pieza sola-N.º 59, "Autos y diligencias correspondientes a la vissita general hecha en el año 1635 de la Carnizerias, Abacerias, Molinos, Tabernas, Mesones, Tiendas y Pesos, así de Infanzonado como de las Villas del Señorío de Vizcaya".

1639 urtekoak, Registro 7 de Pleitos y Autos pertenecientes al Mui N. y Mui Leal Señorío de Vicaya, que contiene 3 piezas desde Nums. 60 a 62" deritxonean.



JAKINGARRIAK

Bedarutarrenak

1810 urtean, Bedarona'ko 33 etxeetako ordezkariak, erriaren aurrerako euren errenta eta irabazien agerpenak egin ebezan, batzuk zenbat errenta ordaintzen eben, besteak zenbat artzen eben, eta abar.

Agerpena egin eben ordezkariak, berrogei ta zazpi (47) izan ziran. Euretatik amazortzi (18) etxe jaubeak ziran, eta ogei ta bederatzi (29) etxeak errentan eukezanak. Esan bearreko da, errenteruak amabost etxetakoak zirala, etxe batzuk errenteru bi edo iru be ba eukezalako.

Agertu ziranetatik lau lagunek bakarrik ekien firmaten. Eta firmaten ez ekienen artean, bat erriko alkatea zan.

Ba ekienak, laurak, etxe jaubeak ziran.

Ara zaintzuk:

AZKUETA etxeko Manuel Bentura Zabala.

BIAZ JOJEASKOA'ko Pedro Lejarza.

GOROSTIAGA'ko Antonio Zarakondegi.

OIARBE'ko Antonio Endeiza.

Urte aretan, Bedarona'ko erriaren jaubetasuneko ziran ondatsunen artean, bat udaletxea zan eta bertan batzen zan erria batzarretan.

Beste etxe bat, bizitza-etxea, erriarena zan.

Irugarrena, erriko taberna zan.

Laugarrena, abade etxea.

Bedarona'k, bere ordainketetarako aiña diru, erriko tabernatik ataraten eban, ardau klaretea saltzen eban tabernatik. Askatasuna eukan tabernak aguardientea, koipea, bakallaua eta beste janariak saltzeko. Errematera ataraten zan tabernaren eskubidea eta batez-beste urtean 2.200 errial ordaintzen zitun.

Urte larriak ziran frantzetarren aldetik eskabide asko eta bear-izan asko ipinten zituelako, euren soldaduen gastuetarako illero bear zituen dirutzak osotzeko.

Orretarako erriak dirutza bat atarata eukan, urtetan ordainduaz kittutzeko asmotan.

Erriko gastu oiak milla ta bosteun errial inguru izaten ziran urteko.

Euretatik berreun errial idazkaria ordaintzeko eta beste milla ta irureun inguruko bideak konpontzeko.

Lau mendi eukazan erriak bereak: Arronategi, Bidepe, Biax-aurre eta Olabe aurre.

FOKAK BEDARONAN

1915 urtean agertu zan "Euskalerrriaren Alde" aldizkarian, 97-98 zenbakietako 63-64 orrialdetan.

Bertan esaten zana euskeratuta agertuko dogu.

Bedarona'n, irureun laguneko Bizkai'ko eleiz-atean, ango bizilagun baketsu eta langilleak euren esan-mesanak luzaro biztuteko aiñako gertaera baten lekuko izan dira. Baserri aretako bakean, eurentzako gauza arrigarria.

Bedarona'ko ondartzan lau foka agertu ziran eta euretariko bat arrapatua izan da. Bilbo'ko egunkari bateri egindako karta baten onelakuak esaten ziran:

Gertaera arrigarri batek eroan gaitu ainbat lagun, zer ikusiko, Ea'tik Bedaronara.

Uribe-bekuako Lorenzo Bereikua baserritarrak, ardiak zaintzen ebillala, goizeko amaikak inguruan ondartzara urreratu zan, Ogella'n. Ondar ertzean ibili ondoren lurrera joiala, ikusi eban abere izugarri bat beregana urreratu naiko itxuran, bere gain jar-kiteko eran. Aizkora bat erabillan, eta geiago pentsatu barik iru aizkorakada emon eutsazan buruan eta euretatik il.

Gero ikusi eban lengoaren antzeko beste iru urreratzen zira-la uretan, oin beteko urik ez egoan sakonaldi baten. Eta ikaratu egin zan. Bere esanetan, ikaratu ezik, danak ilgo zitun.

Emen sekula ikusi ezarren, oituraz beintzat emen olakorik gertaten ez dalako, bera ikustean danetakoak egon dira.

Irurogei ta lau (64) kilo pixatu dauz eta sudurraren puntatik atzeko ainken puntararte (buztana baiño luzeago geratzen dira ainka orrek), kana bi.

Emea da. Bere kolorea gris orizka, peka baltz eta illunekaz. Oraindik osorik dauke esandako baserrian, au da, oraindik narrurik kendu barik.

Negu guztietan gertaten ei dira onelako gauzak euskal ondartzatza batzutan, bertako arrantzale eta eiztariei diru asko emonaz, bai eta buruauste ugari be, egun luzetan or ibiltzen diralako ze motako arrain edo aberea dan ezin igarrita, nai ta eurak onelako sailkapenak eta izendegiak ondo gordeta euki.

Insignis piñuak kurtiñatzat, Bedarona'n

Bedarona auzo atsegiña da, Ea'tik asi eta iru kilometrotara dago. Bertan antxiña ermita zan Pedro deunaren eleizara eltzen gara eta inguruan pelota-toki, plaza txiki, jatetxe eta txalet garbi eta ondo zainduak ikusi.

Guzti ori Kantauri itxasoaren aurrekaldean dagon gaiñetxo baten, bertatik itxasoaren ikuspeirik sekula galdu barik, aurrean insignis piñua kurtiñatzat eukita.

Gordeleku ziuerra

Lengo gizaldian, urte guztiak ez ziran nasaiaik eta baketsuak izan eleiztarrentzat, eta batez be eleiz-gidarienzat.

Jesulagunak, jesuitak, euki zituen euren estutasun, burukomin eta larrialdi ugari.

Ez zan bakarrik eurak, bertako lagunak, konbentu eta ikastetxetatik banatuta kanpoan bizi-bearra, alkarren artu-emon barik, anaitasuneko bizitza galduta.

Ori mingarri zan, baiña Jesusen Konpañia, sortu zanetik, orrelako ekaitzetara oituta egoan.

Urteen urtetan batu, lortu edo artutako aberastasun asko, batez be eleizetako edergarri ziranak, kanpoan edo ta edozeiñen eskuetan geratzen ziran.

Eta jakiña da, orrelako estutasun baten, Bedarona izan zala toki ziurtzat jesuitak aukeratu eben lekua eta emen gorde zirala, baserri edo lurralde bedeinkatuen baten, Loiolakoen apaingarri eta eleiz-pitxi eta balio ugari.



Natxituarrak

Erromerira zaldiz

1666 urtean, eta san Gregorio egunean gertatutzat esaten da.

Natxitu inguruko etxe bateko andrea, bere moxai edo zaldi txiki gaiñean eldu zan ango eleiz ingurura, bere zaldi-zaindari ta guzti, erromeri antzean.

Eleiz ondoko zugaztian lotu eben bere moxal ori.

Prozesiñoia bertara urreratu zanean, ango otoiz eta kantuen zaratak zorabiatu eben zalditxoa, eta bere buruagaz arbola joten asi, askatu naian, eta bertan bera, ilda geratu zan.

Andrea konturatu zan erromerira joateko eginda eukan promesa, oiñez joatekoa zala, eta kezkatu eta naigabez bete zan eta bere promesa ori barrero bete nai izan eban, oraingo onetan oiñez.

Pasku kandela aidean

Oitura zan Bizkaian, eleiz ondoetako etxetxuetan, "beatak" deitzen ziranak bizitea.

Gaurko serora antzekuak ziran, baiña ermita edo eleiz inguruan biziteko promesa egiñak.

Bein, Natxituko orrelako serora bateri, aztu egin jakon Sagrarioko lanparatxoa biztutea. Eta eguna sortzerakoan, eleizara joatean, konturatu zan eleizan argi andia egoala.

Urreratu eta arrituta geratu zan ikusi ebanean lurretik kana erdi gorago, Pasku argiko kandela lodia aidean ebillala. Arritu zan, ez ekian zelan amatau, eta ladrillu zati bat artu ta jaurti eutsan.

Joan zan abadeari jakin eragiten, eta abadeak agirika egin eutsan, kandela aidean egoala berari esatera joan ez zalako. Eta origaitik ainbat bidar gaiztetsiten ei eban abadeak serorea.

Irailleko legortea

1700 urtean sikate gogorra egon zan Natxitun.

Iraillean bildur zan jendea, arto, gaztaiña eta sasoiko frutuak galduko ziran ez.

Anega garia eun errialetara igo zan eta garagarra ta artua irurogeira.

Ama Birgiñaren irudia atara eben eta errukiz eta arrenka soloetan erabili. Eta gau aretan, eta jarraiko egunetan, eurite bedeinkatuak egin zitun eta urteko uzta salbatuagaz, ugari batu ei eben.

(Kontu oneik Iturriza'k bere Historian esaten dabenez, Natxiko Parrokian gordeten zan liburu baten idatzita egozan, eta bertan izan ziran Maria Jazinta eta Antonia Adan de Yarza'k izenpetuta euken eta berak andik artu ei zitun).

Bertsolariak Natxituan

"Natxituan ere izan giñan: Basarri, Lasarte, Lizaso eta ni, lau bertsolari. Eta bostgarrena: Arrola zarra.

Bazkaltzeko denporan an zan ura ere; apaizaren etxean giñan bazkaltzen eta bertsolaria zan, ba, ura ere.

Magnetofonak orduan asi berriak ziran, ba, ta an egundoko esplikazioa egin zuan da bertso batzuk bota ere bai.

Aiek danak artuta, apaizak jarri zion magnetofonoa martxan, eta, ura Arrolak esan zituanak danak esaten asi zanean, jarri zan atentzioan, da berak len esan zituanak esaten ari zala akordatu zanean:

—Jesus, Maria Sabtisia! Ori nik esan ditutenak esaten ari da! Orrelako sorginkeririk ez degu ikusi oraindik!— esan zuan Arrazola zarrak arrituta.

Guk ere artean ez genduan askotan ikusi magnetofonik; arek beiñere ez, itxura danez.



Natxituan asi giñan eta Natxituara gatoz atzera. Ango apaiza, don Felipe izan bear du: Mendarokoa, estazioko jefearen anaia. Antxe zan jefea ere, gu izan giñanean, bere andrearekin. Ama ere baietz uste det, eta, aiek diran tokian, bada gizatasuna. Bi anaiak dira jatorrak. Gu ere alakoekin piska bat jatortu egiten gera".

(Uztapide'ren Lengo Egunak Gogoan" liburutik. II Tomoa. 174 eta 178 orrialdetan).

Bolatoki barria

1881 urtean, Martin Ergiaga alkate zala, natxitu'ko elexalden bolatoki bat bear zala ta orretarako bear ziran lanetarako erremata egitea pentsatu zan.

Baldintzak: Lanak zati bitan ordainduko ziran. Lenengoa, lanak amaitu ta bereala. Bigarren zatia, lanak amaitu eta urtebetara.

Bolatokiak 29 metro eukazan luzeran eta sei zabalean.

Pedro Leon Bidasolo'k artu eban lanen erremata.

Elexaldeko taberna errematean artzen ebanak, bolatokiagaitik beste 75 peseta geituten ebazan urteko bere errentan.

Eun urtetan ordaintzekotan

1860 urtean, okela saltzeko tokirik ez egoalako, Natxitua'k etxe bat erosi nai izan eban eta orretarako baimenak eta abar, expedientea egiten asi zan.

1861 urtean Kontxa Abaitua'k saltzeko eukan etxe bat erosi eban, erriko erdi aldean. Eta urte orretako Apirillean tratua egin zan, etxe ori amar milla errialetan ordaintzeko, baiña urtean 100 errial ordainduta. Beraz eun urte bear erriak etxea ordaintzen.

Saldu zan etxea Abaituena izenez ezagutzen zana izan zan.

(Udaletxeko liburutatik)

Natxitua'ko indiarrek

Ea'tik 4 kilometrotara dago Natxitua auzoa; bere ezaugarri Andra Mariaren Jaiokundeko parrokia dauka, eleizpe eder batek inguratuta.

XV garren gizaldian jaso zan, auzo au Udalerriko buru zala, eta orduan Ea bere auzo bat zan, edo arrantzalien bizileku.

Natxitu berba erderazko Natibitate'ren biurketa bat da.

Jatun eta tripazaien irizpidean, eta Euskalerrian orrelako asko dagoz, Natxituan batzen diran indiar gorriak, Bizkaian batzen diran gozoenak dira.

Bein Natxitura eldu ezkerero merezi dau ibilpidea bertako itxas adarrerarte luzatzea.

("ITSASOA" VI garren tomoa. Etor argitaldaria).

ANGELUTXU

Ea'tik asita
Natxituraiño
ez da ikusten besterik
aldatz gora baiño...

esan giñeike, Urkiolako bideari buruz San Antonio'ko erromesak esaten dabean antzera.

Baiña bidean or dago Angelutxu.

Nundik ete datorkio izen ori?

Euskeraz ba dago angelu berba, bedartoki edo soro erroi-bedar eta antzerakoak adierazteko. Or dago Etxebarrian. Esan bardintsuko or dago Ibarrangelun Angizola, bai eta Murelagan be.

Zeatz-zeatz ori danik ezin esan, baiña orrelako bat dana bai.

Alaz eta gu ez guaz bedardi edo solo edo ze motatako abere janari sortzen dan Angelutxun, tokiari izena emoten.

Angelutxuko gomuta on bat dogu. Iru-lau urte dira, ango gazteak bertako zarren ardura eta kezketan ezagutu zirala. Zarrak, Natxitura nai Ea'ra joateko ta biurtzeko, gorakoan edo berakoan, aldatza bitarteko. Eta gañera, nun obeto, etxe ondoan baiño, betiko ezagun, adiskide eta lagunuen artean baiño?


Eta alkartzeko toki kezkarik euki ez egien, borondatezko laguntzara gertu ziran ango gazteak, eta auzo lanean aterpe txukun eta egoki bat jaso eben, auzoaren erdi-inguruan, bertako agureak atseden orduak alkarregaz jokoan, kontu-kontari, irakurten edo ta tartetan atsegin izaten dan jatordutxo edo botillakua artzen, antxe aterpe alai eta epelean igaro al izateko.

Or dago gaur, Angelutxu, orretan beste tokiei eredia emonda.

Lana lengo gizaldiaren asieran

Ea'n dagon industri bakarra, Urtubiagako serra da. Urtean 200 kintal landuteagaitik, 800 errial emoten dautsaz Natxitua'ko udalari.

("Estadística territorial del Señorío de Vizcaya. 1814")



EA ORAIN IRUROGEI (60) URTE

1.320 bizi-lagun eukazan.

Oneik ziran urte aretako agintariak; au da, 1929 urtekoak:

Alkatea: Narziso Portela.

Idazkaria: Bitoriano Anzoraindia.

Epaikari: Franzisko Mendiola.

Fiskala: Gabriel Gonzalo.

Parrokuak: Klaudio Olazarri eta Elias Sasuategi, Ea'ko parrokietakuak.

Juan Banda-Ormaetxea, Bedaronakuan.

Agustin Urresti, Natxitua'kuan.

Abade laguntzaille: Pedro Ozerin.

Lle apaindegi (barberi) bi egozan: Bitor Bilbao eta Feliziano Gonzalo.

Kefetetxe bat: Jose Inazio Landa.

Ikatztegi bat: Migel Gonzalo.

Oiñetakoak: Eugenio Barainka.

Aragitegiak: Indalezio Uriarte.

Aroztegiak: Bruno Endeiza, Jose Mari Irazabal eta Julian Toña.

Jatetxeak: Juana Atxabal; Eufemia Ansuategi; Benedita Apraiz; Franziska Erkaraztegi; Manuela Irazabal; Bonifazio Juaristi; Jose Iñazio Landa; Pedra Laueneta; Modesto Lejardi; Hilarion Naberan; Juana Sasuategi; Sabina Tellería; Santiago Uriarte; Bizenta Zarakondegi eta Epifanio Zubieta.

Aleak: Manuela Irazabal eta Bonifazio Juaristi.

Otzaragilleak: Pedro Korta.

Etxegiña: Domingo Uria.

Botika: Jose Mari Andia.

Ferreteriak: Bernarda Garteiz.

Osagilleak: Jose Alegria, Ramon Ibinaga eta Gregorio Zarakondegi.

Eunak (telak) eta Kinkalla: Paula Alberdi eta Eladia Irusta.

Oiñetakoak: Pedro Barrenetxea, Gabriel Gonzalo eta Boni Juaristi.

Oarra: Arrigarri iruditzen da ainbeste jatetxe ikustea. Baiña ba dirudi janariak eukezan dendak be sail orretan sartuta dagozala.



Zutik: Jose Ant. Goitisolo, Bitoriano Anzoraindia. Jose Zarakondegi eta J. Ant. Zarakondegi.

Jezarrita: Claudio Olazarri, Eusebio Urtebe (Alkatea) Eliaz Sasoategi.



ORDULARIAK

Iru ordulari, iru erloju dagoz Ea'ko udalerrian.

Sekula ibilten ete dira batera?

Beti bakoitza bere bidetik.

Askotan Natxitua'tik urten lauretan Ea'rako eta Ea'n oraindik joteko.

Ziurren, jatorren eta errekaizeak ikutu barik ibilten dana, Bedarona'koa ei da.

Ain zuzen bera da iruretatik zarrena.

Pedro deunaren eleizan dagonak, 171 urte daukaz.

Beste biak, Ea eta Natxitukuak, urte batekuak dira, 1895 urtean egiñak, beraz oraindik eun urterako beste sei urtek daukezan aiña ordu jo bear.

Bedaronakua 1818 urtean ipinia da.

Juan Antonio Iparragirre, durangarra, izan zan bere egille. Berberak egiñak dira baita Ibarrangelua eta Ereño'n dagozanak.

Esfera bakarrekua da, mekanikua, landua, tren bi eta oskintza daukana.

Neurriak 109 x 64 x 98 zentimetro.

Ea eta Natxituakoak, Gasteiz'en egiñak dira, ordulariak egi-ten ospetsu izan zan Etxebazter aita semeak egiñak.








Ez dira neurrietan bardiñak.

Ea'kuak 114 x 70 x 100 zm. daukaz.

Natxituakuak 109 x 60 x 96 zm.

Biak esfera banakuak, mekaniku, landu, tren bidunak eta oskintzadunak.

Ea'ko esferak, erdi-erdian, Badiola-Guernica- ipinten dau. Bear ba da esfera barriztu bearra eukiko ebanen baten egingo ebalako.



AZUR-TOKIA

Norbait Ea'ko lurraldean egon leikezan kobaen billa asten danean, ezagutzen diranen artean iru toki txiki dagozala jakitera elduten da, irurak "Bizkaiko Baitzuloen Katalogoa" liburuan sartuta dagozanak.

Lapatxa I

Lapatxa II

Lapatxa III,

ezaugarriekaz datoz.

Lenengoak ipinten dau Lapatza deiturako tokian dagon Ea'ko itsas-adar edo itxas maldan dagola.

Bigarrenak diño, lenengoaren alboan dagola, eta irugarrenak, bigarrenaren egalean dagola.

Baiña Ea'n, itxas sarrerako eskumaldian, laugarren aldiko azurdunen azurtoki bat ezagutzen da.

Putzu estu bat da, goitik berako eten une baten onduan.

Dirudianez zaldien azurrak dira bertan batuta dagozanak, eta eurretan urte luzeetan itxasoaren joaldiak eta aitzen kimika erasoak euren eragiña lagata dauke, itxasertzeko lapa, txirla ta maskordunak be azur artean naastuten edo ta azurrei lotuta igarten dirala.

Azur toki au, aituak diñoenez, bere goialdean lengo denporetan egon eikean belardien bateko ondorena izan lei. Belardi aretan garbi ikusi eta ezagutzen ez zan zuloen bat egonaz, zaldi askorentzat eriotz obi gertatuko zalako zulo tranpa ori.

Gaur, olatuen indarrez, eten une bat egiña dauka bere aurrekaldean zulo edo potzu onek eta mare berakoetan sartu lei bertara.

Alaz eta ba dirudi azurrak, itxura baten oso egonarren, ikututen astean, austu egiten dirala.

Orañarte atara izan diran zatirik osoenak agin edo ortzak izan dira.



IBILTARIEN IKUSPEGIAK

Liburu baten onela agertzen da Ea:

Aitz muturrak ezagutzen diran puntak zeaztuten dabez Apikal, Larra eta beste irla txikitxoan bat, Ea'ko kolkora eldu baiñolen.

Uri burura sartu nai ezker, izen bereko mendi gain batetik jetxi bear da, ibarraren sakonerarte.

Itxasertzeko orma nausiak zainduaz eteten daben tokian, ortxe dago Ea, errekatxoaren albo banatako etxadietan jaso. Bertako etxeen iru erreskadak arku-eran landutako arlanduzko zubien bidez alkartuta dagoz edo ta beste oraintsuragoko egiturakaz.

Erreka au, itxasoratzean, eskumaldian, portu txiki bat ikusi gendun eta bere ezkerretara ondartza txikia.

Ea'ko kala, itxas giroa maite eben Ereño eta Natxituko base-rritarrak bizi lekutzat artu eben. Eleizate orreitako bizi-lagunak euren etxeak bata bestearen aurrez-aurre egin zituen, errekaen alde banatan, bakoitza bere mugaldetik urten barik.

Bizi-premiñak zubiak jaso eraso zituen, eta bizilagunen auzo talde baten alkartu bearra etorri zan.

Geroago Bedarona Natxitugaz alkartu zan, bertako bizilagun askok euren etxeak erreka onduan jaso zituelarik.

Kaitxikiak, portu txikiak, itxas barra estu eta arriskutsua dauka; ezin dau arrantzako ontzi talderik bertan euki, itxasertzeko motordun ontzi txikiak izan ezik.

Bertako bizi-lagunik geienak baserri edo lur lanetako bizitza darabille.

Itxas mareen goraberak, bertako errekan zearko sartu-urte-netan garbi lana egiten dabe, baiña bere ondartzan batzen diran ondardiak lan orreri oztopoak ipinten dautsez, eta bai portu txiki-ko sarrera itsututeko arriskuan ipiñi be.

(I. Sollube. "La Costa Vasca" 65-66 orrialdetan).

GURE DENPORETAKO IKUSPEGI BAT

Ibarrangelu eta Ispazter artean eskutaten da Ea. Bedarona eta Natxitua bere auzoekaz, guztira 845 bizilagun. 1910 urtean 1723 bizilagun eukazan. Beraz atzeraka.

Ea'ko udalak gizaldi bat pasautxu dauka bere izatean. Eleiz-ate batzuk alkartuaz sortu zan, eta arrantzale bizileku txiki bat zana, uriburu biurtu 1844 urtean.

Ea, izkuntzalarien ustez, erderazko juncal esaten dator.

1492 urteko agiri baten agertzen da deitura au.

Bai eta agirietan irakurri lei eatarrak atun, lebatz, sardiña eta besigu arrantzan ekiten eutsela.

1637 urtean, frantzetarrak Bizkaiaren aurka erasoaldien bat egingo ebelakoan, portuetan zaintzalleak ipiñi ziran. Ea'rako zortzi izentatu zituen, bakoitzari eguneko errial bi ordainduaz.

Urte batzuk geroago, indartu ziran toki oneik eta Aldundiak izentatu zitun barruko errietatik etozan gudariak joan bear ziran tokiak. Banaketa orreri esker, Bedarona, Kortezubi, Ereño eta Natxituko gizonak ziran Ea aldeztu bear ebenak.

Ea'ko portu txikia Argin errekatxo itxasoratzen dan tokian lekutzen da. Argin erreka, geienetan, Ea izenez ezagutzen da.

Kaiak ez dauka sonda andirik. Origaitik bertatik ibilten diran motor txikiak, mare gorakoan bakarrik sartu edo urten leikie.

Mare berakoan ondartzatza bat agertzen da bertan eta bertan ibilten dira jostari txikitxoak, euren amak molla gaiñean euzkia artzen irauten daben artean. Ba dira urteak arrantzarako txaloparik Ea'n ez dagola.

Ibai ondoko zulo baten, orain berrogetamarren bat urte, fosil-dutako azurren gordeleku bat aurkitu zan. Gaituak **equus caballus fossilis** laugarren aldiarokotzat artu eben.

Uriaren ardatza ibaia deitzen dan ur-bide txiki au da. Ibar biak zubi txiki ikusgarri biren bitartez alkartuak dagoz, eta beste oraintsuagokoekaz.

Zubiaren alde banatara Ea'ko kalerik nausienak ezagutzen dira: Ezker aldean Aritza kalea eta eskumaldian Kale barria. Biak, estuak, ondartzatza aldera eroaten gaitue.

Ea'ko kaleetan ibilten, etxeetako atadietan, arrian zulatuta edo margotuta, onelako izenak billatzen dira: Artabilla, Urtubia (1774 urtea), Bidegane, Abaitua, Zabala (1867 urtea), Etxe aundi, Mostonekua, Sagarbarri, Ezkerrenekoa, Arritzola...

Doniane eleiza, torre lautuduna da eta 1550 urtean egiña da. Irudi lez ikusgarriak dira Jon deunarena bere bildotsagaz, eta Sortzez Garbiarena, bai eta esku on batek egindako aldare nau-sia.

Erriko Etxea, edo udaletxea, klasikubarri tankerako etxea da. Bien artetik dua Gernika'rako bidea. Zubi ondoan, Ea'k beste eleiza bat dauka, Jesus'koa deitzen dana. Atarpe jatorra dauka, kanpaitorre barrokoa bere gaiñean dauala.

Uriak, estua izanarren, ba daukaz toki ikusgarriak bertara duazanentzat: Plai txiki bat, bere atzean pelota tokia daukala eta bere eskumatara oraintsu egiñiko kiroldegia, ibaiaren itxas-bide-ratzea, len aitatu dogun portu txikia, eta Beletxe etxea, nortasun andikoa, bere izenak adierazten daben lez, lengo denporetan arrantzalien txalopentzako belak gordeteko tokia zana. Oraintsu barrizatua izan da eta adiñekoentzako txoko lez erabiliko da.

Tala'rarte ibilten jarraitzea eskatzen dogu, Ea'ko talara igoaz. Platon'ek esaten ekian lez, goi areitarik Begiratzearen Adiskide biurtuko gara.

(ITSASOA. Etor argitaldaria. VI Tomoa. 91 orrialdean).



IBILTARI BATEN AITORMENA

Iltegi ondotik barriz ibilirik, Ea ta Bedarona'rako bide gurutzean aurkitzen dira, ezbaian nunbait, zein bideri egin ez dakiela. Eskumakoa artu ta or doaz itxas-gaiñ zear Bedarona'ra. Urbizkartxoan, baserriz jantzia daukagu erritxo au, oso dotore gero. Txalet barriak be ikusi zeinkez, leena ta oraiña zoragarriro ore-tuaz. Jainkoak egiña gizonak apaiñagotu nai: izadia eder da, giza-lanak txukundua, ederrago aurki.

Basetxe asko dauz erri onek, itxas-gaiñeko muna ta landa ertzetan zuri ta ameslari. Etxe mordo baten erdian eleizea, pelota lekua ta taberna bi. Bide ondo zainduak lzapzter, Ea ta itxas-aldera. Ez dauka ondartzarik, baiña bai lapa ta txirla toki ugaria. Zeazki: ur ta lur, erri atsegingarria.

Ea ta Natxitua

Arrixola erreka ondoan dago Ea, auzune ta parroki bi ditula. Erria erdibitzen dauan errekeak ez dakar ur asko; erdi-legor daukazu itxasberan, baiña itxasgoran, blei-blei egon oi da, itxasoa bera emoten daualarik. Leku jator, oi ez bezelakoa dozu Ea, solo, baratz, zugatz eta landaraz beterik. Ondartza txikia dauko: lurreko ta itxasoko ederrak besarkada samurrean alkartzen dirala esan daiteke.

Bertoko biztanleak, urte barruan, bi milla lez izango dira; udaldian, alan be, arrotz naikoa bertoratzen da, emengo aize ozkirri ta bakearen billa. Etxebarria jaunaren paper-fabrikeak naiko lan emoten dautso erriari. Baiña, orrez gaiñ, itxasgizon asko ekarri ditu Ea'k, kapitan, pilotu, bargizon, txo ta olakoak.

Sakon barreneko toki udatiarrari azken-begitua egiñik, aldatz gora doaz Txomintxo ta Itziar, bat bere nekatu barik. Zelai ta landaz esitua, or Aingerutxu, auzune begikoa. Etxe politak, itxasora begira edo itxas gaiñean! Eskuman zapal-zapala bat, teillatuak oz-ozta lurrari ikutzen dautsola: sortaldetik jagia. Neska-mutiko mosu-gorriak erdi-leloturik, bidazti bien jazkera ta tresnak ikusiaz.


Leku zoragarri! Etxe guztiak ia, eguzki begira, egutera dagoz, euskal etxe geienak egon oi diranez. Tontorrean naiz lauan naiz sakonean jasoak izan, aurreko aldea eguerdirantza begira eukiko dabe gure baserriak. Euskal asaben zentzuna! Ataria ta lo-gelak eguzkitara.

Bizkar baten dago Natxitua, itxas-gizon askoren kuma. Etxe mordo, enparantza txikia, erriko eleiza, eskola barriak... Erri atzean, pelota leku barria eskuman itxirik, bide barri bat doa beerrantz, itxas-aldeko baserrietara. Baiña Lapatza'ra batez be, an beean eta itxasgoran osorik urez estaltzen dan ondartzatxikira.

Emen beste bide bi, bata Gernika'ra doa Muruetagane'tik, bestea Ibarrangelu ta Elantxobe'ra. Eskumakoa artzen dabe gazteak. Laster, gaiñik-gaiñ, Ibarrangelu ezker itxirik, oker unetxu bat eskumara artu ta or Elantxobe itxas bazterra: laiño kadentsuz jantzia une edo tauki onetan.

Urratsez urrats beste pausu bat, eta bide bi aurrean: goitik doa bata, beste beetik. Beekotik doaz Txomintxo ta Itziar.

(A. Santi Onaindia. "LAMIAK")



IKUSPEGI ZARRAGUA

Ea, bizilekua. Natxituko eleiz-atean bere udaletxea. Bizkai'ko probintzia. Auzitegi nausia, Burgos'en, 37 leguatarara; Euskalerriko Kapitani orokorra, Gasteiz'en, 22 leguatarara; gotzaingoa, Kalagorri'n, 32 leguatarara; Markiña'ko epaikaitezaren menpeko (lau leguatarara).

Kantauri itxasoak sarrera bat egiten dauan lekuan dago, Matxaku Musturretik iru leguatarara, Bermeo'ko portutik bi ta erditara eta Bilbo'ko Ipar-Sorkaldean.

Barra txiki bat dauka eta txalopa txikientzako nasa. Giro ona, aize guztiak bertan jotzen dabela, eta sukarra batzeko arriskuz.

Plaza txiki bat eta lau kale osotzen dabezan 100 etxe daukaz, erreka baten egal banatarara. Ibai au itxasoan sartzerakuan dago bere izeneko kaia. Udal etxe bat dago, nai ta txarra; espetxea, eskabetxea egiteko kabana, 70 ume batzen diran eskola, 500 errialez saritua; eleiza bi, bat san Juan'ekua, Ibarrangelukoaren mendeko dana eta bestea Andra Mariarena, Ereño'ren menpekua; erririk laster dagon iltegia; itxas aitzen gaiñean eta Talai onduan dagon Sortzez Garbiaren ermita bat, eta Basabarri'n, uriburutik laster, metal urezko iturria.

Mugak: Iparraldera itxasoa; Sorkaldera Bedarona; Ego alde-ara Nabarniz eta Sarkaldera Ibarrangelua. Erdia, Aresti eta Allua izeneko mendiak daukaz, Ego aldera dagozanak, eta arta, gaztaiña, aritz eta abetxoz beteak. Nabarniz mendietan jaioten dan ibaia igaroten da bertatik eta alde banatarara zubi bi dagoz.

Bideak: Lekeitio'ra duan bidea eta Gernika'ra duana, laster amaitzeko dagoz.

Kartak martizen eta domeketan artzen dira, ortazko ardura-dunak Lekeitio'tik ekarrita.

Gari, arto, gaztain, patata, eta babak artzen dira bertan. Abelgorriak azten dira eta eper eta erbi eiza ugari dago. Arrantza ugari, batez be aingira, eskallu, atun, besigu eta lebatza.


Gintza: Urungintzako errota bi, bat erri barruan eta bestea erritik laster eta burdiñola bat dagoz bertan.

Bertako merkataritza arrain merkataritza da, bertako sei txalopak arrantzaten dabena eta batez be eskabetxean bialtzen dan atuna.

Bizilagunak: 148 auzokide, 756 arima.

Ba dira 60 edo 70 urte emen itxasontzi txikiak egiten zirala garraiotarako, baiña orain arrantzarako txalupak bakarrik egiten dira. Erritarrik geienak itxastarrak dira, eurotarik geienak Ameriketan edo Iparraldean igaroten dabez iru edo lau urte dirutza txiki bat batzen.

("Diccionario Geografico" MADDOZ. Tomo 7-1847 urtean).



LENGO GIZALDIKO IBILLALDIETAKO GOMUTAK

(Adolfo Agirre'k; "Excursiones y Recuerdos de hace un siglo" deitureagaz, ibillaldi batzuen oroitzak idatzi eta agertu zitun. Orreitariko bat "De Guernica a Plencia" deitzen zan, ondoren de "De Ea a Bermeo", bigarren zatitzat sartuta. Lenengo zatiaren amaiera bakarrik euskeratuko dogu, ain zuzen be Ea'ri ikututen dautsana eta bigarrena ia osorik. Lan oneik "La Gran Enciclopedia Vasca", XVIII garren tomoan, agertu ziran eta guk andik euskeratu).



Errepidea mendiarte baten bera dua; izan ete lei ikuspegi onen azkenean itxas-portu bat egotea? Itxas-aizea igarten da arboletako orrietan, bai eta gure bekokiak giroitzen be. Sakonean etxe batzuk agiri ziran. Ori ete Ea?

Oin batzuk aurrera eta ez egoan ezpairik: Ea'n gengoan. Eta bertako plazan, itargiaren izpiak jausten ziran ordu berean sartzeko aukera euki gendun. Kanpai torrean gabeko bederatzi ta erdiak ziran. Erria, ixil eta bakartadean, lo.

Talde bateko lagunari egin geuntsan bear gendun itauna; ostatura eroan genduzan zuzen; laster zabaldu eben atea eta tokia eskiñi.

Ea'tik Bermeo'ra

Napoles'era joan eta ango bai ederraren begirako ostatu-gela artzean, zain egoten da goizaldeagaz batera leioa zabaldu eta ibiltari bateri eskeiñi al leikian ikuspegi ederrenagaz atsegintzeko.

Ez zan ainbesteko nire garra, alpertzat salatzen genduezan eguzkiaren lenengo izpitan nire leioa zabaltzeko, baiña gogo bizi bat neukan jakiteko zelan izan eikean itxas portua, itxasoa ikusten ia gaitz dan leku au.

Ordu laurdengo ibillera bategaz zalantza au etenda geratu zan, denporatxu orretan erríko onena zala iruditzen zana ikusteko aukera euki nebalako.

Ea, Akademiak tokitzat artuarren, **uritzat** artzea egokiago dan au, auzo bik osotzen dabe, erreken albo banatan. Erreken bidean itxas mareak ze ikusi andia dauke, berakoetan ia arritsu eta legor lagaten dabelako eta mare-gorakoetan ibai itxura emon. Bere urak toki estu baten zear joanaz, itxasora urreratzean, errian dagon lekuko beso baten irudi geratzen dira, eta erria, bide nausiena alboan, mendi arteko baserri lez iruditzen da; eta beste ertzera eldu bear da, bere itxas kutsua artzera, an molla, ondartzeta eta azken baten aitzen estu-une batetik itxasoa ikusteko. Esan bearrik ez Ea'ren lekutzea, berezi eta ikusgarri dala.

Bere mollatik erribera bietan zear, alkarri begira illara bitan luzatzen diran etxeak ikusi ain garbi ta txukun; eta lekuari itxura berezia emoten dautsan zubi zarra, eta batez be itxas-laiño nagiak, eguzkiaren alaitasuna kenduaz sarratzen ez dabenean, toki a, zoragarri dala esan bear, inguruko uzta eta arboladiak atsegin berezi bat emoten dautsela.

Portu egaleko lurraldeko egoeran, an igarten dan belardi eta landarediak edertasun berezia emoten dautso; artoak ondar egaleraiño elduten dira; ia aitzak jotzen arbolak ikusten dira; baserri-tarren alboan arrantzalea igarten da eta berez banatuta egoten diranak izanarren, ikuspegi biak alkartu eta bateratu egiten dira an: orrela, itxasoaren edertasun itzala eta basoen ikuspegi irritsua batera ezagutuaz. Toki ona benetan, euren maastien kerizpean itxasoari begira pipa erreten orduetan egotea atsegin daben itxastar zarrentzako.

Diñuenez arriskutsua da porturako sarrera; ez zan ainbesteko izan niretzako, oiñez igaro nebalako bertako kai barrua; baiña ondartzan geratuta, txalopa bi ikusi nebazanean eta andik itxasora egoan plai luzea gogoratzean, ain Premiñazko ziran zalantzan ipinten ninduen molla-arriak, beste ezegaz konturatu barik, arrituta laga ninduan ararte eltzeko euki eben abillidadeak. Jakiña, ez nintzan itxas mareekaz konturatu. Or nire akatsa. Eta itxasoa dan lez portu au zabaldu eta itxiten dauana —nai ta au elantxobeta-rren irizpide maltsurra izan—, esaera da eatarrak ez dirala itxasoratzen bildurra daukelako barriko bertatik ezingo dirala biurtu. Gauza au da: egon zirala denporak, arrantzan ebiltzan txalupa ugari ezagutzen ziranak, eta orain osta-osta geratzen dala orretan dabillenen bat.

Ba dirudi orain beste "arrantzu" berezi bat egiten dala eta orrentzako amuskia aduanako trabak dirala. Batetik ezin danean...!

Ea'ri beste sarrerak emoten dautsez, baita be, udaldian itxas bañuak artzen datozenak.

Egia esateko, oraiñartekuak ez dira asko, baiña ondartzara daruan bidea obetzen danean, eta bertan igarizaleentzako txabola obeagoak ipini, eta itxas-zaleak erakarri leikezan egokitasunak ugarituaz, ez da jenderik faltako, batez be Jainkoak, tarterik tarte, alako emakume eder batzuk bialdu ezkeru, euren atsegiña bes-teen atsegin biurtuaz, eta euren guraria modatzako artu eragingo daben orreitariko bat bialtzen ba dautse.

Baiña ori lortu aurretik be bakartadea eta bakea billatzen dabeneztat aukerako egoera eskintzen dautse.

Onelako gertaerak ez dira beti atsegin gertaten, guk, aizeak erabilten eutsan buruko apaingarri bategaz bekokia estalduta erabillan neska bat ikustean igarri gendun lez. Aitzik-aitz saltari ebillan, itxasotik begirik galdu barik, itxas-ondoko gatz-uren lurruna guri be maitekiro arnastu eragiñaz.

Eskerrak zor dautsoz ondartzu apal onek, gizartea eta gaztedia euren edertasunak ezin erakutsita batzen diran tokiak itxita, bakartadeak deituta, maitederrak lez bertara etorri zalako eta bere atsegiña emon. Eta ibiltari ez-ezagun batek beragaitik erantzun bear ezkeru, emendixek joan bekio Ebro'ko erriberetara aiñako esker ona, olatuen eta aizeen zurrumurru artean ain atsegin jausten dan eskerra.

Itxastarren gogoko dan Doniane eleiza apaleko giro bakartia; oraindik andra batzuk euren liñua iruten daben eta emen gertuten daben eunlari zarrak, etxea eta goruaren gomutak gogoan erabiliñaz; antxiñako eskabetxea egiteko kabana zarra... gogoan eta buruan geratzen diran egoerak dira. Baiña oraindik ibili bearreko bide asko dogu eta eziñ giñei eurak ikusten edo ta eurekin jardunean geratu. Arto eta gari ugari batzen dira emengo toki ta soloetan; ondo landutako bertako lurak uzta ugariz beteten dira; mendiak ikatza, abereak euren onura, bakoitzaren etxean bake eta zuzentasuna; morroiak be atsegiñez beteten dabez etxe-jau-naren agindu ta gurariak; eta bertakoen alaitasun eta eskerrik onena, arretarik bizienaz ezi dabezan seme-alabak dira.

Onelako jendeak erriarentzako eredu eta ikasbide dira, eta bere ontasunaren alde ixillean egiten daben lanagaitik, euren maitasuna eskintzen dautse.

Itxura apaleko bere baserritik zear igarrotean, agur bat luzatu dautsagu, ontasunik ugariak opatuaz, eta gure mendietan Gaztañadiko Gartzia lako gizonen irudi biziak irauteak, atsegiñez beteten gaitu.

Erromeseri ostatua eta ogia emon bear jakoela erakusten dabenak, Natxituan erakutsi dauskue zelako esku zabal eta maitasunez agindu ori beteten dakien. Pozik jardungo nitzake Sokorriko gure Amaren eleizako kerizpean igaro neban ordu atsegiña erakusten, baiña biotzez eskartsu danari berezko lotsak ixiltasuna eskatuten dautso.



GASPAR PEÑA ETA GALDOTXA

Eatar au liburuetan irakurten dan gizona da, baiña bere buruz zeaztasun andirik ez dabe emoten.

Iturriza Kondaira egilleak diño: Ea'tarra. Bostgarren Karlos erregearen denporetan Sevillan idatzi eban "Hisotria General de la Gran Cantabria" deiturakua, baiña argitaratu barik geratu zan".

Juan Delmas'ek, bere "Historia Universal de Claros Varones de Vizcaya"n diño:

Ea'n jaioa eta lizenziatua. "Historia general de la Gran Çantabria" idatzi eban Sevillan. Beste idazle batzuk beratzaz jarduten ba dira be, ez dakigu z'ur zetaz jarduten dan, nai eta Iturrizak gain-gaiñetik esan errialde onen askatasunari buruz jarduten zala. Argitaratu barik geratu zan.

Ba daukagu beste istorigille bat be berari buruz jarduten: Eliseo Andres Mañarikua.

Onegandik au ataraten dogu:

PEÑA Y GALDOCHA.

"Crónicas de Vizcaya en el Siglo XVI" saillean, Gonzalo Arredondo'ren lanari buruzko irizpidea emon ondoren, eatar au aitatzean, diño:

"Gugana eldu ez dan lan bat, baiña geratzen diran zatietatik Arredondo'ren lanagaz kidetu leikena, Gaspar Peña eta Galdocha'rena da.

Iturriza'k diño eatarra zala gizon au eta Sevilla'n bizi. Bostgarren Karlos'en denporetan, "Historia General de la gran Cantabria" idatzi ebalá, baiña argitaratu barik geratu zala.

Iturriza berak liburu ori eskuetan erabili ba leu lez aitatzen dau, baiña ba dirudi lbargúen Cachupin'en bidez ezagutu ebalá.

Arredondo eta Peña Galdocha'ren geratutako ondorenak, gitxi dira euretzaz bata bestearen arteko zer-ikusi bat zeaztuteko, baiña ba dagoz alkar arteko bardintasun batzuk.

Bat esateko, asieratik esan daigun Bizkaia Kantabrian sartzea (onetan bizkaitarrak erromatarren kontura lortutako garaitza aitatzen da), pekatuaren ondoren dira izurriteak, eta Zenarruzako Asierak.

Idazle batzuk beste liburu bat be Peña eta Galdocha'rena dala uste dabe: "De la libertad de Vizcaya" deiturakua.

Ez dago biderik lengoagandik ez bardiña dala uste izateko".

(Historiografía de Vizcaya. (Desde Lope Garzia Salazar a Labayru) (A. Mañarikua).

SUGALAK (FOGERAK)

Antxinetan, orrelaxe zenbatuten zan errien anditasuna eta errien izatea: sugaletan, fogeretan.

Fogerak, bizitokiak ziran, baiña zenbatuteko eran ez beti bardin.

Fogera oso, erdika, irutik bat eta abar zenbatuten ziran, tartetan egiten ziran kontakizunetan.

Tellatupeak zenbat errenta emon, a izaten zan sarri etxe ori ainbeste fogeratakua zala esateko.

Ara, Natxitun 1796 urtean egin zan "fogeraziñoan", esaten zan fogera osokotzat artzen ebela 300 dukat edo ortik gorako errenta edo urteko mozkiña emon eikean etxea. Eta ainbestera eltzen ez zana, fogera erdikatzat edo laurdentzat.

Urte orretan, Natxitun, andi eta txikiak kontatuta, 106 etxe egozan, alaz eta 78 1/2 fogeratan sartu zan erri guztia. Ori erriko taberna kontuan euki barik, ez eta portuan arrain freskua artu ta eskabetxean biurtzeko gertuta egoan etxerik be. Eskabetxea egiteko etxe orrek, lantegi orrek, 1796 erriko kontuetan ikusten danez, urtean 784 errial emoten ebazan urtean berari egokion emonbeartzat.

Antxiñako fogeraziño zarretan ez da agertzen ez Natxitu ez Bedaronarik.

Ziurretik bata Ibarrangelukoan sartuko zan eta beste Ereñokuan.

Ala beintzat 1436 urtean egiñikuan, ez eta 1493 urtean egiñikuan be.

1685 urtean egindakuan, Bedarona 48 sugal edo fogeragaz agertzen da.

Eta "Natchitua y su puebla de Ea 83 1/2

Gero 1704 urtean egiña dator.

Urte orretan Bedarona 36 egaz agertzen da.

Natxitua 76.

1745 urtean, Bedarona 49'gaz.

Natxitua, Ea sartuta 91.

1796 urtean, Bedarona 42.

Natxitua eta Ea 106.

1799 urteko agerpenetan au esaten da: "Batzarrean batu ziranek esan eben, 1704 urtetik gaur arte, etxe bakar bat egin

zala eta orrela Bedarona'k 37 fogera bakarrik eukazala eta ez geiagorik".

Baiña, ikusten danez, zenbakiak ez datoz bat autorpe orre-gaz.

EA jan-edanetan

Ana Calera adiskideak, urte batzuk dirala, "Cocina Vasca" liburua egin eban. Jakiña, erri askotako berezitasunak agertzen dira liburu orretan.

Bizkaiari lotuta:

Nabarniz'en basa-arbi edo naboak agertzen ditu bertako janari tipiku lez.

Kanala'n txirlak.

Arrankudiaga'n, lukainkak (txorixuak)

Bilbo'n Isla'ko angulak.

Elantxobe'n txibi eta txangurruak.

Armintza'n langostak, otarrañak.

Lekeitio'n kabrak

Bermeo'n lebatz eta bonbixak.

Orduña'n zizak (perretxikuak).

Ondarroa'n, lupiñak.

Bakio eta Balmaseda'n, txakoliña.

Durango eta Barinaga'n, eskallu eta sarbo txikiak.

Zalla eta Gueñes'en, piperrak.

Getxo'n mutxilloiak.

Santurtzi'n sardiñak.

Gernika eta Berriz'en ortuariak.

Orreik dira Bizkaia'n agertzen ditunak.

Eta Ea'n? Bai, Ea be ba dator tartean. Ea'ko tipiku lez "begiandi" (begi andidun tximiñoiak) eta itxaskabrak (cabracho colorado) izentatuta datoz.

ESKABETXE EGILLEAK

Oiturazko zan itxas errietan, batez be errepiderik ez egoan tokietan, arraiñari bere balio emon eta salmantan lortzeko, Kofradiak eurak eukezan eskabetxe kabanetan egosi edo brixidutea, orrela arraiña galdu barik, saltzeko aukera egoanean, kanpora bialtzeko gertu eukiaz.

Gernikako Batzar Nagusietako paperen artean, Ea, Elantxobe, Bermeo, Lekeitio, Mundaka eta Ondarroa'ko Arrantzale Kofradiak egindako eskabidea dago, euretako eskabetxe egilleen izenean bialdua, eskabetxegiñan erabilten zan gatz, orio eta ozpiñei euren petxa (inpostua) kentzeko eskatzen. Eskabide orreri buruzko irizpidea emon eban Sustapen batzordeak, eta irizpide ori luzaro eztabaidatua izan zan Batzarrean. Azken baten eskabidea eta irizpidea Aldundira bialtzea erabagi zan, erakunde nausi orreri eskatuaz, komenien zana egiteko.

Eskabide au 1856 urtean egin zan.

Onetaz Agirre-Azkuenaga'ren "Vizcaya en el Siglo XIX" deiturako liburuan irakurten danez, errantzaten zan arraiñik geien kontserban ipinten ebenak Lekeitio, Ea-Natxitua eta Ondarroa ziran, eta ez euren gurariz, itxuraz freskoan urteera emoteko bide kaskarrak eukezalako baiño, arraiñak eskatzen dauan lastertasunez, Bizkai eta Gaztelaniara bialtzeko aukera eta egokitasunik ez eukelako baiño.

AGINTARIEI MENPETASUNA AGINTZEN

Lengo gizaldian, gerrate nai bake denporetan, noz nai ibilten ziran bateko ta bestekoak euren agintariei maitasuna agertu, menpetasuna eskiñi eta abar.

Onelako bat 1875 urtean ikusten dogu.

Bizkai'ko ordezkariarik geienak, Gernika'ko Batzarrean batuta, Karlos VII garrenari ezaupide, lotsa, eta maitasunezko menpetasuna agertu nai izan eutsen.

Natxitua'ko eleiz-atetik, Simon Oñaederra eta Antonio Zarakondegi izan ziran izenpetu eben ordezkariak.

Bedarona'tik Juan Agustin Goia eta Juan Bentura Iribar.

ZEINEK AGINDU BEAR?

1859 urtean, San Juan parroko atadia eta atze aldea, noiz jausiko edo ortako arriskuan egozala-ta, lan batzuk egin ziran.

Lanak amaitu eta orduan udalerriko alkate zana bereala asi zan etxerik etxe dirua eskatzen, bakoitzari oituraz jagokon eran.

Batzuk ordaintzen asi ziran; besteak asarretu. Ez ekian ez Aldundiak eta ez Eleizak ortarako baimena nok emon eban. Eta baimen barik egiñak ziran aitzakiz batzuk gora-goraka asi ziran.

Alkatea, urte aretan, Eugenio Kanbarro zan.

Beragana asarre joan ziranak, Jose Idoiaga, Pedro Ortuzar eta Diego Arribi, eatarrak.

Pleitoa egon zan, eta ango eleiztar batzuk esan eben eleizpea itxurotsu ez egoalako egin zirala lanak, eta ba ekiela Eleizak dirurik ez eukala orrelako lanak ordaintzeko.

1.006 errial kostatu ziran lanak, eta borondate oneko eleiztar areik pentsatu eben 1843 urtean erabagíta egoan lez, orduko araberan, danen artean txartelak banandutea.

Baiña batzuk ordaindu nai ezik asi ziranean, orduan berotu ziran besteak.

Len esandakoen gaiñera, Mikaela Barainka, Franciska Zarandona, Madalena Lete, Agustina Ortuzar, oneik alargunak, eta Manuela Mendiola, Juan Aldamizgo-jeaskoaren emaztea; Josefa Antonia Longa, Jabier Zabala'ren emaztea; Margarita Longa, Iñazio Abrusti'ren emaztea; Dominga Zabala, Eustakio Ormaetxearen emaztea; Maria Belen Gebara, Martin Foruriarena; Madalena Longa, Dominga Endeizarena eta Josefa Ikazuriaga, Pedro Aboitiz'en emaztea be urreratu ziran agintarien aurrera. Andra oneik esan eben euren gizonak itxasoan ebiltzalako, origaitik agertzen zirala eurak.

Azken baten ordaindu nai ez eben batzuk, etxeko tresnakin kittutu bear izan eben eurena. Ala Mikaela Barainkari, galdara bat kendu eutsen; Kombarro'ri etxeko jearleku (silla) bat eta abar.

ERREPIDEAK (BIDE BARRIAK)

Emeretzigarren gizaldian asi ziran Bizkaia'n barru aldeko errepideen luzera ta inguruak zabaldu nairik.

Egitasmu batzuk egin ziran.

Baiña zeñen kontura egiteko bide barriak?

Arielak gogoratu ziran, zergak, inpostuak.

Orretaz errialde bat eta bestekuak batzarrak egiten asi ziran. Inguru onetako batzarra Arteaga'n egin zan.

Zazpi lekutako ordezkariak batu ziran bertan: Arratzua, Arteaga, Bedarona, Elantxobe (Arrantzalien Kofradia), Ibarrange-lua, Kortezubi eta Natxitua.

Iñor ez egoan bideak egitearen aurka. Alaz eta zelan egin, or kaku. Ba dirudi emengoen artean txakoliñari ezarri nai zan ariela, zerga, izan zala eztabaidagarri.

Edozetara be uztaillean egiteko zan alkar ikustean eta alkar-riketan emengoen pentsabidea erakusteko, Jose Ramon Anitua eta Jose Mari Garramiola aukeratu ziran ordezkari.

Egin ziran egitasmu batzuk 1818 urteko Batzar Nagusietara eroan ziran. Batzar Nagusietan, egitasmuak ondo ikusiarren, lenengotasuna zeñeri emon eztabaidatu zan. Eta ara agertu ziran lau edo bost asmoetan, au izan zan aldunen ustez lenengotasuna bear ebana: Bermeo-Durango Errepidea, Elantxobe eta Ea'ra luzatuaz.

Bide batzuk egiten asi ziran.

1820/1830 bitartean Bermeo-Durango eta Bermeo-Bilbao eta Durango-Elorrio egin ziran.

1843 urtean asi ziran Lekeitio, Sopelana, eta Elantxobe-Ea aldekuak egiteko urteko aurre-kontuetan ortarako dirutzak izentatzen.

Urte orretako aurre-kontuan, Gernika-Ea-Elantxobe biderako, 20.000 errial izentatu ziran.

Bide ori 1846 urtean amaitu zan, bere 13,93 kilometrotan.

Bide au lenengo Aldundiak asi eban, gero erriak eta bestelako jendeak sartu ziran eta ipini eben dirua kittutu arte euren gain eroan eben bertatik igarobidekotzat kentzen ebena batzea.

Onetaz Joseba Agirreazkuenaga'ren "Bizkaiko Errepidegin-tza" liburuan au esaten da:

"Elantxobe-Ea errepidean, herrien gainean zegoen erantzukizun guztia. Akzionistak beste errepideetan baino gutxiago ziren. 1844'eko urtean Diputazioa arduratu zen errepidearen konponketaz. Gero 1846 ean itun berezi bat burutu zuten.

1852.eko Azilak 30 akzionisten eta udalen ordezkariak bildu ziren Diputazioan eta onartu zuten Diputazioa burutzen ari zen programa zentralizatzailea, ituneko mamia honetan zegoela:

Errepidea, Jaurerriko errepidean antolaketara sartuko zen.

Aurrerantzean igualak markatzen zituen arielak ordainduko zituzten. Diputazioa arduratuko zen diru eta asministralgo-ara-zoetan. Pundu hau beste errepideen itunen parean bereizgarria dugu beharbada akzionisten elkargoa botere haundi gabekoa zelako.

—Akzioen amortizatzea eman ondoren, Diputazioa izango zan errepidearen jabea.


Errepide honetan, nola pisu gehiena, herriek jasan zuten, errepidearen ardura utzi nahi zutela ematen du".


(Ontazko jakingarriak Bizkai Jaurerriko Artxibu Orokorrean dagoz, Reg. 18, Leg. 1 eta 11 gorde-ezaugarrietan).



Ba dirudi geroago 1877 urtean egon zala beste egitasmu bat Saturraran Bermeo-Lekeitio, Gernikatik zear.



Proiektu ori, egitasmu ori, Alcala de Henares'eko Erri-Ardularitzako Artxibu Orokorrean dago, Gobernuko Lendarakitzza sailleko 106 kutxan.



Saturraran'en politiku asko egoten ziran an Baiñu-etxeak egon ziranean. Orrelakoen artean sortutako asmo edo egitura ete zan azken au? Alaz eta kontuan eukita Bizkaiko errepidea, Gipuzkoatik sarrerakoa, Saturraran gaiñean asten dala, bidezko da an asten dan bideari deitura emotea, bidearen asierari ezau-garri garbi bat emonaz.



















PELOTA-TOKI BARRIA ZABALTZEA 1923 urtean.





EA ETA NGURUKO KANTAK

EA TA INGURUTAKO KANTAK

Gerardo'neko salan

Gerardo'neko salan
lustrie labana
txirrist einda jausi da
Anixeta laztana.

Mariñelenak

Pittu zarran semiak
Ea'n dabiz iru,
langostatan onenak
gaztenak urten du.

Jentiak esanarren
au edo bestia,
Joakin'en arrapatu
beti langostia.

Txalopatik urten da
laster Maitenera,
urrengo estaziñoia
Soziedadera.

Kafe-ur apurtxo bat
nok emon ba neko,
amabi Agur Mari
errezako nekoz

(Txinatar bategaz eskondutako
"mariñeru" batenak).

Karlistadetako kantak

(Don Francisco Idoyaga'renak ete zati oneik?)

Lekeitio'ko uritik
Señoriokutik,
juan dira zaldun asko
eta abade bi.

Iru karlista triste
Begoña ganian,
zazpi tiro emon dautsez
Kaballo ganian.

Jauregi paltsuaren lenengo papera
Españiako soldaduak bialtzeko Nortera.

Bosteun boluntario lengo egunean
Lekeitio'n sartu diraz buenamentean,
MINA de mi vida, LONGA de mi amor,
ANSOTEGI, CAMPILLOS de mi corazón.
(Beste batzuk:
DON GASPAR DE JAUREGI de mi corazón)

Peseta-biko kantak (Peseta bikoak Bilbo'ra joan ziran "boluntarixuak" ziran. soldadu foralak)

Tan parran pan tan
tan parran pan tan
Biar Bilbo'ra nua
tan parran pan tan
peseta bikotan.

Don Karlos'ek emon dau
errege berbea
gura dabela gorde
euskaldun legea.

Guk be emon dautsagu
gizonen berbea
bera bakarrik dala
gure erregea.

Zarakondegi'renak. Bedaru'ko sakristauarenak.
Nik ba dodaz kaltzerdiak
emazte gaiak emonak,
galtzerdiak txilindunak,
ebillak bere txanbeliñak,
oiñeetako apaingarriak
emazte gaiak emonak.

Azeriak olloa jan

Alegriak ba giñan ere
tristeza andiyak jo gaitu,
zazpi librako oillo zuri bat
azeriak jan dausku.
Urra labiru labiru labirulena,
urra ...
Neure maitea Katalin
artan egizu ats egin,
auzoan ibilliko txarri andiak
etxean urdai gitxi ein.

Zorria barrez

Oillaskotxua ariletan
oilloak uruna eralten, sagutxu txikiña yosten,
arratoetxua labratzen,
astoa tanboliña jotzen,
aren guztien artean bere
zorria barrez itoten.

Ardao zalienak

Ora nun dagon botea,
ardao klase onez betea,
guztiok aren zaleak gara
guztiok aren zaleak.
Orra nun dagon sokea
estu ebana botea.

EREÑOTARRENAK

Ezkondu nitzanean bost gona nituen,
bi prendan ipinita, bi saldu nituen
soiñean daukadana txit daukat zarra
barriak egiteko esperantza txarra.

Bizi oi nitzanean ugazabanean
txokolatea neukan gorderik koprean,
txokolate eta ala beste asko
gorderik oi nituen bear nebaneko

Azak eta borrajak orioz beterik
ezin jan nituen nitzala bakarrik.
Ezkondu eta gero, urtebete barik
porrusaldea neukan oriorik barik.

Ume bat sabelean, beste bat besoan,
gizona tabernan da artoa auzoan.
Iru ilinti ketsu suaren onduan,
arik datorrenean irurak lepuan.

Orrako gizon ori dot neure senarra,
sarritan ekarten deust begira negarra,
posible ba litzake posible eztana
laster salduko neuke nik neure senarra.

Itxastarrenak

Londres'en dot neuk senarra,
zirin bedarrak ekarten,
bera andik dan artean
gu emen dantza gaitean
Oi, au egia
daigun bira bi, Maria.

Neure mutiltxo txoria
ik esan eustan egia,
gaur gabean dantzauko zala
nire emazte Maria.
Oi, au egia,
iretzat mando zuria.

Beste au polita da.

Danok dakigu itxastarrak maitelari entzutea daukela. Eta portu bakoitzean... odolak berotzeko oiturea. Eta pekatariak, bestiekaitik txarto pentsaten dakie.

Bein, pilotu bat ia urte bitan kanpoan ibili ondoren, errira etortean, bere andrea zintzo ete ebillan jakitearren, fraille jantzita sartu zan, Argin erreka ondora.

Sasoi aretan emakumiak euren lixibak erreka ondoan egiten zituen. Eta prailea, erreka onduan agertuta, asi zan:

—Lixibatxu zuria dozu, andra gaztea

—Ondotxu egosita, aita prailea.

—Eskutxu zuria dozu andra gaztea.

—Guantepean erabilita, aita prailea

—Semerik edo badozu, andra gaztea?

—Semetxu bi daukadaz, aita prailea.

—Semeak nun dituzu, andra gaztea?

—Eskolak erakusten, aita prailea.

—Senarrik edo badozu, andra gaztea?

—Senarra biajean, aita prailea.

—Ezagutuko ete zenduke senar zurea?

—Lengo erropakin baletor bai, aita prailea.

—Laztan bat emongo neuskizu, andra gaztea,

—Erreka dago bitarte, aita prailea

—Berton ittoko altzara, andra gaztea.

—Berori txalupa dala, aita praillea

—Suak erreko al zaitu, andra gaztea

—Berori egurra dala aita praillea

—Agur, agur, agur, andra gaztea,

—Etzara urrun joango, aita prailea

Tabakuarenak (Europar gerrate ondorengiak. 14/18 gerrate ondorenekuak)

Tabakua etorten danian
erronomia dago errian,
gizon guztiak itxasuan
andra ta umiak estankuan.

Aeroplano bi

Aeroplano bi pasata
bat itxasora jausi,
ekarri,
mariñeruak ekarri,
mariñeruak
barran fondo emon eta
mariñeruak
barrakonduan itxi.

Goizeko sei ta erdietan
Asentsio burutsik,
Sabino,
ez eik eruan Sabino,
ez eik eruan Sabino,
bestela danok preso.

Urte barri

Urte barrikarri, txarri belarri,
daukanak eztaukanari,
nik eztaukat eta niri
niri emoten ez dostena
beti dabil larri.

Urte barri

Urte barri barri
txarri belarri,
daukanak eztaukanari
emon bear sarri.
Nik eztaukat eta
zuk emon neuri.
Ez pa nazu emoten
beti kaka larri.
Atxoak dauko

illetea sarri,
Agureak dauko
ardaua pozgarri.

TALA'KO AMARI

Talaiako Ama
samur maitea,
izan zaite gutzat
zeru bidea.

Talaiako Birgiña
la'ko erregiña,
yainkoaren Ama:
Zuregana datorren
erri oneri egin
abegi onena.

Eleiza onetara
igo eben asabak
Ama ikustera;
Gure amak onaxe
umetxotan ekarri
Zuri eskeintzera.



KANTAK

Santa Ageda-Ageda...

Santa Martiri maitea,
dago errukiz betea,
berak alkantza t'emon daizkula
osasuna ta bakea.

Santa Ageda Ageda
biar da santa Ageda,
Biar da santa Agedaeta
gaur aren bespera gaba.

Bedeinkatuba izan dedilla
etxe onetako jentia
pobre ta umilde dabizenentzat
badute borondatea.

Eder zeruan izarra
erreka aldian lizarra,
etxe onetako nagusi jaunak
urregorrizko bizarra.

Agur etxeko nagusi eta
txiki, zar eta gazteak,
Santa Ageda pasau egizu
osasun eta bakeaz.




EA'RI KANTUAK

"LA PAZ DE EA" (Mario Angel Marrodan, GUIA LIRICA DE VIZ-CAYA liburuan).

Desde que te ví tan bella
chiquita como tu nombre
ea, Ea,
soy feliz en esta paz,
con las voces del silencio
siempre el cósmico sosiego
como de cautividad.
Soy feliz en esta paz.

(Euskeratuta onela geratu lei:)
Zure izenaren antzera
ain txiki baiña eder
ikusten zaitudan Ea!
Zugan aurkitzen dot bakea,
ta bertan bizi naz zoriz betea.
Izadiak nai ta ezean
zugan dakarren bake berezian,
etenbako bakearen katean,
zoriontsu naz, zure zorionean.



AUZOAK ETA BASERRIAK

AUZOAK ETA ETXEAK

Ea'ko uriburua edo kalea esaten dana kenduta, gaur era onetan banatzen da bere etxe eta ezaugarriei buruz:

Aldebaster

Natxituaren iparraldean. Bertan dago itxas basterreko Lapatzeta eta abar.

Natxituko Elexalde

Goi aldean, 220 metrotara egiten da. Natxituko eleiz ingurua sartzen da bertan.

Olagorta

Erreketa errekaaren iparraldean. Banan-banango baserriak dagoz bertan.

Angelutxu

Ibarrangeluatik Ea'ra duan errepidearen inguruan anditzen edo ugaritzen datorren auzoa.

Allona

Uriburuaren egoaldean. Ementxe dago Ea'n armarrria daukan baserri bakarra.

Banakatuak

Ezin lei auzo danik be esan, bertako etxe batzuk galdu zira-lako eta osotasunik ez dagolako bertan.

Bedarona Elexalde

150 metrotara. Lengo Bedarona'ren auzo-burua.

Mendiola





Itxas gainean, toki aizetsu eta alaiean.

Urtza

Ipar-sorkaldean, auzorik zabalena eta luzeena.

Olabe

Baserri banatuak. Ementxe dago san Bartolome izeneko ermita zarra.





NATXITUA'KO ELEXALDE

ALDAY

1704 urteko erroltzean Juan Ramos Bakeriza agertzen da bertako jaube etabertan San Juan Sagarbarria bizi da. Fogera erdika lez ezagutzen da.

1745 urtean, jaubetasuna Antonio Bakeriza'ren izenean dago, eta Franziska Azketa bere emaztea bizi da.

1796 Zarakondegi da jaube, eta Juan Zameza bertan bizi. Urtean, errenta lez, 13 dukat ordaintzen zitun.

1989 urtean ALDAI BI agertzen dira.

ALDAI ETXEBARRIA—Jaubeak Horacio Borda eta Lidia Zamudio, senar emazteak, Jon semeagaz bizi dira bertan.

ALDAY ETXETXIKIA—Jaubea: Horacio Borda. Luís M. Santamaria eta Pili Gimenez eta euren alaba Leire bizi díra bertan, errenteru lez.

ETXEZARRA.—(Kurutze aurrekoa) Fieltxuena

1989 Utsik dago. Maria Jose Muniategi Mendiola'ren izenean dago jaubetasuna. Aste buruetan eta oporretan erabilten dabe.
5,5 hektarea.

KURTZIA

1989 Ez da ezagutzen. 1971 inguruan deseginda geratu zan.

LONGA edo ALDAI LONGAKUA

1704 urtean, LONGA lez agertzen zan. M. Miguel Longa jaube eta bertan bizi.

1745 urtean, Domingo Longa zan jaube eta bertan bizi.

1796 urtean, Joseph Zarakondegi zan jaube eta bertan bizi.

1989 urtean **ALDAI LONGAKUA** lez ezagutzen da. Utsik dago. Horacio Borda'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak.

Utsik dago. Agustin Aresti, artzaiñak erabilten dau ne-guan bere ardiekaz. 3 bei eta 140 ardi inguru erabilten dauz.

10 hektarea daukaz lurretan.

PLANTIENA

1989 Xabier Beaskoetxea eta Miren Monasterio ren izenean dago jaubetasuna, euren alaba Miren Begoña eta M. Argiñe'gaz bizi dira bertan.
2,5 hektarea lurretan.

PLAZA AURREKOA (GARTEIZ ALIRREKOA)

1989 Jesus Bilbao Intxausti agertzen da jaube lez eta bere emazte Josefina eta Bilbao-Iribar familiko bost seme-alaba bizi dira bertan, bai eta Andres Bilbao, Jesus'en aita alarguna.
Jesus'ena taberna lez ezagutzen da.
Hektarea bi lurretan.

SOLARTE

1704 ko erroltzean, Pedro Illunbe agertzen da jaube lez eta Juan Olagorta bertan bizi zan erreterua.
1745 urtean, Kutunegieta'ren ondorengoak ezagutzen dira jaube lez, eta Juan Rementeria bertan bizi.
1795 urtean, Juan Alberdi zan etxe jaube eta berbera bertan bizi.
1989 Etxe bizitza bi daukaz. Bietako jaube lez Guadalupe Aranburu ezagutzen da.
Etxe bizitza baten Iñaki Garai da erreterua eta Jabier Orue morroiagaz bizi da.
Zaldi Eskola dago bertan, CLUB HIPICO NATXITUA izenegaz.
3 zaldi eta 4 beor daukez.
Beste etxe bizitzan Gabriel Bilbao eta Maria Jesus Iribar bizi dira, eta Jon Bilbao semea, eurekaz batean.
Erreteruak dira.
9 hektarea lurretan.

ZULOAGA edo ta ZILUAGA

1704 urteko erroltzean, Zuluaga bi agertzen dira.
Bateko jaube Domingo Zuluaga zan eta bertan bizi.
Besteko jaube Julio Goitisoló, eta bertan bizi.

1745 ZILUAGA ATZEKUA

Izen onegaz agertzen da etxe bat.
Jaubea Juan Anduiza. Bertan bizi zan.

ZULUAGA AURREKOA

Beste etxea orrela agertzen da.

Jaubea Domingo Longa. Bertan bizi da eta bere aita be bai.

1795 **ZULUAGA ATZEKUA**

Etzeko zati baten Juan Martin Intxausti etzeko jaube berbera bizi da bere gurasoekaz. Eta beste zatian errenteru bi: Pedro Gaubeka eta Pedro Astegui. Gaubeka'k 36 dukat ordaintzen zitun errentatzako eta Astegia'k 3. Bien artean 39.

Martin Intxausti orrek bere kontura eukan baita be Ibarrangelu'ko bizilagun zan Juan Zobaran'en lurralde bat era dukat bi ordaintzen zitun beragaitik. Eta beste lurralde bat, au Ajangiz'ko Merzedetako Monjena zana, lau dukat ordaintzen eban.

ZULUAGA AURREKUA

Juan Ugarriza zan etxe onen jaube eta berbera bizi zan bertan.

1989 **ZULUAGA ATZEKUA**

Zati bitan banatuta dago. Bateko jaube Segundo Orbe da eta bere emazte M. Luisa eta euron alaba Karmen, Juan Luis Intxausti onen ezkontidea eta euron iru seme alaba bizi dira.

7 hektarea lurretan.

13 bei, 13 txal, asto bat, txarri bat eta abar daukez.

Ogia erreteko labea be ba dauke, baiña ez dabe erabilten.

Besteko jaube Guadalupe Aranburu da. Errenteruak bizi dira etxean: Benita Bizkarra, alarguna, bere seme Abel eta Benina emaztea eta onein alaba Amaia.

1989 **ZULUAGA AURREKUA (ETXETXIKIA)**

Utsik dago. Sotera Aranburu Basabe da jaubea.

4 hektarea lurretan.

1989 **ZULUAGA ETXEBARRIA. ERDIKUA**

Emiliano Aranburu eta Dominika Argintxona senar emazteak agertzen dira jaube lez.

11,5 hektarea lurretan.

3 bei, asto bat.

ALDEBASTER AUZOA

AGIRRE edo AGARRE

- 1704 Sebastian Natxitube agertzen da bertan biziten. Ez da esaten jaubea zan edo ez.
- 1745 Pedro Zubieta bizi zan bertan.
- 1796 urtean, Bermeotarra dan Lorenzo Aurrekoetxea, eza-gutzen da bertako jaube, eta bertan Juan Zarrikolea aita-sumeak bizi, 50 dukat ordaintzen ebela errentatzat.
- 1989 Utsik dago. Jaubeak Garate-Arrizabalaga aitzak.
10 Hektarea lurretan.
8 bei ta zortzi txal daukez.

ARTEETA edo ARTEAGA

- 1745 urtean ARTEAGA lez agertzen da. Franzisko Arteaga dala esaten da bertako jaube eta bertan bizi zan.
- 1796 urtean, ARTEAGAKUA lez agertzen da. Pedro Antonio Urresti, Gernikarra. Antonio Urresti'k eukan etxearen erdia usufrutuan, eta beste erdia Domingo Agirre errenteruak. Onek 15 dukat ordaintzen ekian urteko.
- 1989 urtean, utsik dago. Alizia Isasi Olaeta da jaubea.
10 Hektarea lurretan.
Ogia erretoko labea dauka.

BIZKOETXE

- 1989 Ba dirudi etxe au aurreko urteetan ESKOIKIZ BEASKOETXEA izenagaz ezagutzen zana dala.
Orain Cristobal Zenarruzabeitia eta Maria Isabel Bilbao eta euron seme Ramon bizi dira bertan. Jaubetasuna Maria Isabel Bilbao'ren izenean dago.
10 hektarea.
4 bei, txal bat, 15 ardi, oillo, koneju eta abar.

ESKOIZ edo ESKOIKIZ

- Deitura onetan etxe oneik bereiztu bearra dago:
ESKOIZ, ESKOIKIZ, BEASKOETXEA, ESKOIKIZ GOIKOA, ESKOIKIZ ERDIKOA eta ESKOIZKIZ ETXETXIKIA.

Erroztzetara joan ezkeru, nai ta batzutan zeaztutenain errez izan ez, gure ustez au da egin leiken bereizketa:

1704 urtean.—**ESKOIKIZ BEKOA.**—San Juan Eskoikiz zan jaube eta bertan bizi.

1704 urtean.—**ESKOIKIZ GOIKOA.**—Pedro Eskoiz zan jaube eta bertan bizi.

1704 urtean.—**ESKOIKIZ BEKOA.**—Franzisko Eskoikiz jaube ta bizi.

(Ikusten danez, urte onetan Bekoa deiturako etxe bi agertzen dira).

1745 urtean.—**ESKOIKIZ BEKOA.** Juan Bta Intxausti jaube ta bertan bizi.

1745 urtean.—**ESKOIKIZ BEASKOETXEA.** San Juan Eskoikiz jaube ta bertan bizi.

1745 urtean.— **ESKOIKIZ GOJEASKOA**—Iñazio Longa jaube ta bertan bizi.

1796 urtean.— **ESKOIKIZ BEASKOETXEA**— Jaube: Manuel Eskoikiz. Etxe erdian bera bizi zan eta beste erdian Santiago Mendiguren 30 dukat ordaintzen zitun errenta lez. Zortzi urtetik zortzira 50 ikatz karga emoten eutsezan mendiak eukazan.

1796 urtean.—**ESKOIKIZ GOIKOA.** Juan Intxausti zan jaube. Bertan bizi zan etxe erdian eta bestean bere ama Ana Lartitegi eukan usufrutuan eta Manu Zarakondegi bizi zan 40 dukat ordainduta.

1989 urtean.— **ESKOIZ GOXEASKOA.** Elena Arrizabalaga da jaubea. Alarguna. Jose Luis Agirre ta Ikerne Garate senar emazteak eta euron seme Sabin eta Joseba bizi dira.

7 hektarea lurretan.

1796 urtean.— **ESKOIKIZ ERDIKOA.** Pedro Longa bertako jaube.

1989 urtean.— **ESKOIZ (ESKOIKZ)** Kandido Intxausti da jaubea. Felix Naberan eta Beatriz Intxausti eta onein iru seme bizi dira bertan.

13 hektarea lurretan. 10 bei eta 8 txal aberetan.

1989 **ESKOIKIZ ETXETXIKIA, ESKOIKIZ ETXEBARRI.** Felisa Arrizabalaga ren izenean dago jaubetasuna.

3 hektarea lurretan.

GALDIZ

- 1704 urteko erroltzean Juan Otxoa Galdiz bizi zan bertan.
- 1745 urtean, Juan Goitia Galdiz.
- 1796'en Jose Badiola. Bere aitari dagokio etxearen usufrutu erdia. Beste erdian Antonio Goitia bizi da eta Badiola'ri 50 dukat ordaintzen urtean errenta orde.
- 1989 Etxe bizitza bikoa da.
Baten Bizente Zarraonaindia (jaubea) eta Begoña Garetxana, senar emazteak bizi dira.
16 hektarea lurretan.
Bigarren bizitza utsik dago. Fernanda Letamendi da jaubea.
15 hektarea lurretan.

GALDIZ ETXEBARFTI

- 1989 Felix Eizagirre'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak. Bere emazte Leonor eta euren seme alaba Luis, F. Jabier eta Pilar bizi dira bertan.
12 hektarea lurretan.
6 bei, 3 txal eta untziak (konejuak)
Sagardau egiteko tolarea ba dauke, baiña erabili ez.

GARAI

- 1704 urteko erroltzean Jose Mendiola agertzen da jaube lez eta Domingo Sagarbarria bertan bizi.
- 1745 urtean, Lekeitio'ko Konpaniako Aitak dira jaube eta Manuel Foruria bizi bertan.
- 1795 urtean, jaube lez erakunde berberak jarraitzen dau, eta erreteru lez Jose Longa txikia eta Manuel Gaztañaga agertzen dira. 25 dukat ordaintzen zituen errentatzat.
Zortzi urtetik zortzira amasei karga ikatz batzen dira bertan.
- 1989 Felix Baraiazarra eta Ines Iribar agertzen dira jaube lez eta Xabier semeagaz bertan bizi dira.
11 hektarea lurretan.
6 bei, 7 txal, asto, auntz, untzi (koneju) ta abar.

GARATEGANA

Izen onegaz ez da agertzen XVIII garren mendeko erroltzean ez eta geroago be.

- 1989 Augustin Etxaniz Garate da jaubea eta Leandro eta

Maria Dolores iru neba-arrebak bizi dira bertan.
3,5 hektarea.

bei bat, asto bi, txarri bat, untziak eta abar.

NATXITUBE

Izen onetan sartzten dira **NATXITUPE GOIKOA** edo **MUS-TURTXUKOA** eta **NATXITUPE BEKOA**.

NATXITUPE

1704'ko erroltzean, Sebastian Natxitube zan jaube eta berbera bertan bizi.

1745 urtean NATXITUPE BEKOA lez dator, Manu Natxitube zan jaube. Maria Rementerla, alarguna, bertan bizi.

1796 Juan Ant. Intxausti zan jaube. Juan Min Intxausti-erdi-koa bizi da bertan, usufrutuan, eta ez bere jaube zan Juan Antonio bere semea.

1989 Utsik.

Jaube lez Ramon Aranburu agertzen da.

6 hektarea.

Balkoe inguruan plakatxo bat dauka esaera onegaz: Natxitupe Bekua / Edificada por los Consorte D. Serapio de Arrizabalaga y D. Martina de Goitisolo en el año de 1887.

NATXITUPE GOIKOA

1745'ko erroltzean Juan Bta Foruria zan jaube eta Andres Goio bertan bizi.

1796 Juan Bta Natxitubegoikoa zan jaube. Domingo Lariz bertan bizi, urteko, 12 dukateko errenta eukan.

1989 Muniategi Urrutxua aitzak dira bertako jaube. Errenteru lez bizi dira Bernardo Gandarias eta M. Arantzazu Intxausti eta onein seme-alaba Juan, Luis, Arantzazu, Gorka, Kepa eta Iñaki.

6,5 hektarea.

10 bei, 13 txal, untzi eta abar.

SAGARBARRIA

Izen ori edo ta **SABARRI** bakarrik irakurten da.

1704 urteko erroltzean, Lazaro SAGARBARRIA zan jaube eta Mari Sagarbarria bertan bizi.

1745 urtean, Pedro Astegia bizi zan bertan eta bera zan jaube.

1796 urtean, Santiago Etxebarria, jaube.

1989 urtean, Bitoriano Bilbao da jaubea eta bere emaztea Aurora Gabilondo gaz bizi da bertan.

9 hektarea.

15 bei, 10 txal, beor bi, auntz bi ta abar.

Ogia erreteko labea dauka.

SABARRI ETXEBARRI

1989 urtean ez da ormarik be agertzen.

UGALDEA

1989 Utsik dago. Felix Naberan Ozamiz'en izenean dagoz jaubetasun agiriak.

1,3 hektarea.



ANGELUTXU AUZOA

ALDEKOA

- 1745 Herederos de Mln de Jauregi.—Martin Gametxo bizi bertan.
- 1796 Joseph Intxaurrondo jaubea. Bertan bizi da.
- 1989 Bernardo Bilbao eta Hilaria Iturbe dira jaubeak, eta euren seme Jose Luis eta Jabier'egaz bizi dira.
8,5 hektarea.
7 bei, txal, asto bat, auntza.

ALASTRA

- 1704 errotzean Juan Alastra zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Joseph Alastra jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean, Juan Alastra, jaubea eta bertan bizi.
- 1989 urtean Dolores Okamika, alarguna, Constantino Alastra, Juan Manuel Alastra eta Begoña Mintegia senar emazteak eta euren iru seme alaba bizi dira bertan.
Jaubetasuna Juan M. Alastra'ren izenean dago.
17 hektarea lurretan.
4 bei, 3 txal, asto bat...
Tolarea ba dauke, baiña erabili ez.

ANDUIZA ATZEKUA

- 1704 urtean Antonio del Puerto zan jaubea eta Juan Aste-gia bertan bizi.
- 1745 urtean, Katalina Portua jaube eta Antonio Zarakondegi bertan bizi.
- 1796 urtean, Ajangiz'eko Aranzibiatarrak ziran jaube. Erren-teru lez Manuel Longa bizi zan. 36 dukat eukazan errentan urtean eta anega bat eta erdi garitan.
- 1989 Utsik dago. Barriztutzen.
Jaubeak: Agustin Royo eta Florentino Arrizabalaga.
7,5 hektarea.

ANDUIZA AURREKUA

- 1704 urteko erroltzean Juan Bta Anduiza agertzen da jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, berbera jaube eta bizi be bai.
- 1796 urtean, Jaubetasuna Juan Bta Anduiza agertzen da eta erroltzean diño Bizkai'ko kartzelan preso dagola. Errenteru lez Manuel Mentxaka eta Franzisko Anduiza agertzen dira.
Etxea konkursora atarata egoan, salgai.
- 1989 Utsik dago.
10,3 hektarea.

ARETXONDO

- 1704 ko erroltzean Juan Bta Albiz agertzen da jaube eta Franzisko Urrea bertan bizi.
- 1745 urtean, Domingo Lejarza jaube lez eta bertan bizi.
- 1796 urtean, Franzisko Lejarza. Etxeko zati baten bere ama bizi zan, usufrutuan, eta bestean bera.
- 1989 Makario Oleaga eta Felisa Zelaia dira jaubeak eta euren seme alaba Luis Fernando eta Mariñe bizi dira.
8,5 hektarea.
Txal bi, zaldi bat.

BIDARTE

- 1745 urtean Franzisko Mendezona zan jaube eta Maria Asun Irustiaga bertan bizi.
- 1796 urtean Juan Agirre'ren izenean egoan jaubetasuna.
- 1989 urtean, utsik dago.
Jaubea, Tiburzia Ibarzabal Ganboa da.

EGIKOA

- 1796 urtean, Arteaga'ko bizilagun zan Jose Dgo Idoiaga agertzen da jaube lez eta Juan Alastra, txikia, bertan bizi, 12 dukateko errentagaz.
- 1989 Utsik dago.
Jaubea: Angel Uribarri.

INSAUSTI BEAZKOA. Bai eta BIZKUA BEKUA

- 1704 urteko erroltzean Insausti de abajo, esaten da. Juan Insausti jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Insausti bekoa.
Maria Bidaurreta, alarguna, jaube eta bertan bizi.
- 1989 Utsik dago.
Angeí Uribarriren izenean dago jaubetasuna.

INSAUSTI ERDIKUA

- 1704 urtean Maria Galdiz agertzen da jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean Min de Insausti jaube eta bertan bizi.

INSAUSTI GOIKOA

- 1704 urtean, Madalena Mendezona zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Min de Ugarriza jaube eta bertan bizi, bere aitagiñarrebagaz.
- 1989 Benita Barrenetxea Aldape, alarguna, eta Lorenzo Eizagirre ta Garbíñe Silloniz, senar emazteak, euren seme alaba Kepa eta Iratxegaz bizi dira bertan.
Jaubetasuna Lorenzo eta Garbiñe'ren izenean dago.
4 hektarea.
4 bei, 6 txal, asto bat, auntz bat...

INSAUSTI ATZEKUA

- 1745 urteko erroltzean izen onetako etxe bat agertzen da eta esaten da Lekeitio'ko Jesus'en Lagundikoak dirala bertako jaube. Franzisko Ibiñaga'ren alarguna bizi zan erreteru lez.

IRIBAR ETXEBARRI edo ta ERDIKO ETXE

- 1704 urtean, "Casa nueva de Etxebarri" esaten da, jaubea Erkizaiz, eta bertan bizi.
- 1989 urtean Lau-etxe bizitzatan banatzen da.
Etxe guztiko jaubeak Gabriel Natxiondo eta Franziska Fundazuri dira, eta euren seme alaba Franzisko, Luis Mari eta Nati bizi dira, zati baten.
250 untzi edo koneju daukez.
2 eta 3 zatiak utsik dagoz.
4 zatian Maria Iribar bizi da, erreteru lez.

GOIKONEKOA, edo ta GOIKOA eta GOIENEKOA

- 1796 urtean, Josefa Lezeartua zan jaube eta Juan Akordagoitia, erreteru, urteko 12 dukaten errentagaz.
- 1989 urtean, utsik dago.
10 hektarea lurretan.
Jaubeak, Galdizarrak dira.

GOITISOLO

- 1704 urtean, Juan Bidaurreta zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Maria Ipinza Galdiz, alarguna. Bertan bizi zan eta baita Jose Bermeosolo, erreteru lez.
- 1796 urtean, Juan Bengoa agertzen da jaube lez. Bertan bizi da eta erreteru bat beragaz, eta bien artean 56 dukat ordaintzen dabe errenta lez erdiz banan, eta diru ori Juan Bengoa'ren zordunei emoten dautse, etxea konkursora atara zanean erabagi eben lez.
- 1989 Etxe bizitza bi. Bien jaubea Eusebia Landa da eta bere alaba Miren'egaz bizi da, zati baten.
10 Hektarea lurretan.
Beste bizitza utsik dago.

GOITIA

- 1704 urteko erroltzean, Franzisko Goitia agertzen da jaube lez eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Juan Goitia, erriko alkatea, zan jaube eta bertan bizi zan amagaz.
- 1796 urtean, Juan Martin Insausti, zan jaube, oraindik adin gitxiko. Bertan bizi zan zati baten, bai eta bestean be, baiña bere aitagiñarreba usufrutuduna zan lez, erdi-gaitik areri 18 dukat ordaintzen eutsazan urtero. Orrez gaiñera Lekeitio'ko seme zan Domingo Goikoetxearen solo bat berak erabilten eban, urtean iru dukat ordainduta, bai eta Nabarniz'eko seme zan Urigoitiren beste solo bat eta areri dukat bi ordaintzen eutsazan urtean.
- 1976 urtean erre egin zan. Gaur orma batzuk geratzen dira. Jaubetasuna Gregorio Obieta'ren izenean dago.
4 hektarea.

IRUSTIAGA ALDEKUA

- 1704 urtean, Min Aldekoa zan jaube eta bertan bizi.
- 1989 Etxe bizitza bi.
- 1.—Hilario Iza eta Maria Okamika jabeak euren seme Jabier'egaz bizi dira.
11 hektarea.
5 bei, 2 txal.
 - 2.—Miren Tere Garatea eta bere aita Eulogio dira jaubeak eta Mari Dolores alabea bizi da eurekaz.
11 hektarea.
4 bei, 6 txal.

JAUREGI

- 1745 Maria Iriguen zan bertako jaube eta Maria Erkizaiz bertan bizi.
- 1796 urtean, Dgo Antonio Kortazar zan jaube eta Antonio Longa bizi, amar dukat ordaintzen urtero errentatzat.
- 1989 Deseginda geratu zan, eta gaur ez dago bere ezaupiderik.

KALE

- 1704 urteko erroltzetan iru etxe agertzen ziran KALE izenekoak baiña itxuraz etxe txikiak.
- Baten Maria Ondaro bizi zan, jaubea bera, eta fogera erdikatzat artzen eben.
- Beste baten Juan Ramon Bakeriza zan jaube eta Juan Madariaga bertan bizi. Au oraindik txikiagoa zan, Vs fogera lez egoalako.
- Irugarrenean Ageda Kale bizi zan eta jaube be bera. Au be $\frac{1}{3}$ fogerakoa zan.

KALE AURREKOA

- 1745 urtean agertzen da deitura au. Madalena Sagarbarria zan jaube eta bizi be bertan.
- 1795 urtean, Jose Longa jaube eta bertan bizi.
- 1989 urtean Julian Garamendi da jaube. Utsik dago.
6 hektarea lurretan.

KALE ATZEKOA

- 1745 urtean agertzen da deitura au. Iñazia Etxarri, alarguna, zan jaube eta bertan bizi zan.
- 1795 urtean, Juan Erkiaga agertzen da jaube lez eta Domingo Legarra bertan bizi, 20 dukat errenta ordainduta.
- 1989 urtean, Juan Erkiaga eta Maria Derteano dira jaubeak eta eurekin bizi dira bertan lau seme alaba.
10 Hektarea.
6 bei, 6 txal, asto bat.

MADARIAGA

- 1704 urtean, Franzisko Garro'ren ondorengoak ziran jaube eta San Juan Madariaga bizi zan bertan.
- 1745 urtean, Min Madariaga zan jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean, Juan Lazurika jaube eta bertan bizi.
- 1989 Petra Barrenkua, alarguna, Donato Garetxana eta Tomasa Korta, senar emazteak eta euren seme Jose Mari bizi dira bertan.
Eskriturak Donata Garetxana'ren izenean dagoz.
8 hektarea.
6 bei, 4 txal, asto bat, txarri, auntz...

URIZAR

- 1704 urteko erroltzean Tomas Urizar zan jaube eta bertan bizi zan.
- 1745 urtekoan, Manuel Urizar, alarguna agertzen da jaube ta bertan biziten.
- 1796 urtean, Franzisko Garteiz Etxebarria.
- 1989 Barrizatzen diardue.
Pio Alzola Bermeosolo da jaubea.
10 Hektarea.
4 bei, 5 txal.

URIZAR ETXEBARRI

- 1962 urtean egiña da. Pio Alzola eta Celestina Gabikagojeaskoa, senar emazteak, dira bertako jaubeak.

URTIAGA

- 1704 urtean, jaube lez Juan Urtiaga agertzen da. Bertan bizi zan.
- 1796 urtean, Martin Bollar zan jaube.
Etxea eta Errota, esaten da paperetan.
Jaubea bera bizi zan etxe erdian eta bestean Agustin Galdiz, erreteru lez, urteko 18 dukat ordainduta.
Errotea, irakurten da, geldi dago eta ez dau ezelako irabazirik emoten.
- 1989 Eloisa Obieta, alarguna, eta Elena Azpiri eta Santos Urkijo senar emazteak eta Sira Urkijo, alaba, bizi dira.
Jaube lez Elena eta Mertxe Azpiri agertzen dira.
7,5 hektarea.
Bei bat, iru txal.

ZAUNDEGI edo ZARANDEGI

- 1704 urtean, Min Zaundegi zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Maria Lejarza zan jaube eta bertan bizi.
- 1795 urtean, Maria Zuloaga, alarguna, zan jaube eta bertan bizi.
- 1989 ZARANDEGI irakurten da etxe-aurreko orman.
Utsik dago.
Jaubea, Jose Dgo Landabaso.
0,5 hektarea.

ZELAETA

ZELAETA izeneko etxe bi dagoz. BEKUA ETA GOIKUA.

BEKUA

- 1704 ko erroltzean Andres Ortiz del Puerto'ren anaiena lez agertzen da jaubetasuna. Era konkursora atara egoan, salgai.
- 1745 urtean, Lekeitio'ko Monjen Konbenturarena zan, eta Juan Alberdi bizi zan bertan.
- 1796 urtean, Franzisko Urteaga zan jaube. Bera bizi zan etxe erdian eta bestean Juan Laka. Onek 28 dukat ordaintzen zitun urtean.

Daukazan mendiak, zortzi urtetik zortzi urtera, eun burkada ikatz emoten zituen.

Ba eukazan baita garia ereiteko solo bat eta gaztañadi bat.

Monjenak ziran biak eta Juan Laka'k erabilten zitun, urtean zortzi dukat errenta ordainduta.

1989 Migel Atxurra da jaubea.

Julian Ipiña eta Rosario Basterretxea bizi dira bertan euren seme Salvador eta Moises'egaz.

9 hektarea lurretan.

5 bei, 8 txal, txarri bi, 4 auntz.

ZELAETA GOIKUA

1704 urtean Min Foruria zan jaubea eta Jose Allona bertan bizi.

1745 urtean, Jose Domingo Uriarte, abadea, jaubea eta bertan bizi.

1796 urtean, M. Eiguren jaube eta bertan bizi.

1989 urtean, Jaube lez Urrutxua aitzak agertzen dira.

Narziso eta Luzio Monasterio bizi dira erreteru lez.



OLAGORTA AUZOA

ASTEGIA

- 1704 urteko erroltzan Min de Astegia agertzen zan jaube lez eta bertan bizi zan.
- 1745 urtean, Min Ortuzar. Bertan bizi zan zati baten, eta bestean Jose Ugalde, eta 36 dukat ordaintzen zitun urtean errentatzat.
Zortzi urtetik zortzi urtera 60 burkada ikatz emoten zituen mendiak eukazan.
- 1989 Jose Gorroño da jaubea eta bere emazte Mercedes eta Mikel eta Jon seme-alabekaz bizi da. Bai eta Imakulada Zuazua, otseiña be.
17 hektarea.
90 bei eta zaldi bat.
"ASTEI ESNEA" gertu eta saltzen dabe.
Etxe au egoki barriztatua agertzen da, bere egitura eta gaiki jatorrak ondo zainduak izan dirala

BEREZIA

- 1704 ko erroltzetan bertako jaube lez Maria Jordana Berezia agertzen da, bai eta bertan bizi zala be.
- 1745 urtean, jaubetasuna Franzisko Berezia da.
- 1795 urtean, etxe au konkursora atarata egoan, **Berezia andi** lez irakurten da.
- 1796 ko paperetan Berezitxu'ko etxetxua be irakurten da, eta Arteaga'ko Jose Domingo Idoiaga zan bertako jaube Etxe txikia izanarren 21 dukat ordaintzen zitun urtean errentan eukanak.
- 1989 Utsik dago.
Santiago Mayner eta Amaya Eiguren senar emazteena da.
14 hektarea.
5 bei eta 7 beor daukez.

ERKIAGA'KO ETXEBARRI

XVIII garren urteko erroltzetan ez da agertzen. Bertakoak uste dabe 113 urte daukazala, beraz 1876 urte inguruan egifa, orrela izan ezkeru. Klara Ormaetxea da jaubea.
5 hektarea daukaz.

Tolarea dauka, sagardau eta txakoliña egiteko. Erabili ez.

ERKIZAIZ BEKUA

- 1704 urteko errolltzan esaten da Domingo Urresti zala jaube, eta iñor ez zala bertan bizl.
- 1745 urtean, Joseph Aiarza zan jaube eta Martin Landa bertan bizi.
- 1796 urtean, Adan de Yarza'rena da. Errenteru lez Mendizuri edo Mundazuri deitzen zaneko bat. 24 dukat urtean ordaintzen. Mendi bat eukan eta zazpi urtetik zazpi urtera 50 ikatz burkada lortzen zitun bertatik.
- 1989 urtean, Juan Llaseras da jaubea. Kandido eta Jose Garate, aita semeak bizi dira bertan. 9 hektarea.
Bei bi, asto bat, oillo ta untziak.

ERKIZAIZ GOIKUA

- 1704 Juan Erkizaiz zan jaube eta bertan bizi:
- 1745 urtean Lekeitio'ko Jesuiten Kolegiokoa zan.
- 1795 urtean, jaubetasun berberak jarraitzen eban eta Pedro Foruria zan bertan bizi zana, errenta lez urtean 33 dukat ordainduaz.
Mendi onak eukazan bere jaubetasuneko. Bederatzi urtetik bederatzira, eun eta ogei burkada ikatz emoten zituenak.
- 1989 Galduta dago.
Jaubetasuna Florenzio Erezuma'k dauka. Amar urte inguru dira baserri au beratu ebela.

ETXABURUETA edo ta ETXAORUETA

- 1704** ko errolltzean, jaube lez agertzen dana Juan Etxaoruetan zan: Bertan bizi zan.
- 1745** urtean, Manu Astegia jaube eta bertan bizi.
- 1796** urtean, Bermeo'ko Joakin Uriarte'k eukan jaubetasuna. Maria Landa eta Benito Longa errenteruak eukazan bertan eta bien artean **50** dukat ordaintzen zituen errentatzat.
Mendi aberatsen jaube, zazpi urtetik zazpi urtera eun eta berrogetamar burkada ikatz emoten eutsezan.

1989 Etxe bizitza bi.

Baten Bakarne Azurmendi'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak eta bere senar eta lau seme-alaba bizi dira, eta osaba bat.

8 hektarea.

50 ardi daukez, aari bi eta untxiak.

Beste etxean Santiago Azurmendi eta Balentina Salte-rain bizi dira. Senar emazteak dira eta eurak dira etxe jaubeak.

7 hektarea.

LANDAKUA

1989 urtean, Manu Erkiaga da jaubea. Juanita eta Juan Anton seme alabekaz bizi da. Alarguna da.

9 hektarea.

5 bei, 4 txal, asto bat eta oilloak.

Ogia erretoko labea ba dauka.

LEJARZA BEKUA

1704 ko errotzean, Domingo Lejarza'ren eskuetan egoan bertako jaubetasuna eta berberak erabilten zitun bertako lurrak eta udaleko zergak ordaindu.

1745 berberaren izenean jarraitzen eban eta Kristobal Lau-zirika erreteru lez.

1796 urtean, Prado Alegre'ko markesaren eskuetan egoan. Migel Zabala zan erreteru lez bertan bizi zana, urtean 34 dukat ordainduaz.

Txillardegi on bat eukan. Zortzi urtetik zortzi urtera 150 burkada ikatz emoten eutsazan.

1989 Jausita dago.

Jaubea, Alberto Sarrikolea.

17,2 hektarea.

LEJARZA GOIKUA

1704 urtean, Franzisko Lejarza zan jaube eta bertan bizi zan.

1745 urtean, Juan Uriarte eta a be bertan bizi.

1796 urtean, Manual Zabala zan jaube.

1989 urtea. Jausita dago.

Etxe bizitza bitan banatua dago.

Bateko jaube Isabel Derteano da,

3 hektarea.

Besteko jaube, Edurne Meabe.

15 hektarea.

LEJARZA ERROTEA

Lengo gizaldian izen onetako errota bat egon zan, Maria Erkizaiz eta Juan Endeiza'ren arteko ezkontzatik sortutako ume txikien jaubetasuneko. Oneik zaintzailleak eukezan, bata Natxitua'ko bizilaguna, Domingo Idoiaga eta bestea Franzisko Endeiza, bedarutarra.

LAUZATE edo ta LEUSATE

Izen biak irakurten dira etxe onen goraberan.

1703 urtean, Franzisko Lausate da bertako jaube agertzen dana eta bertan bizi be.

1745 urtean, Franzisko Ortuzar zan jaube.

1796 urtean, Juan Ant. Gabikajojeaskoa eta bere emazte Manuela Sausolo ziran jaubeak. Senarra Frantzian egoan, baituta, "preso".

Etxeko zati baten bizi zan Manuela, eta bestean bere amagiñarreba zan Domeka Ortuzar. Erreteru lez Franzisko Goro euken eta onek, erdiagaitik, 24 dukat ordaintzen eutsezan urtean.

1989 Gaur Andresa Garate'ren izenean dago jaubetasuna eta bere ama Juana, eta iru seme alaba bizi dira eurekaz.

12 hektarea.

19 bei, iru txal.

MERRUA URRUTIA

1704 urteko errotltzan Ind. Merrua agertzen da bertako jaube lez, bai eta bertan biziten be.

1745 urtean, Merrua abizenak jarraitzen eban jaube lez.

1796 urtean Migel Urteaga.

1989 urtean. Etxe bizitza biko lez dago.

Baten, Domingo, Jesus M.^o, Alizia eta Mari Teresa Salterain dira jaubeak eta bertan bizi dira.

8 hektarea.

5 bei, 10 txal.

Beste etxea utsik dago. Jaubea Irene Oar-Landa.

9 hektarea.

OLAGORTA ETXETXIKIA edo OLAGORTATXU

Damiana Azpi da bertako jaube. Bere alaba Luzia Azurmendi eta onen alaba bizi dira eurekaz.

14 hektarea.

OLAGORTA ETXEBARRI

Juana Bermeosolo eta Felisa Bermeosolo alargunak bizi dira bertan.

Bertako jaube lez euren alaba Begoña eta Mari Bitoria agertzen dira eta oneik be an bizi dira, bai eta Jazinto Arriola Bitoriaren senarra eta bion alaba Iratxe.

10 hektarea.

Bei bi, txal bi, asto, oillo eta untziak (konejuak).

MERRU ETXEBARRI

1989 Juan Martin Bermeosolo da jaubea eta bere ernazte Rufina Obieta eta Juan M. Bermeosolo ta Amaia seme alabak, onen senar Alfonso eta euron alaba Saioa bizi dira.

4 hektarea.

6 bei, sei txal.

OLAGORTA

Izen onetako etxe ezbaridiñak billatzen dira errotzetan.

1704 ko errotzetan, Maria Olagorta agertzen da jaube eta bertan bizi dan lez.

1745 urtean, izen berberak jarraitzen dabe.

1795 urtean, OLAGORTA eta Bere albokoa lez zeaztuten da.

Urte onetan Manuel Erkiaga zan jaube eta Antonio Erkiaga'k eukan bertako "usufrutua".

Esan dan alboko etxearen jaube be Manuel Erkiaga zan, eta Kristobal Lauzirikak 28 dukat ordaintzen eutsazan errenta lez.

1989 **OLAGORTA GOIKOA.**

Utsik dago.

Pedro Azumendi da jaubea.

8,5 hektarea.

OLABE AUZOA

ELORRIAGA

- 1704 urtean Domingo Mendieta zan jaube eta bertan Juan Arkotxa bizi. Urte orretan egon zan beste etxe bat be, erdi jausia, "la casa caída de Elorriaga", media fogue-
ra. Eta esaten da ez ekiela nor izan zan bere jaubea, baiña bertako soloak Juan Arkotxa'k erabilten ebazala.
- 1745 urtean, Elorriaga etxea Juan Bta Albiz'en kapillautzari egokiona zan eta Juan Urizar bizi zan bertan.
- 1796 eta 1798 urtean Juan Jose Albiz, Gernikarraren ize-
nean agertzen da etxe au eta M. Mendiola erreteruak
18 dukat ordaintzen zitun errenta orde. Esaten da
txaraka bat eukala, zortzi urtetik zortzira 36 burkada
ikatz emoten eutsazana.
- 1810 urtean Juan Jose Albiz zan jaube eta bere errete-
ruak, Juan Agirre'k, 396 errial ordaintzen eutsazan.
- 1989 Gregorio Plaza eta Nati Egaña eta eureon seme alaba
Jasone, Andoni eta Nerea bizi dira. Etxe jaubeak dira.
8 hektarea.

11 bei, 12 txal eta 4 auntz daukez.

ETXEBARRIA

- 1704 urtean, beratu edo jausitako etxeak aitatzean, orrelako
jru ETXEBARRIA izeneko agertzen dira.
Bat, Joseph Puerto'rena izana, bere solo ta inguruak
landu barik egozala.
Beste bat, Matias Arteleoarraga'rena izana, au be solo
ta inguruak landu barik.
Beste bat, toki berbertan, Pedro Bengolearena izana,
solo ta inguruak utsik.
- 1704 Ursula Etxebarria'rena bat. Erreterua eukan: Arteleo-
rraga.
- 1745 urtean, Lekeitio'ko jesuitak ziran jaube. Min Arkotxa
zan euren erreterua.
- 1796 urtean, Lekeitio'ko umezurtzen aldeko ekintza batena
zala, esaten da. Urtean 19 dukat ordaintzen zitun ber-
tako erreteru zan Antonio Eiguren'ek.

Bere esanetan ez ekian mendiak ze onura emoten eben, ortazko paperak, frantzetarren bildurrez, etxetik kanpora eskutauta eukazalako.

1810 urtean, jaube lez Agustin Lekerika, bilbotarra agertzen da. Erreteru bi eukazan eta bien artean danetara 717 errial ordaintzen eutsezan.

1989 Miguel eta Jose Alzola dira jaubeak.

Jose'ren emazte Benedita Zabala eta Bakarne alaba bertan bizi dira.

17 hektarea.

7 bei, 6 txal, oillo, untzi...

OLABE

1704 OLABE ZARRA gogoratu daigun lenengo. Urte onetan, etxe jausien artean, "la casa caída de Olabe zarra" esaten da. Andres Ortiz, izan zanarena zala, eta bere lurrik iñok ez dauala erabilten eta ez dauala ordaintzen erriko ordainbearrik.

1704 OLABE.—Olabe'ren ondorengoan jaubetasuneko adierazten da. Erreterua euken.

1745 Migel Zarandona jaube eta bertan bizi.

1796, 1798 eta 1810 urtetan Pedro Zarandona zan jaube eta 32 dukateko errenta artzen eban.

1989 Jaubea: Tomas Gandarias'en ondorengoak.

Juan Antonio Okamika eta Izaskun Madarieta, Aitor semeagaz, bertan bizi dira.

12,2 hektarea.

6 bei, 4 txal.

OLABARRIA

1796 urtean, Jose Goiria'ren jaubetasuneko zan. Errenterua: Jose Alzola eta A. Kobeaga. Urtean 75 dukat ordaintzen eben. Txaraka bi eukazan. Baiña jaubeak ez eban nai esan zer emoten eben ebagitzetik ebagitzera.

1989 Jaubetasuna Elias Kortabitarte'ren izenean dago.

Santiago Larrinaga eta Baldomera Kortabitarte eta euron seme bi bizi dira bertan.

15 Hektarea.

5 bei, 4 txal, asto, oillo ta abar.

Ogia erreteko labea be ba duaka.

PORTUA

Izen orretako etxerik ez da billatzen lengo erroltzetan.

PORTU ETXEBARRI

1989 Josu, Jabier eta Delfina Zarakondegi'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak. Paulino Garate eta Delfina Zarakondegi senar emazteak eta euren seme-alaba Josu ta Maite bizi dira bertan.

6 hektarea.

7 bei, 5 txal, 50 oillo, 13 untzi...

SAN BARTOLOME

1796 urtean esaten da: San Bartolome ermitaren alboko etxetxua. Parrokiari dagokio.

Juan Ormaetxea bizi zan bertan, eta solo bat erabilten eban, eta etxe ta soloagaitik amabi dukat ordaintzen ebazan urtean. Eta bere konturako zan astero liberdi orio ipintea, argitarako eta urtero Abadeari 24 errial ordaintzea, Letaniak errezateagaitik. Eta jakin erasoten da ermitan konponketa batzuk egin dirala eta Pedro Zarandona'k ordaindu dauzala, eta onek errentak berak kobraten dauzala kittutu artean.

1989 Utsik dago.

Eusebio Mendiola Ikaran da jaubea.

Hektarea bi.

ZARAKONDEGI

1704 Maria Hernandez Meaurio, zan jaubea. Eta Juan Arrasate errenterua.

1745'n Maria Longa zan jaubea eta bertan bizi zan, bigarren ezkondata, Pedro Barainka'gaz.

1796 urtean, Dgo. Bengoetxea zan jaube eta Manu Mendiabal errenterua. Onek 19 dukat ordaintzen eutsazan urtean.

1810 urtean, Madalena Zarakondegi zan jaube eta 440 errialen balioa emon eutsen errentetan.

1989 Manuel Eibar eta Antonia Lauzirika bizi dira, seme bigaz. Jaubeak dira.

1,7 Hektarea.

2 bei, 2 txal, asto bat.

ZARAKONDEGI ETXETXUA, edo ZARAKONDEGITXU

1745 urtean, Maria Longa zan jaube eta Juan Bta Etxebarria erreterua.

1796 Domingo Bengoetxea zan jaube.

1989 Jaubea, R. Piedra'ren ondorengoena da.
22 hektarea.

Romualdo Zabala, alarguna, Emiliano Azurmendi eta Jesusa Zabala senar emazteak eta Mikel eta Igor Azurmendi bizi dira.

BANAKATUAK

GOIKOETXEA

1745 urtean Pedro Arkotxa zan jaube eta bertan bizi zan, bai eta bere amagiñarreba be.

1796 urtean, Maria Arkotxa, alarguna, jaube.

1810 urtean, Juan Urteaga, jaubea. 484 errialetan baliatzen eben bere errenta.

1989 Utsik dago. Aurelia Gorriño da jaubea.
6,2 hektarea.

GOIKOETXETXUA

1745 urtean, Lekeitio'ko monjena zan. Juan Bta. Eiguren, erreterua.

Gero ez da agertzen.

ZUBIALDEA

1745 urtean, Juan Erkiaga jaube eta bertan bizi.

1796 urtean, Domingo Erkiaga, Natxituako bizilaguna jaube.

1810 urtean, Manuel Ulazia, Ea'koa jaube eta Juan Alberdi, erreterua. 330 errial ordaintzen zitun.

1972 urte inguruan galdu zan.

ALLONA AUZOA

ALLONA

Iru etxe agertzen dira izen onegaz.

1704'ko erroltzean, etxe bat, Pedro Allona'rena zan eta bertan bizi zala esaten da.

Urte berean, "La otra casa de Allona" irakurten da beste etxeagaitik eta Inazio Allona bizi zan bertan.

1745 urtean, iru **Allona** bakoitzak bere ezaugarria artuta. Ala

ALLONA AURREKOA, lez sartuta dago bat eta Joseph Idoiaga bertan bizi.

ALLONA ERDIKOA, agertzen da bestea eta Antonio Endei-za bizi zan bertan, bai eta bere amagiñarrea be.

ALLONA GOIKOA irakurten dogu beste batentzat. "Otra lla-mada Allona goikoa" esaten da eta Pedro Allona bizi zala bertan.

1796 garren urtean, barriro deiturak aldatu egiten dira birentzat beintzat.

ALLONA GOIKOA'k jarraitzen dau. Manuel Erkiaga'ren ize-
nean oraingotan. Pedro Lejarza'k dauka etxe erdiaren usu-
frutua, eta bere suin Manuel'eh beste erdiagaitik 24 dukat
ordainduten dautsaz.

ALLONA BENGOETXEA izen onegaz agertzen da bestea.
Itxuraz len **Allona Aurrekoa** zanari ipuni dautse deitura au.
Jaubea Joseph Idoiaga dala esaten da. Bere erdia erabilten
dau, beste erdia bere aitak daukalako usufrutuan.

ALLONA ANDIA. Deitura onegaz agertzen da irugarrena eta
Domiago Zarakondegi zan bertako jaube.

1989 urteko gure kontuetan,

ALLONA ANDIA.—Jausita dago. Erre egin zan 1936 urtean.
Jaubea, gaur, Eufrasio Rementeria.

43 hektarea.

ALLONA GOIKOETXEA (GOIKOA) Gaur utsik dago. Amalia
Borda Loredo da jaubea.

8,5 hektarea.

ALLONA BENGOETXEA. Etxe bizitza bi. Baten Jesus Telle-
ria da jaubea.

5 hektarea.

5 ardi, aari bat, 8 auntz...

Beste zatia utsik dago.

Balentin Zurita da jaubea. 5,3 hektarea.
Etxe onetan "Lo reedificó Jo/ se Domingo de Idoiaga/ Año
1831 irakurten da.

ERREKETA

1989 Utsik dago. Jaubea Antonio Larrauri.
2,4 hektarea.

OIARBE edo OJARBE

1704 urtean, Migel Ojarbe jaube eta bertan bizi.
1745 urte onetako erroltzean OIARBE irakurten da. Juan de
Ortuzar dala, esaten da, bertako jaubea, baiña bere
etxetik erabilten ebala beste au.
1796 urtean, Francisco Endeiza zan etxe onen eta bere
aurreko errotaren jaube.
Etxeak urtean 40 dukat emon eikezala esaten zan, eta
erroteak beste 20 dukat.
1810 urtean Antonio Endeiza zan bertako jaube eta esaten
eban 866 errial inguru artu eikezala errentetan.
1989 Utsik dago.
Hilario Derteano'ren semeak dira jaube.
Etxeak ogia erreteko labea dauka.
24,5 hektarea lurretan.

OLA BARRI


Jausita dago.—Jaubetasun agiriak, ATEA SAREN izenean.
7 hektarea.
Errota izanikoa.

OLA ZARRA

Jausita dago. Jaubea. Udaletxea.
7 hektarea.
Lengo gizaldietako paperetan ola bakarra egoala irakurten
da, eta 1814'ko paperetan esaten denez, urtean 200 kintal
inguru lantzen ebazala.

OTEGI

- 1704 urteko erroltzetan Franzisko Garro'ren jaubetasuneko lez agertzen da eta biziteko erdia Franzisko Bidaurre-ta'ri emonda eukan.
- 1745 urtean, Pedro Angel San Martin zan jaube eta Iñazio Lejarza'ri alokatuta eukan.
- 1796 urtean, Jose Luis Renteria, Amorotoarra, abadea, zan jaubea. Franzisko Arkotxa bizi zan bertan eta 20 dukat ordaintzen eban urtean.
- 1989 Jaubea Amalia Borda, Olarra'ren emaztea da. Antonio Lafuente eta Joana Oliva bizi dira bertan euren iru seme alabekaz.
- 6 bei, txal bi, auntz, untzi (koneju).
- Etxe au oin biko baserria da.
- Bere atadi gaiñeko dobelen artean, eguzki gaiko ikus-kizun bi agertzen dira eta gurutza bat.
- Etxe-aurreko arri baten inguruan esaera au irakurten da.
- "Hizo D Ju/ an Luis de Renteria. 1797.



ELEXALDE BEDARONA

ALAGARRETA

1704 Urte onetako erroltzean ALAGARRETA bi agertzen dira.

Bat erdi-galdua, jausia, Arronategi'ko Juan Abadearena. Agiriak diñoe ez dakiela sutegi edo fogera oso ozan zan. Ortu txiki bat geratzen jakola eta iñok ez erabillala.

1704 ALEGARRETA.

Julio Arritola jaubea. Iñor ez da bizi bertan.

1745 Barainkatarrak daroe bere ardura. F. Aldasolo erreterua.

1796 Lekeitio'ko Colmenares'ek erosia. Erreterua: J. Alastru. Urtean 8 dukat ordaintzen zitun.

1810 urtean, Colmenares'en izenean jarraitzen eban. Jose Alzola zan erreterua eta 82 errial ordaintzen eutsazala errentatzat, esan eban.

1989 Juan Pedro Eizagirre eta Eusebia Arraskada dira jau-beak. 3 Hektarea.

Alagarreta etxea 1635 urtean Bedarona'n egoan ostatu etxe bakarra zan.

DENDARIKUA

1704 urtean, Min Dendaria zan jaube eta Ana Mendiola bizi zan bertan.

1745 urtean, Jose Gizaburuaga Doktorrak eukan bertako ardura.

1796 urtean, Manuel Gizaburuaga zan ardularia, eta jaubetasuna neskaitilen laguntzarako erakunde batena zan. Juan Sagarbarria bizi zan bertan erreteru lez eta 17 dukat ordaintzen zitun errentatzat. Arizti txiki bat eukala, esaten da paperetan, zortzi urtetik zortzi urtera, amar burkada ikatz emoten ebazana.

1989 Utsik dago.

Julian Gaztañaga da jaubea.

8 hektarea.

Arkitektur saillean, erti-maillako ondareztat sartuta dago.

ALEGRIA

Justo Zabala da jaubea.

Jose Zabala eta Teresa neba arrebak bizi dira bertan.


Lengo paperetan ez da etxe onen barririk aurkitzen.

ETXETXUA

Simon Alzola eta Teodora Plaza senar emazteak eta Fernando semea bizi dira. Eurena da etxea.

Lengo paperetan ez da etxe onen zeaztasunik aurkitzen.

6 hektarea.



AUZOA: MENDIOLA

AGIRRE

- 1704 urteko erroltzean Franzisko Olabe zan jaube. Bertan bizi zan.
- 1745 urtean, Barainka'ren ardurakoa zala esaten da. Erren-teru lez Domingo Andreu egoan.
- 1796 urtean, Colmenares lekeitiokuak eukan erosita. Erren-teru lez Juan Barainca bizi zan eta 39 dukat ordaintzen zitun.
Zortzi urtetik zortzi urtera 60 burkada ikatz emoten eben mendiak eukazan.
- 1810 Colmenares'en izenean jarraitzen dau. Madalena Ula-zia zan bertako errenterua eta errentatzat 12 anega gari, au da, 480 errial inguru ordaintzen zitun, mendie-kaz baliatu barik.
- 1989 Antonio Malaxetxebarria eta Felisa Lejardi dira jau-beak. Eurekaz bizi da Felix Lejardi.
4.5 hektarea.

ALTAMIRA

- 1704 urtean, jausita lez agertzen zan paperetan, eta bere soloetan be lanik ez zala egiten. Jaubea Domingo Bergara zan.
Beste etxe erdika bat be agertzen da erroltze aretan, Antonio Urza'rena. Eta solo bat bakarrik erabilten eba-la esaten da.
- 1745 urtean, Santiago Agirre, alkatea, zan jaube eta bertan bizi zan.
- 1796 urtean, Mendexa'ko Iñazio Agerregi bizi zan. Erren-teru laz Domingo Madarieta, eta 19 dukateko errenta ordaintzen eban.
- 1989 urtean Jabier Ruiz Olabarria eta Josune (alarguna) bizi dira era Eguzkiñe eta Jon seme-alabekaz bizi. Jaube-tasun agiriak Jon'en izenean dagoz.
3.6 hektarea.
8 bei, 8 txal, asto, auntz, oilloak.

BEITIA edo BEITIKUA

- 1704 urtean, Martin Beitia zan jaube eta bertan bizi zan.
- 1745 urtean, BEITIKUA izenez agertzen da. Jaube lez Juan Etxebarria.
- 1796 urtean BEITIA izenez, eta Franziska Etxezabal zan jaube. 12 dukat artzen zitun errentatzat.
- 1810 urtean, Martin Arraskada zan jaubea eta bertan bizi. Bere esanetan etxe eta ingurutatik 330 errialeko errenta lortzen eban urtean.
- 1989 8 hektarea.
Justo Garatxana eta M.^o Pilar Korta senar emazteak bizi dira eta Jose R. Garatxana.
13 ardi, aari bat, 4 auntz eta abar daukez.

BERGARA eta BERGARATXU edo BERGARA TXIKI

- 1704 urtean. Jose Bergara agertzen da jaube lez. Bertan bizi zan.
- 1745 urtean, Lekeitio'ko monjaen jaubetasuneko da. Franzisko Arkotxa bizi zan bertan.
- 1796 urtean, jaubetasuna esandako monjaena zan. Martin Zarakondegi eta Martin Eiguren ziran erreteruak. Urtean 29 dukateko errenta euken. Ez jakin bere mendietatik zer lortzen zan, Monjak ez dabelako ortazko errazoirik emon, nai eta iru-lau bidar eskatu.
- 1798 eta 1810 urtetan be, Monja berberak jarraitzen eban jaube lez. Urte oneitan be Zarakondegi eta Eiguren jaunak ziran erreteruak. Oraingotan diru eta frututan ordaintzen eban. Au da, 13 anega gari, artotan be anega bi eta 169 errial dirutab eta beste 179 errial. Guztira 814 errialen balioa.

BERGARATXU eta BERGARA TXIKI

- 1704 errotzean esaten da, Bergara'ren gain ba egoala **Bergaratxu** deitzen zan fogera erdiko etxetxu bat, Burrika'rena izan zala eta onen ondasunak Bergara etxeari geitu jakozala.
- 1745 urtean Juan Alzola agertzen da jaube lez eta bertan bizi.
Gero, 1796, 1798, 1810 eta abarretan, Lekeitio'ko Monjen konbentuarena lez agertzen da.

1989 urtean BERGARA etxea Pilar eta Martin Atxabal neba arreben eskuetan dago. Eurak bizi dira bertan.
11,5 hektarea.
3 bei, 3 txal eta abar.

BEASKOA, BIX GOJEASKOA eta BIAX agertzen dira

1745 urtean esaten da Joseph Renteria kapitanaren jaubetasunako zala. Pedro Eiguren bizi zan bertan.
1796 Jose Agustin Renteria, Bilbotarra zan jaube. Erreteru lez Dgo Rementeria. 34 dukat ordaintzen zitun errentatzat. Daukazan basoetatik, zortzi urtetik zortzira 60 burdikada ikatz atara al eikezan.
1810 urtean Jose Ag. Ibañez de Renteria, lekeitiarra zan jaube. Martin Etxebarri erreterua eta bere esanetan 209 errial ordaintzen zitun errenta orde.

BIX GOJEASKOA

Izen onetako etxe bat agertzen da 1745 urtean. Jaubea Martin Saiz, bertan bizi zan.

1796 urtean **BIAX** esaten da eta Pedro Ugarriza zan jaube. Bere errentatzat ogetamalau dukaten balioa emon eutsen.

1796 eta 1810 urtetan be, Ugarriza berbera zan jaube eta bertan bizi zana.

Etxe eta ingurutako irabazi lez 550 errial lortzen zitula adierazo eban 1810 urteko kontu emonetan.

1989 BIASKUA (BEAZKUA) Joan Muniozguren'en izenean dago jaubetasuna eta Agustin Kortabitarte Atxabal (alarguna) eta Iñazio Muniozguren be bertan bizi dira.
16 Hektarea.

Urte onetan BIS-GOIKOA Benito Lopez Abetxuko'ren izenean dago. Ez da hektarea osora eltzen.

BIS-ERDIKO deitzen dana Rafael Plaza'ren jaubetasuneko da eta 12 hektarea daukaz. Aste buruetan erabilten dabe.

BIS-BEKUA jausita dago. Jaubea, Joakin Ojangoiti.
12,7 hektarea.

BURNIKA

1704 urteko erroltzean Juan Mendiola zan jaube eta bertan bizi.

- 1745 urtean berberak jarraitzen dau. Urte onetan GURTIKA irakurten da.
- 1796 urtean, Domingo Mendiola da jaube. Amabi dukateko errenta emoten dautse.
- 1810 urtean, Domingo Mendiola berberaren izenean egoan. Bere esanetan etxe ta inguruak 220 errial emongo zituen urtean irabazitzat. Ez ekian firmaten.
- 1989 Utsik dago. Jaube lez Kasiano Madarieta dago.

GOENENGOA

- 1704 urteko errotzean esaten da Barainka'neko Min'ena zala eta bertan bizi zala.
Bai eta Abedaño'ren lurrak geitu jakozala be.
- 1745 urtean, Nikolas Zatika, abadea zan jaube, eta Pedro Mendiguren bertan bizi.
- 1796 urtean, Lekeitio'ko Jose I. Unzeta zan jaube. Migel Alzola eta Migel Arritola'k bakoitzak 18 dukat ordaintzen zitun errentatzat.
- 1810 urtean Santiago Unzeta zan jaube. Oneri errenteruak garitan ordaindu bear eutsen eta urte onetan amabi anega gari ziran.
- 1989 Nati Mendiola (alargunaren) izenean dago jaubetasuna. Beragaz batera Pedro Korta eta Angela Gabiola senar emazteak bizi dira eta Esther eta Sonia alabak. 14 hektarea.
12 bei, 4 txal, oillo ta untxiak daukez.
Jakingarria: 1704 urtean, jausitako etheen zerrenda egitean, au be tartean sartzen da: "Otra quarta parte de foguera llamada Goenengoa, que fue de Pedro de Gorojo, sin pertenecidos".
Eta zerrenda berbertan esaten da, Pedro Gorojo'ren "Abedaña" izeneko etxea egoala eta onen lurrak Barainka'ko Min'ena zan "GOENENGOA"ri geitu zirala.

IRAGORRI

- 1704 ko errotzean IRAGORRIA irakurten da. Franzisko Olabe'rena zan eta Domingo Garatea bertan bizi.
- 1705 urtekoan IRAGORRI irakurten da. Ag. Barainka abadeak eukala bere ardura, eta Pedro Gazitua bizi zala bertan.

1796 urtean, IRAGORRI idazten da. Lekeitio'ko Colmenares'ena zan. Ventura Arambarri eukan errenterutzat. Urtean 40 dukat ordaintzen eutsazan. Orrez gaiñera zortzi urtetik zortzira 72 burkada ikatz emoten eben basoak eukazan.

1989 IRAGORRI.—Franzisko Barainka eta Benita Alzola senar emazteak dira jaubetasuna daukenak. Eta Jabier Barainka, Isabel Guenetxea eta euren seme Xabier eta Ander bizi dira eurekaz.

12 hektarea.

5 bei, 6 txal, asto, txarri, ardi, aari eta abar.

JAUREGI

1704 urtean Juan Jauregi zan jaube eta bertan bizi.

1745 urtean Joseph Arraskada agertzen da jaube lez.

1796 urtean Jauregi, Joseph Arraskadarena, esaten da. Eta bardin 1796 eta 1810 urtean.

Urte orreitan irakurten da 432 errial emoten ebazala errentetan.

1989 urtean, Juan Mari Lauzirika agertzen da jaube lez.

10 hektarea.

Bei bi eta txal bi daukaz.

KOSKORROZA edo ta KORKORROZAGA

Iru etxe ezagutzen dura deitura onetakuak, BEKUA, ERDIKUA eta GOIKUA geigarriak ezaugarri lez dabezala.

KOSKORROZA BEKUA

1704 urteko erroltzean Franzisko Olabe zan jaube eta Migel Mendia errenteru lez bertan bizi zana.

1745 urtean, Barainka'ren ardurakoa zala esaten da, eta Bartolome Erkiaga bertan bizi.

1796 urtean Lekeitio'ko Colmenares dala esaten da bertako jaube. Patxi Atxabal errenteruak 34 dukat ordaintzen eutsazan urtean. Eta zortzi urtetik zortzira 150 burkada ikatz atarateko basoak eukazan.

1798 urtean bardintsu esaten da.

1810 urtean be Colmenares zan jaube, baiña bere errenta, dirutan, 508 errial zan urteko.

1989 Jaubea: Anizeto Mentxaka.

5 hektarea.

Luis Okamika eta Irene Urangak dauke errentan, eta bertan bizi dira euren alaba Olga eta Nerea.

KOSKORROZA ERDIKUA

- 1704 urtean Juan Kobeaga zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean asten dira Koskorroza erdikua deitzen. Joseph Eiguren zan jaube eta bere errenta 30 dukatetan baliatzen zan.
- 1796 eta 1798 urtetan be jaube bardiña zan.
- 1810 urtean Antonio Eiguren zan jaubea, eta 440 errial errentatan baliatzen eutsezan.
- 1989 Jaubea Andoni Eiguren da.
13,5 hektarea.
Utsik dago.

KOSKORROZA GOIKUA

- 1704 urteko erroltzan Juan Jauregi jaube eta bertan bizi zala esaten da.
- 1745 urtean, urte onetan asten dira Koskorroza goikua deitzen. Urte onetan Joseph Eiguren zan jaube.
- 1796 eta 1798 urtetan, Domingo Eiguren jaube eta 30 dukatetan baliatzen zan bere errenta.
- 1810 urtean, jaube bardiña zan, eta errenta, dirutan 484 errialetan baliatzen zan.
- 1989 urtean, Bitoria Eiguren eta Elena Egaña, senar emazteak agertzen dira jaube lez. Bertan bizi dira.
5 bei, 5 txal, asto bat, ardi, aari eta oilloak daukez.
Ogia erreteko labea ba dauke.
Sagardaua egiteko tolaarea be bai.

MENDIOLA

Etxe oneik ainbat izen edo deitura erabili izan dabez. Ala **MENDIOLA AMIAX**, edo ta **MENDIOLA BEKUA** alde bate-tik, bestetik **MENDIOLA AURREKUA** eta **MENDIOLA ANDI-KOA**.

MENDIOLA BEKUA edo AMIAX

- 1704 urtean, Katalina Merezika zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean Pedro Mendiola jaube eta bertako bizilagun.
- 1745 urtean MENDIOLA AMIAX deitzen da eta Franzisko Mendiola'rena dala esaten da eta bere errenta 30 dukatetan baliatu.

1798 urtean, bardin.

1810 urtean Franzisko Mendiola'k jarraitzen dau jaube. Etxe ta inguruen errenta 508 errialetan baliatu eutsen.

1989 Utsik dago.

Jaubea Txomin Ibarra da.

2,5 hektarea.

MENDIOLA ANDIKOA

1704 urtean, Maria Mendiola zan jaubea eta bertan bizi zan.

1745 urtean, Frantzisko Mendiola'rena. Bertan bizi zan bere aitagaz batean.

1796 urtean MENDIOLA AURREKOA esaten da, eta Joseph Lariz zan jaube. Bere errentaren balioa 30 dukatetan uste izan eutsen.

1798 urtean bardin agertzen da.

1810 urtean, jaube bardiña, baiña errenta, dirutan, 419 errialetan baliatu eutsen.


1989 urtean, utsik dago.

Jaubea Bitoriana Gabiola Alzola da.

14 hektarea.

OLLOETXE

Ikusi MENDIOLA BEKUA.



URTZA AUZOA

ALTARRAGA

- 1704 urtean, Jakobo, Akorda'ko Abadea zan jaube. Ana Erkizaiz bizi zan bertan.
- 1745 urtean, Maria Altarraga zan jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean, Lekeitio'ko Monjaena zan. Dgo. Uribarrena zan errenterua.
19 dukat ordaintzen eutsezan dominikatar monjaei, baiña ez ekian mendiak zer emoten eben urtean.
- 1798 bardin.
- 1810 Jaube Berbera eta errenterua be bai. Oraingotan dukaten orde, lau anega gari, anega bat arto, eta 58 errial dirutan ordaintzen ebazan.
- 1989 Felix Aranburu Goikoetxea da jaube. Bere emazte Alo-dia eta seme Alejandro bizi dira bertan.
11,5 hektarea.
12 bei, 6 txal, mando bat, 10 ardi, aari bat, oillo eta abar.
Sagardaua egiteko tolarea be ba dauka.

AURREKOETXEA

- 1989 Utsik dago.
Koldo Zabala Atxabal'en izenean dago jaubetasuna.
6,6 hektarea.

GOROSTIAGA

- 1704 urteko errotlzean, Min Gorostidi zan jaube eta bertan bizi zan.
- 1745 urtean Juan Altarraga jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean Joakina Olabarria, alarguna, agertzen da jaube lez. Lortu leiken errenta 28 dukatetan baliatzen da.
- 1798 urtean, bardin.
- 1810 urtean, Antonio Zarakondegi zan jaube.
Uste izan eutsen 440 errial emon eikezala errentetan eta mendiak beste amabi errial.
- 1989 Utsik dago.
22 hectarea daukaz.

LANDATXU

1989 Galdu zan. Ba dira 50 urte edo geiago erre zala.
Jaubetasun agiriak Algorta Abaroatarrak daukez.

LARRA edo LARRAZABAL

1989 urtean, Sabino Bilbao Korta da bertako jaube.
Onen arreba Mari eta bere senar Angel Ipizua eta
euron seme alabekaz bizi da bertan.
13,5 hektarea.

4 bei, 4 txal, txarri bi, oillo eta untziak.

MERETXIKA

1704 urteko errolltzean, Maria Otxoa zan jaube eta bertan
bizi zan.

1745 urtean, MESIKA irakurten da. Jose Zarakondegi zan
jaube eta bertan bizi zan, bai bere aita be bere emaz-
teagaz.

1976 MEREZIKA irakurten da. Santiago Aranbarri zan jau-
be.

1798 Bardin.

1810 Bardin. 396 errialetan baliatu eutsen bertako errenta.

1989 Joakin Ojangoiti da jaubea.

Esteban eta Pilar Kobeaga bizi dira bertan, erreteru
antzera.

12 hektarea, Urtzatxu izeneko baserria barruan sartu-
ta.

5 bei, 6 txal.

OLABARRIA

1704 urteko errolltzean, Maria San Juan Garate agertzen da
jaube lez eta Fernando Olabarria, bertako bizi lagun
lez.

1745 urtean, OLABARRI irakurten da. Domingo Sertutxa
zan jaube eta Jose Olabarri eta Domingo Mendezon-
nak euken errentan.

1796 urtean, Jose Goiria zan jaube, lekeitiarra.

1798 urtean, berbera agertzen da jaubetzat.

1810 urtean, bardin. Urte onetan Jose Barainka eta Bapta
Kobeaga ezagutzen dira erreteru lez. 9 anega gari,
13 arto, ordaindu bear zituen. Dirutan, mendien onura
be sartuta, 970 errial.

- 1989 Elias Kortabitarte'ren izenean dago jaubetasuna. Bera, eta bere arreba Baldomera, Santiago Larrinaga'z ezkondua eta onein seme bi bizi dira bertan.
15 hektarea.
5 bei, 4 txal, asto bat eta oilloak daukez.
Ogia erreteko labea be ba dago.

SASTURRI

- 1704 urteko erroltzean, jausitako etxeen zerrendan agertzen da izen onetako etxea: "La cassa caida de Sasturri, los pertenecios incultos" irakurten da.
- 1745 urtean, Gizaburuaga Doktorra zan bertako arduraduna, eta Domingo Bengoetxeak eukan errentan.
- 1796 Lekeitio'ko Dominikar monjaena zan. Erreteru lez Min Kobeaga.
28 dukat ordaintzen zitun. Eta agirian esaten da bere mendiak daukazala, baiña zer emoten eben ez jakiña zala.
- 1798 Bardin.
- 1810 Jaube bardiña. Erreterua aldatuta: Domingo Barainka. Onek bost anega gari, anega bat arto, 130 errial dirutan eta beste 200 errial dirutan mendiakaitik ordaintzen zitun. Guztira 563 errialen balioa.
- 1989 Utsik dago.
Jaubetasuna Juan Iñazio Bilbao Madariaga'rena da.
11,6 hektarea.

UBIDE

- 1704 urtean, Juan Ramon Oxinaga kapitanaren Ontasun Ekintzetakoa zala esaten da. Ind. Altarraga zan erreterua.
- 1745 urtean, Gizaburuaga Doktorra zan bertako arduraduna, eta Pedro Mendiola bertan bizi, erreteru antzera.
- 1796 urtean, Lekeitio'ko umezurtzen aldeko Ekintza Ongarri baten izenean egoan. bertako jaubetasuna, Gizaburuaga doktorra arduradun zala, eta Juan Agirre'k eukan errentan artuta. 13 dukat ordaintzen ebazan.
- 1798 urtean bardin agertzen da.
- 1810 urtean, Madalena Eiguren agertzen da jaube lez eta 286 errial artzen zitun errenta orde.

1989 Felipa Arzubia, alargunaren izenean dago jaubetasuna. Alfonso eta Jesus Mari bere semeak bizi dira bertan.

8 hektarea.

4 bei, 3 txal, mando bat eta oilloak.

URIBE

Izen onetako etxe bi agertzen dira. BEKUA eta GOIKUA geigarriekaz.

URIBE BEKUA

1704 urteko erroltzean, Franzisko Olabe zan jaube eta Maria Uribe bertan bizi.

1745 urtean, Barainka'ren ardurapeko zala esaten da, eta Jose Zigarán zan erreterua.

1796 urtean eta 1810'n, Lekeitio'ko Colmenares'ena zan. Antonio Arkotxa erreteruak 48 dukat ordaintzen eban errenta. Zortzi urtetik zortzi urtera 180 burkada ikatz emoten zituen basoak eukazala esaten da.

1810 urtean erreteru berberak dirutan barik garitan ordaintzen eban geiena, au da, 16 anega gari eta beste amabi errial geiago dirutan.

1989 Paskual Algorta Abaroa'ren izenean dago jaubetasuna. Jabier Kobeaga eta Martina bere arreba bizi dira bertan; erreteruak dira.

9,5 hektarea.

Bei bi, txal bi, oillo eta konejuak daukez.

URIBE GOIKUA

1704 urteko erroltzean, "La cassa de Uribe, de los servidores de don Joseph del Puerto" irakurten da, sutegi osokoa zala, eta bere soloak Pedro Mendiolak erabilazala.

1745 urtean asi eta 1810 urteko erroltzean be, Lekeitio'ko Dominikar monjaen jaubetasunean agertzen da. Errentan emonda euken. 1796 urtekoan esaten zan Juan Kobeaga zala erreterua eta 22 dukat ordaintzen ebazala urtean. Eta mendiak be ba eukazala, baiña onen onura zer zan ez ekiela, monjak ez ebelako orren garbitasunik emon.

- 1810 urtean Kobeaga berbera agertzen da, zatia igalietan ordaintzen eta beste zatia dirutan. Ala 4 anega gari, anega bat arto, 142 errial eta mendien ordez beste 60 errial.
- 1989 urtea. Julio Gaztañaga eta Miren Aranburu'ren Ízenean dago jaubetasuna eta euren seme Julian eurekaz bizi da.
9 hektarea.
4 bei, 4 txal, mando bat, 50 oillasko, 35 untzi (koneju) daukez.

URTZA

Iru etxe agertzen dira deitura onetan:
URTZATXU, URTZA ERDIKUA eta URTZA NAUSIA edo GOIKOA.

URTZATXU

Meretxika baserriaren gorabera emotean, an sartuta dagola ikusi dogu etxe onen lurraldea.

URTZA ERDIKUA

- 1704 urtean, Garro'ren oiñordekoena zan jaubetasuna eta Juan Altarraga bizi zan bertan.
Urte onetan, jausitako etxeei buruz, au esaten da: "La casa "caida" de Bakiaga, que fuen de Juan de Urzaa, sus pertenecidos estan agregados a la Casa de Urzaa, de herederos de F. Garro".
- 1745 urtean, Maria Nabea agertzen da jaube lez.
- 1796 urtean, Asentsia Erretolaza, alarguna, lekeitiarra. Errenteruak 20 dukat ordaintzen eutsazan.
- 1810 urtean Pedro San Martin zan jaube eta Juan Agirre'k eukan errentan, 220 errial ordainduta.
- 1989 Domingo Barainka'ren izenean dago jaubetasuna, eta bere emazte Gloria eta Jon semeagaz bizi da.
13 hektarea.

URZAA NAGUSIA

- 1745 urtean, Pedro Angel San Martin, Lekeitio'ko abadearen izenean dago.

1796 urtean eta 1810 urtean be bardin jarraitzen dau. 40 dukat ordaintzen eutsazan erreteruak eta 1798 urtean erreteru bi ziran eta bien artean 550 errial ordaintzen eben.

1989 Beatriz Alzola Leaniz alargunaren izenean dago jaubetasuna. Jacinto Iturraspe ta Lordes Gojenola senar emazteak eta Gotzone, Ibon, Mikel eta Julen euron seme alabak bizi dira.

11 hektarea.

14 bei, txal bat, txarri, oillo ta untziak.


Ogia erreteko labea ba dauka, baiña ez dabe erabiltten.

ATALAIA

1989 Jaubetasuna Galdiz'en Mercedes Longa'ren izenean dago. Koldo Zabala eta Aurelia Aboitiz senar emazteak eta Elisabet euren alaba bizi dira bertan erreteru lez.

"Eguzki jaia" be deitzen dautse etxeari eta bertan bizi dira.

3 bei, 3 txal, asto bat eta oilloak.





**BASERRIEN ARGAZKIAK
ALFABETA ORDENAN**

BASERRIEN ARGAZKIAK ALFABETAORDENAN

AGARRE	ERKIZAIZ BEKUA
AGIRRE	ERKIZAIZ GOIKUA
ALAGARRETA	ERREKETA
ALASTRA	ESKOIZ
ALDAI ETXEBARRI	ESKOIZ ETXETXIKI
ALDAI ETXETXIKIA	ESKOIZ GOXEASKUA
ALDEKUA	ETXABURUJETA
ALEGRIA	ETXEBARRI
ALLONA ANDI	ETXETXU
ALLONA BENGOETXE	ETXEZARRA (Fieltxuena)
ALLONA GOIKOETXE	
ALTAMIRA	
ALTARRAGA	GALDIZ
ANDUIZA AURREKUA	GALDIZ ETXEBARRI
ANDUIZA ATZEKUA	GARAI
ARETXONDOKUA	GARATEGANA
ARTETA	GOIKOETXE
ASTEGI	GOIKUA
ATALAIA	GOITIKUA
ATZEKUA	GOITISOLO
	GOROSTIAGA
	GUENENGUA
BEITIKUA	
BEREZI	IRAGORRI
BERGARA	IRIBAR ETXEBARRI
BIASKUA	IRUSTIAGA
BIDARTE	
BIZKOETXE	JAUREGI
BIZKOETXE BEKUA	
BURNIKA	KALE AURREKUA
	KALE ATZEKUA
DENDARIKUA	KOSKORROZA BEKUA
	KOSKORROZA ERDIKUA
EIKUA	KOSKORROZA GOIKUA
ELORRIAGA	
ERDIKUA	
ERKIAGA ETXEBARRI	LANDAKUA

LARRAZABAL
LEJARTZA BEKUA
LEJARTZA GOIKUA
LEUZATE
LONGAKUA

MADARIAGA
MENDIOLA ANDIKUA
MENDIOLA EMETIKUA
MERRU BEKUA
MERRU ETXEBARRI
MERETXIKA
MUSTURTXUKUA

NATXITUBE

OIARBE
OLA ZARRA
OLABARRI
OLABE
OLAGORTA ETXETXIKIA
OLAGORTA GOIKUA
OLLOETXE
OTEGI

PLANTIENA
PLAZA AURREKUA
PORTUA

SABARRI
SASTURRI
SOLARTE

UBIDE
UGALDEA
URIBE BEKUA
URIBE GOIKUA
URIZAR
URIZAR ETXEBARRI
URTIAGA
URTUBIAGA
URTZA ERDIKUA
URTZA NAGUSIA
URTZATXU

ZARAKONDEGI
ZARAKONDEGI BEKUA
ZARANDEGI
ZELETA BEKUA
ZELETA GOIKUA
ZILLUAGA AURREKUA
ZILLUAGA ATZEKUA
ZILLUAGA ETXEBARRI
ZUMENDI

ARMARRIAK

OIARBE

Kasket, luma eta lanbrekidun estalgarri ugariz.

Armarría iru torredun gaztelu batek osotzen du; erdiko torretik ezpatakin armaturiko beso bat agertzen da, eta albokoetatik ikurrindun makillak, azkenekoan kurutze bat igarten dala.

Gazteluaren azpian ermita baten irudia dago, bere tellatuko ertz baten kurutze bat daukala, eta kurutzearen gainean egazti bat egaz egiteko itxuran.

Albo bakoitzean adar andidun zugaitz bat eta puntan iru errubera, olatuen gain, bear ba da errota edo burdiñolen baten ezaugarriak.

Ea'tik Izpazter'era duan bidetik ordulaurden batera dago, eta Ea'tik Kilometro gitxira.

Gernika'ko Batzar Etxeko auzi baten Oiarbe Bedarona'ko lez aitatzen da, nai eta Ea'ko auzo bat izan. Baiña aurrez Bedarona eleizate aske izan zan lez, bear ba da denporaldien baten Oyarbe Bedaronako auzo izan eikean.

Armarrí au Entarterrietako Oyatarren antzekoa da eta Oyarbe izan lei Oya'tik datorren abizena izatea.

(Javier Ibarra y Berge. "Escudos de Vizcaya").



ARMARRIAK

Estanislao Labayru'k, bere Bizkaiko Historian, etxe jator eta armarridunen artean, (casas solares y armeras), Bedarona'ko abizen oneitako etxeak izentatzen dauz:

Abendaño
Altamira
Koskorrotza
Etxebarri
Elorriaga
Jauregi
Vergara.

Etxe oneik ez dira danak asieratik bertan jasoak. Batzuk familiak erri batetik bestera egindako aldakuntzetan emen sartuak izango dira.

Batzuk armarri ez bardiñak daukez, eta lekuari begiratu eta ziurtatu bear, berari dagokion eskudoa ete dan zeaztuteko.

Gure ustetan, Labayru'k armarriduntzat izentatzen dauzan abizen edo deitura orreik, onelako armarriak daukez:

Abendaño.—Bedaronako alderdiak. Urretan, aritz bat eta otso baltza enborra igaroten.

Altamira.—Urretan, arrizko almenadun torrea, bertan lau galdara baltz ikusten dirala, egal bakoitzean bi. Ingurua gorritz eta bertan zortzi urre kolorezko erromes-kontxak.

Etxebarri.—Zati bikua. Bat urretan, piñu berde bat, bere urrezko armarri txikia gainduta, aspa eran bost panel berde daukazala.

Bigarren zatian, zidarrean, beste zuaitz berde bat eta otso baltz bi bere ondoa igaroten. Zati onentzako bakarrik inguru gorria urrezko zortzi aspagaz.

Elorriaga.—Urretan, arto berde bat, goiburuan iru izar urdin, zortzi ertzegaz gerriko antzera ipinita.

Jauregi.—Zati bitan. 1.—Urretan, zuaitz berde bat eta basurde baltza, arbola-ondoaren oiña igaroten. 2.—Gorritan, torre zuri bat, urdindua.

Vergara.—Lenengoa (zarrena), urtetan aritz berde bat, urrez onnidua edo loratua, eta otso baltz bat, enberrari urrezko kate bategaz lotuta.

Gorago esandako izenak bere "Historia" ko I tomoan emoten dauz.

III tomoan, 540 orrialdean, beste au dakar:


Alagarreta. Bizkaiko Etxe indartsuen artean sartzen dau. Eta diño etxe onek euki ebala bere etxe-azpitik ibilteko ibilbidea be.

Tomo berbertan, Bizkaiko familien armarren artean, au diño: Olabe.


Bedarona'ko etxea. Armariak: Zidarrean matatsa bat eta bere oiñean otso ibiltari bi, adar batetik laratz baltzagaz dindilizka dagon galdara batera duala.

Eta liburu bertan, Larrabetzuko Olea'ren ezaugarriak emoten, diño ba dagozala Olea deiturak Ea'n be, ango ezaugarri bardiñekaz. Eta Natxitua'ko Olea'k Morgakoen ezaugarri bardiñak daukezala, au da, Zidarrezko gurutze bat, gorritan, dragatzaille berdeekin.



693 ECHABARRI,
de Baracaldo



766 ELORRIAGA, de Gmiz



767 ELORRIAGA, de Izi,



Jauregui

ERROTAK

XVII garren gizaldian, ez dago errietako erroltzarik, zentzurik. Baiña aldi aretan ba egozan beste ikusbide batzuk, orduko zeaztasunak artu al izateko aukera emoten dauskuenak.

Eta or dagoz artxiboetan, izen bat edo bestegaz, zelako gaia alako sailletan.

Oiturazko eben Lurraldeko begiraleak, inspektoreak, tarterik tarte ikustaldiak egitea, batzutan salaketak bitarteko egozala, bestetan euren zeregiñaren bearzunaz. Eta ikustaldien ondorenez jasoten zituen agiri-aktak, or geratzen dira.

Besteen artean ba doguz 1630 eta 1638 urteetako ikertaldietako agiriak.

Errotei buruz geienetan euren auzia eta ondorengo zigor, isun (multa) edo esan bearrekoa bardintsua izaten zan.

Gari nai arto ixotea bestetan baiño geiago kentzen ebela, edo neurri arinagoa emon, eta beste aldetik errotetan galerazota egonarren, egazti eta txarriak ibiltzen zirala, egin eikeen kalteen ardura barik.

Baiña ori Ítxita, erroten egoera soilla agertu nai dogu atal onetan.

Bai 1630 eta bai 1638 urtetako agirietan ikusten da, errota bardiñak egozala eta errotarien izenak eta jaubeak be bardinak. urte areitan, inguru onetan egindako ikertaldietan, zazpi errota agertzen dira, baiña garbi agertzen da bat Izpazterreko zala, Ubi-llaga goikua izenekoa, Mari Urigoitia jaubearena. Beraz a alboan itxita, Natxitu eta Bedarona eleizatetako errota lez, au da, gaur Ea'ko lez, oneik agertzen ziran:

Ubillaga bekoa,	errotari Maria Irassegi zala.
Barrenengoa,	Maria Otxoa Etxebarria errotari.
Oiarbe,	Maria Oiarbe errotari.
Izureta,	Maria Izureta errotari.
Urtubiaga,	Maria Goikoetxea, errotari.
Hea'ko errota,	Franzisko Garro errotari.

ERROTAK

1796 urtean, Ea oraindik Natxituaren izenpean agertzen da. Urte orretan, bertako errotze edo zentzoa egin zanean, zazpi errota agertzen ziran Natxitua-Ea lurraldean.

Oneik ziran:

EA'ko deitzen zana.

Errota au Jose Iñazio Unzeta lekeitiarrarena zan. Burdiñola baten alboan egoan. Antonio Endeizak erabilten eban eta 68 dukat ordaintzen zitun urtean.

EA'ko deitzen zan Aranzibiatarrena.

Errota onen jaubeak Ajangiz'eko Aranzibiatarrak ziran. Altarra'ko Juan'ek erabilten eban.

Urteko errentatzat 29 dukat eukazan izentatuta, baiña sarri gertaten zirala kalteak eta orrein konponketarako dirutza kenduta, jaubeak batez beste urtean jasoten ebana amabi dukatekoa zala esaten da.

OLAGORTA. Antonio Erkiaga'k erabilten eban, usufrutu lez, baiña bere seme Manuel zan bertako jaubea. Biak bertan bizi ziran.

Errota au izan zan inguruan errentarik andiena euki ebana: 80 dukat.

URTEAGA edo URTUBIAGA. Martin Bollar zan jaubea. Onek etxearen erdia erabilten eban bere bizilekutzat eta beste erdia errentan emonda eukan Agustin Galdiz'eri, urteko 18 dukatetan. "Errotea geldi dago eta origaitik ez dau irabazirik emoten" diño errotzeko paperak.

KEREZBALTZAGA. Deitura onetako errota bi egozan. Bien jaubea Jose Manuel Badiola zan. Baten bera bizi zan eta errota biak berberak erabili.

LEGARTZA. Mari Erkisaez'ek Juan Endeizagazko ezkontzatik eukitako seme txikiena. Bertan bizi dira Domingo Idoiaga eta Franzisko Endeiza eta Juan Lauzirika. Onek urtean 24 dukateko errenta dauka.

Bedarona'ko eliz atean

Bedarona'ko eleiz ateko errotzean, lau errota agertzen dira.

UBILLAGA BEKOA. Jaubea Frantzisko Endeiza. Domingo Madarieta'k erabilten eban errentan. 12 dukat ordaintzen zitun.

UBILLAGA ERDIKUA. Au be Frantzisko Endeizarena. Errenterua, Juan Etxebarrieta. Urtean 100 errial ordaintzen zitun.

GOIKOETXEA. (UBILLAGA GOIKOA). Maria Arkotxa, alarguna zan jaubea.


Errenterua Martin Landa. 264 errial ordaintzen zitun. Ez ekian firmaten.

OIARBE. Au be Endeizatarrena.

Jakingarriak: Jakingarri lez esan bear da erroten artean ez zira-la erri guztietan neurri bardiñak erabilten. Euretari erabilten zan libra oiñarriztat artuta, amazzpi eta amasei ontzakuak izaten ziran errotetako librak.

Bizkaian, tokirik geienetan, amazzpi ontzakoak izaten ziran. Baiña inguru onetan, Amorebieta, Amoroto, Arbazegi, Bedarona, Gizaburuaga, Gorozika, Mendata, Mendexa eta Natxitua'n amasei librakoa izaten zan.





EA, LABAYRURI JARRAITZEN

EA, LABAYRU'REN KONDAIRAN

Estanislao Labayru eta Goikoetxea, Filipinas'etan jaíto zan.

Aita militarra, galoiduna, Aragoitarra jaiotzez. Ama bilbotarra. Aittitta eta amuma, Urzainki, Naparroan jaiotak.

Ume zala, urte beteko zala, Bilbo aldera etorran gurasoekaz Ítxasontzi andi baten. Baiña aita bidean il zan.

Labayru abade egin zan. Abadetzarako deia euki eban, baiña beretzat dei ori beteaz, istoria azertu, ezagutu eta jendeari erakusteko idaztea zan Jainkoak eskatzen eutsan lana.

Ortik bere "Historia General del Señorío de Bizcaya", sei tomotan, eta bera il ondoren, bere jarraitzalleak, bere datu eta paparetatik luzatu ebena.

Berari jarraituz, bere istorian billatzen diran Ea'ri buruzko, ta jakiña, Natxitua eta Bedarona'ri buruzko agerpideak batzen alegindu gara.

Leike deituren batek iges egitea. Baiña alegindu gara utsunerik gitxien egiten.

Tomo bakoitzeko orrialdea eta urtea ipiniko doguz barri bakoitzaren alboan. Batzuk balio gitxi dauken barriak dira, gertaeren bateri gaiñetik ikututen dautsenak. Baiña uste dogu danak aintzat artu bear dirala, beintzat urtien urtetan Ea, edo ta Natxitua eta Bedarona'ren azterrenen bat artzeko.

ITOMOA

522 orrialdea. Bizkaiko Lixa kalak.- Ea.- "Locha Bancu".

Lebatz eta besigu kalak.- Ea.- Santomaro.

580 orr. Burdiñolak aitatzean, Ea'n bat eta Natxitu'n bat agertzen dira.

591 orr. Errotak agertzean, Natxitu'n zazpi.

752 orr. Bizkaian armarriak daukezan familiei buruz jardutean, oneik izentatzen dauz, bakoitzaren armarren ezaugarriak azalduaz.

Abendaño, Bedarona'ko alderdikoena.

Altamira.

775 orr. Coscorroza. Jatorrizko etxea eta armarriduna, Bedarona'n.

776 orr. Etxebarri, jatorrizko etxea eta armarriduna, Bedarona'n.

778 orr. Elorriaga, jatorrizko etxea eta armarriduna, Bedarona'n.

790 orr. Jauregi. Deitura onetako armarridunak dagozala, diño, Lekeitio, Busturia eta Bedia'n. Bai eta Arrazola, Etxebarria'ko san Augustin, Bedarona'n eta beste batzutan.

821 orr. jatorrizko eta armarridun etxea Bedarona'n.

II TOMOA

673 orr. 1486 urtean.

Emen Ibarrangelu agertzen da. Eta aldi aretan Natxitu Ibarrangelu'n sartzen zala gogoratuaz, alderdi bat ba dagokio erri oneri.

Diño: Busturi'ko merindadean dagon Angeluako baserritarrak 13 1/2 fogerei egokiena ordaindu bear eutsela Bizkaiko jaunei, au da 3.375 marau (marabedi) diru zuritan.

674 orr. Bai eta Ereño'ko baserritarrak (Emen Bedarona'kuak sartzen ziran).

759 orr. Lengo gizaldietan oñaztar eta ganboatar alderdietan zeintzuk erri ibiltzen ziran edo ta erriak zein alderditatik jokatzen eben zerrendan, oñaztarren aldetik agertzen da Bedarona.

Natxitua, ordez, ganboatarren alderditik.

III TOMOA

35 orr. 1402 urtea.

Bilbo'n, urte batzuk lenago, uriol ikaragarri batek Santiago'ko illobi asko jaso zitun eta danak naastu eta tatarrez itxi. Origaitik illobien zerrenda egin zan, eta urte orretan beste barri bat. Amabigarren erreskadan, eatarrei dagokiezan illobiak egozan.

Ala bat Fortun Urtiz, Eatarra, gero Bilbo'ko Mari Ibañez'ena izatera aldatu zan illobia.

Beste bat, errezkada berbertan, Ea'ko Juan Perez'ena.

369 orr. 1846.

Eleizako amarrenak zenbaten baliatzen diran errentetarako adieraztean:

Bedarona 7.000 marau.

Ereño 19.000

Ez da agertzen Natxitukorik, ez onen eleiza-ama zan Ibarrangelukorik.

- 396 orr. 1487.
 "San Pedro de Vedarria" "Vedarona", Adan de Yarza'k daroala esaten, 7.000 marabediren ordez.
 Ereño'ko Mikel deuna, Adan berberak, 19.000 marabedi ordez.
- 398 orr. 1487.
 Ibarrangelu- Natxitua, 13.000 marabeditan baliatzen da.
 Erdiz bana daroe eleiza au Arteaga'ko Gartzia'k eta Adan de Yartza Frantzisko'k.
- 406 orr. 1494 urtea.
 Bizkai'ko itxasertza deitzen dan atalean:
 EA dator, zeazketa onegaz:
